

Euskarak Nafarroan duen dimentsio eta eragin ekonomikoaren ebaluaketa eta sektore ekonomikoan euskara sustatzeko ekintzak

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUA



Aurkibidea

1. ATALA ANALISI KUANTITATIBOA	6
1. Ikuspegi orokorra eta metodologia.....	7
1.1. Ikerketaren helburu orokorra.....	8
1.2. Lan eremua: ikerketaren esparrua identifikatzea eta euskararen sektorea izateko irizpideak definitzea	8
1.3. Metodologia	12
2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak.....	13
2.1. Nafarroako Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (NASTAT, 2018)	14
2.2. Azterlanerako unibertsoaren zehaztapena: elkarte eta erakundeen datu-oinarria osatu.....	14
2.3. Euskara koefizientea kalkulatzeko sistema jarduera ekonomikoaren arabera	15
2.3.1. Informazio iturriak.....	16
2.4. Analisi kuantitatiboaren emaitzak.....	17
2.4.1. Hizkuntzaren industria	17
2.4.2. Kultura eta hedabideen industria	26
2.4.3. Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak	33
2.4.4. Toki administrazioak	44
2.5. Euskararen datu ekonomikoak: enplegua eta balio erantsi gordina	47
2.6. Euskararen pisua Nafarroako ekonomian: eragin zuzena, zeharkakoa eta induzitua	51
2. ATALA ANALISI KUALITATIBOA.....	55
3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa	56
3.1. Galizia 58	
3.1.1. Galegoaren hedadura	58
3.1.2. Galegoaren lege-estatusa	59
3.1.3. Eremu ekonomikoan galegoa sustatzeko eskualdeko agintariek garatutako plan eta ekintza nagusiak.....	60
3.2. Gales 67	
3.2.1. hizkuntzaren hedadura	67
3.2.2. Galesaren lege-estatusa.....	68

Aurkibidea

3.2.3.	Eremu ekonomikoan galesa sustatzeko eskualdeko agintariak garatutako plan eta ekintza nagusiak.....	68
3.3.	Quebec	75
3.3.1.	Frantsesaren hedadura Kanadan eta Quebecen	75
3.3.2.	Frantsesaren lege-estatusa Quebecen	76
3.3.3.	Eremu ekonomikoan frantsesa sustatzeko Quebecoko eskualdeko agintariak garatutako ekintza nagusiak.....	78
3.4.	Galizia, Gales eta Quebecoko esperientzietako ondorio nagusiak eremu urriko hizkuntza propioen sostenguan.....	81
3.5.	Eranskina. Medidas propuestas en las áreas relativas a "Medios de comunicación e industrias culturales" y a "Economía" por el Plan General de Normalización de la Lengua Gallega (en gallego)	84
4.	Nafarroako Klusterren ordezkarien iritzia	88
4.1.	Sarrera	89
4.2.	Egindako elkarrizketetatik eskuratutako emaitza nagusiak	91
4.2.1.	Euskararen egoera orokorra sektore produktiboetan	91
4.2.2.	Euskararen potentzialtasuna sektorearentzako aberastasun sortzaile gisa	91
4.2.3.	Egungo/Etorkizuneko oztopo eta mehatxuak potentzialtasun hau garatzeko.....	92
4.2.4.	Planen existentzia (abian edo aurrekusiak), euskararen erabilera bultzatzera bideratuak, bai sektorean eta bai sektorearentzako.....	93
4.2.5.	Jardunbide egoki posibleen identifikazioa, sektorean bertan garatuak.....	93
5.	Ondorio nagusiak	94
5.1.	Analisi kuantitatiboaren ondorio nagusiak.....	95
5.2.	Analisi kualitatiboaren ondorio nagusiak	96
5.3.	Ondorio nagusiak.....	97
3. ATALA	ERANSKINAK.....	98
A.	Eranskina METODOLOGIA	99
B.	Eranskina DIRU LAGUNTZAK.....	105
C.	Eranskina MAPAK	113
D.	Eranskina EUSKARA ZERBITZUAK	117

Aurkibidea

TAULA AURKIBIDEA

2.1 Taula:	Euskaltegietako enplegua eta pertsonal gastuak	18
2.2 Taula:	Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskara-enplegua eta erreferentziako enplegua	19
2.3 Taula:	Hizkuntza akademietako enpleguaren NASTATEko Gidazerrendako datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko inkestaren emaitzak eta erreferentziako enplegua	20
2.4 Taula:	Itzulpengintzaren alorreko enpresa eta autonomoen enpleguaren Nastateko Gidazerrendako datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko inkestaren emaitzak eta erreferentziako enplegua	21
2.5 Taula:	Hizkuntza zerbitzu eta aholkularitzako enpresetako enpleguaren datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua	22
2.6 Taula:	Euskararen corpusaren lanketa eta zabalpeneko erakunde kopurua eta erreferentziako enplegua	23
2.7 Taula:	Hizkuntzaren trataera eta prozesaketara teknologia berriak eta euskarri grafikoen establezimenduak eta erreferentziako enplegua	24
2.8 Taula:	Hizkuntzaren industriaren erreferentziako enplegua guztira eta azpi-sektorekako banaketa	25
2.9 Taula:	Kultura eta hedabideetako industriaren euskara koefizientea, erreferentziako enplegua eta iturriak, azpi-sektorekako banaketa	31
2.10 Taula:	Kultura eta hedabideetako industriaren erreferentziako enplegua guztira eta azpi-sektorekako banaketa	32
2.11 Taula:	Irakaskuntza etapa eta eredu bakoitzean aplikatu beharreko euskara koefizienteen zehaztapena	33
2.12 Taula:	Irakasleak. 2018-2019 ikasturtea	34
2.13 Taula:	Irakaskuntza etapa eta eredu bakoitzeko irakasle kopuruaren estimazioa, ikasle kopuruaren arabera egina	35
2.14 Taula:	Euskarazko irakasgaietako irakasle kopuruaren estimazioa, etapa eta irakats ereduaren arabera euskara koefizientea aplikatuta	36
2.15 Taula:	Haur eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako erreferentziako euskara-enplegua	37
2.16 Taula:	Nafarroako Unibertsitate Publikoko gradu-ondoko kreditu eskaintza hizkuntzaren arabera eta estimatutako euskara koefizientea	38
2.17 Taula:	Nafarroako Unibertsitate Publikoko gradu-ondoko kreditu eskaintza hizkuntza eta zentroaren arabera	39
2.18 Taula:	Nafarroako Unibertsitate Publikoko gradu-ondo eta masterretako kreditu eskaintza hizkuntzaren arabera eta estimatutako euskara koefizientea	39
2.19 Taula:	Nafarroako Unibertsitate Publikoko gradu eta gradu-ondoko kreditu eskaintza zentroaren arabera	40
2.20 Taula:	Nafarroako Unibertsitate Publikoko guztirako enplegua (lanaldi osora) eta estimatutako euskara-enplegua	41
2.21 Taula:	Universidad de Navarra gradu-ondoko kreditu eskaintza hizkuntzaren arabera eta estimatutako euskara koefizientea	41
2.22 Taula:	Unibertsitateetako euskara enplegua guztira	42
2.23 Taula:	Hezkuntzan erreferentziako enplegua	43
2.24 Taula:	Toki Administrazioetako euskara arloetako erreferentziako enplegua	44

Aurkibidea

2.25 Taula:	Kultura Departamentuetako euskarari dagokion erreferentziazko enplegua.....	46
2.26 Taula:	Zerbitzuen inkestako datuak.....	48
2.27 Taula:	Euskararen Industriako jarduera-sektoreen datu ekonomikoak.....	49
2.28 Taula:	Administrazio publikoaren azpi-sektoreetako datu ekonomikoak.....	50
2.29 Taula:	Input-Output taulako jarduera-adarrak, sektore-ekonomikoei jarraiki.....	51
2.30 Taula:	Euskararen zuzeneko, zeharkako eragina eta eragin induzitua Nafarroako ekonomian.....	53
2.31 Taula:	Euskararen pisua Nafarroako ekonomian: enplegua, Balio Erantsi Gordina eta Barne Produktu Gordina.....	53
3.1 Taula:	Galiziako pertsonak, normalean hitz egindako hizkuntzaren arabera.....	58
3.2 Taula:	Galegoa Normalizatzeko Plan Orokorrak "Komunikabideen eta industria kulturalen" eta "Ekonomiaren" arloekin lotuta intereseko azpieroemugaritan lortu nahi dituen helburuak.....	61
3.3 Taula:	Ehun Ekonomikoan Galegoa Dinamizatzeko Plana 2016-2020 planak proposatutako neurri espezifikoak eta zeharkako neurriak.....	63
3.4 Taula:	Galesaren inguruko Estrategia 2012-2017 dokumentuko 4. eta 5. arlo estrategikoetan aurrez ikusitako ekintzak.....	70
3.5 Taula:	Cymraeg 2050 Estrategiak lortu nahi dituen helburuak eta lan-eremuak.....	73
A.1 Taula:	JEDIGeko sektoreak.....	100
B.1 Taula:	Euskarabidearen aldetik diru laguntzak jaso dituzten hedabideak. Zenbateko osoa. 2016-2018.....	107
B.2 Taula:	Euskarabidearen diru laguntzen zenbatekoa, 2018ko diru laguntza lerro/deialdien arabera.....	109
B.3 Taula:	Nafarroako Kultura Departamentuaren diru laguntzen zenbatekoa, 2018ko diru laguntza lerro/deialdien arabera.....	110
B.4 Taula:	Euskarabideak udalei emandako diru laguntzak, 2017.....	112

GRAFIKO AURKIBIDEA

3.1 Grafikoa:	Cymraeg 2050 Estrategiaren lan-eremuak.....	72
---------------	---	----

MAPA AURKIBIDEA

2.1 Mapa	Euskara zerbitzuak eskualdeka.....	45
3.1 Mapa:	Gales-hiztunen proportzioa, eremu geografikoen arabera.....	67
3.2 Mapa:	Quebecen kokapen geografikoa.....	75



1. ATALA ANALISI KUANTITATIBOA



1. Ikuspegi orokorra eta metodologia

1. Ikuspegi orokorra eta metodologia

1.1. Ikerketaren helburu orokorra

Ondoren aurkezten den txostenak Euskarabideak-Euskararen Nafar Institutuak egindako eskakizunari erantzun nahi dio. Ikerketaren helburua Nafarroako Foru Komunitatean euskararen dimentsio eta eragin ekonomikoa ebaluatzea eta, aldi berean, euskara sektore ekonomikoan sustatu eta indartuko duten neurrien azterketa egitea da.

Ikerketarekin hasi aurretik lan taldeak nabarmendu nahi du euskarari dagokionez informazioa eskuratzeko izandako zailtasunak, ez soilik esparru pribatuan, baizik eta esparru publikoan ere. Aipagarria da administrazioaren aldetik ikerketa burutzeko orduan egon den informazio falta eta egoera honek ekarri dituen zailtasunak, zenbait kasuetan suposaketak egitera behartu gaituena.

1.2. Lan eremua: ikerketaren esparrua identifikatzea eta euskararen sektorea izateko irizpideak definitzea

Euskarak Nafarroan duen balio ekonomikoa kuantifikatzeko eta ebaluatzeko, lehenik eta behin, euskarari loturiko sektore eta azpisektoreak -esparru publikokoak zein pribatukoak- identifikatu dira.

IKEIk bi irizpide oinarritzat hartu ditu sektore eta azpisektore guztien artean euskara sektore gisa kontsideratu daitezkeenak identifikatzeko eta euskarak sortzen duen balio ekonomikoaren arabera, jarduerak bi multzotan sailkatuko genituzke:

1. Euskara balioa den kasuetan. Zenbait sektore ekoizten dituzten produktu edo eskaintzen dituzten zerbitzuetan, euskara da balio horren oinarria. Sektore horien artean ondorengo hauek nabarmentzen dira: euskararen industria, kultura eta hedabideak eta hezkuntza.
2. Beste sektore batzuetan, euskara ez da ekoizten dituzten produktu edo eskaintzen dituzten zerbitzuetan balioaren oinarri, baizik eta, elementu eramailea, hau da, euskara "*elementu behikularra*" da. Kasu honetan Administrazio Publikoa aurkituko genuke.

Testuinguru honetan, IKEIk euskarak Nafarroan duen balio ekonomikoa kuantifikatu eta ebaluatzeko aztertu beharreko lau sektore identifikatzen ditu:

1. Hizkuntzaren industria – Euskara hizkuntza bezala lantzen duen industria
2. Kultura eta Hedabideak
3. Hezkuntza
4. Administrazio Publikoa

1. Ikuspegi orokorra eta metodologia

Euskarak Nafarroan sortzen duen enplegua estimatzeko analisi kuantitatiboarekin aurrera jarraitu aurretik, aztertuko diren lau sektoreak aukeratzearen eta azpisektoreak sektore hauetan antolatzeke eta horrela izendatzeko arrazoia edo zergatia azalduko da.

Ikerketa egiteko aztertu diren lau taldeak izendatzeko kontuan hartu den irizpidea sektoreak eskaintzen duen zerbitzu nagusia izan da. Hau da, ez zerbitzu horren ezaugarrietako bat (adibidez zein hizkuntzan eskaintzen da) baizik eta zerbitzu nagusia zein den. Testuinguru honetan, bi motatako sektoreak aztertuko direla aipatu behar da:

- Batetik, eskaintzen den zerbitzua hizkuntza bera denean.

"Hizkuntzaren industria" izenarekin izendatu dugu sektore hau eta talde hau osatzen duten azpisektorean hizkuntza da eskaintzen duten zerbitzua. Hau da, eskaintzatik hizkuntza kentzen bada, ez dago zerbitzurik.

Adibidez, ikastetxeak (hezkuntza) ez daude talde honetan baina euskaltegiak (euskararen irakaskuntza) bai. Lehen kasuan, eskaintzen dena hezkuntza da eta hezkuntza modelo bat edo beste aukeratzeko hizkuntza erabakigarria izan badaiteke ere, ez da zerbitzua kontsumitzeko azken helburua. Kasu honetan azken helburua hezkuntza da eta ez hizkuntza. Euskaltegien kasuan, aldiz, euskara ikastea da zerbitzua eskatzeko arrazoia. Hau da, ikastetxeen kasuan euskara edo beste edozein hizkuntza kentzen bada zerbitzua ematea posible da baina euskaltegien kasuan hizkuntza kentzen bada ez da posible zerbitzua eskaintzea.

Hori da lau sektoreak antolatzeke orduan kontuan hartu den irizpidea: zein da azken zerbitzua? Euskara kentzen badugu zerbitzua eskaintzea posible da?

- Bestetik, eskaintzen den zerbitzua hizkuntza ez bada ere, erabakigarria izan daitekeen ezaugarri bat denean.

Talde honetan aztertu diren gainerako hiru sektoreak daude: "Kultura eta hedabideak", "Hezkuntza" eta "Toki administrazioa". Hiru kasuetan hizkuntza ez da eskaintzen den azken zerbitzua baina erabakigarria izan daiteke aukeraketa egiterako momentuan.

Adibidez, egunkarien kasuan, kontsumitzen den zerbitzua informazioa da (hedabideak) eta euskara gabe zerbitzua (egunkaria) kontsumitzea posible da baina, euskara izan daiteke egunkari bat edo beste aukeratzeko arrazoia.

1. Ikuspegi orokorra eta metodologia

a) I. Sektorea – Hizkuntzaren “industria”

Hizkuntzaren corpusa edo alderdi linguistikoa landu eta zabaltzera bideratuak dauden jarduera-sektore guztiak bilduko genituzke lehen sektore honetan. Hizkuntzen ikasketa, erabilera eta tratamendurako produktu eta zerbitzuen diseinu, ekoizpen eta komertzializazioari lotuak dauden jarduerak dira; Euskararen Industriari dagokionean, lehen sektore honen barnean ondoko azpi-sektoreak bereizi ditugu:

- Hizkuntzen irakaskuntza ez arautua: euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak eta hizkuntza akademiak.
- Itzulpengintza eta interpretazioa: zerbitzu-enpresak eta langile autonomoak.
- Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza: euskara planen diseinu eta inplementaziorako aholkularitza zerbitzuak.
- Euskararen corpusaren lanketa eta zabalpena: hizkuntzaren arauketa, hiztegiak, lexikoa eta terminologiaren alorra.
- Hizkuntza-teknologiaren garapena eta zabalpena: hiztegi elektronikoak, hizkuntza prozesadoreak, hizkuntza zuzentzaileak, itzulpen lanetarako softwareak, euskara ikasteko nahiz erabiltzeko aplikazioak, web teknologiak, eta abar.

b) II. Sektorea – Kultura eta hedabideen industria

Bigarren multzo honi lotutako jardueretan, hizkuntza, produktuaren ekoizpenari zuzenean lotuta dagoela kontsideratu dugu; hizkuntza ez da jardueraren xede, lehen sektoreko jardueretan bezala, baina ezinbesteko elementua da. Adibiderik argiena liburua eta antzeko produktuena da, non hitzaren bitartez sortzen diren produktuak diren. Bigarren sektore honen azpi-sektoreak asko dira:

- Liburugintza: argitaletxeak, liburu-dendak eta liburutegi-zerbitzuak.
- Ikus-entzunezkoen industria: musikaren industria, zinemaren industria eta bideo jokoaren eta kultura digitalaren industria
- Kultur sortzaile autonomoak: idazleak, musikariak eta artea eta kulturaren alorreko bestelako ekoizle autonomoak.
- Arte eszenikoak: antzerkia eta dantza ekoizleak eta programatzaileak.
- Bertsolaritza: bertsolaritzaren arloko elkarte eta erakundeak.
- Hedabideak: egunkariak, aldizkariak, irratiak, telebistak, internet eta berri-agentziak.
- Komunikazioa, kultura, euskara eta gizarte arloko bestelako elkarteak: kultura, aisialdi, euskara eta gizarte gaietako bestelako elkarteak; komunikazio eta publizitate zerbitzuen enpresak; internet zerbitzuak; eta dokumentazio zentroak eta unibertsitatearekin loturarik ez duten ikerketa zentroak.

1. Ikuspegi orokorra eta metodologia

c) *III. Sektorea – Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak*

Euskararen ezagutza eta transmisioaren zutaberi nagusia da hezkuntza sistema Nafarroako Foru Komunitatean. Ikasmaita eta ikasketa-adarren arabera, aldakorra da hezkuntza eta unibertsitate alorreko jarduerak euskararekin duten lotura maila; aldagai horiek eta beste batzuk ere kontuan hartuta, hezkuntza arautuaren eta unibertsitateen jardueran euskarari dagokion pisua estimatzeko kalkuluak egin dira. Hirugarren sektore honen azpi-sektoreak honakoak dira:

- Haur eta Lehen Hezkuntza: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako euskarazko irakaskuntzaren enplegua estimatu da.
- Bigarren Hezkuntza: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hasierako lan-kualifikazio programetako euskarazko irakaskuntzaren enplegua.
- Unibertsitateko Hezkuntza: Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitateko euskarazko irakaskuntzaren enplegua estimatu da.

d) *IV. Sektorea – Administrazio publikoa*


Aurreko hiru hizkuntza-sektoreetan eta bereziki euskarari lotua dagoen industrian, pisu handia du administrazio publikoak. Nafarroako Foru Komunitatean toki administrazioek euskararen sustapenerako dituzten egituretako enplegua biltzen du laugarren sektore honek; horrez gain, baita administrazio publikoko kultura arloetako enplegatu publikoen zati bat ere, kulturarako toki administrazioek egiten duten lanetik euskarazko kulturak duen pisuaren arabera kalkulatuta. Ondorioz, bi azpi-sektore bereizi dira:

- Toki administrazioen euskara arloetako baliabideak.
- Toki administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako baliabideak.

1. Ikuspegi orokorra eta metodologia

1.3. Metodologia

- 1 Azterlana osatzen duten sektore eta azpisektoreak definitu
- 2 Establezimendu unibertsoa definitu eta gidazerrenda osatu
- 3 Euskarari inputatu beharreko balioa identifikatu: %100 euskara edo dagokion ehunekoak kalkulatu
- 4 Landa lana egin eta zeharkako informazio iturriekin informazioa osatu
- 5 Sektore eta azpisektore bakoitzaren euskara-koefizientea estimatu
- 6 Euskarari dagokion enplegua estimatu
- 7 Euskararen balio ekonomikoaren makromagnitudeak oinarritzat hartuta, enplegua, soldatak, BEG eta fakturazioa estimatu
- 8 Euskararen zeharkako eragin ekonomikoa estimatu
- 9 Euskarak duen eragin induzitua estimatu
- 10 Nafarroako BPGan euskarak sektore ekonomiko gisa duen pisua estimatu



2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.1. Nafarroako Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (NASTAT, 2018)

Euskarak Nafarroako Foru Komunitatean duen dimentsio eta eragin ekonomikoaren ebaluazio egiteko oinarritzat hartu da Nafarroako Estatistika Erakundeak – NASTATEk argitaratutako Nafarroako Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda Nafarroako Foru Komunitateko enpresa eta establezimenduez osatutako errolda da eta azterlan honetan aurkezten den ikerketa egiteko 2018ko establezimenduen zerrenda erabili da.

Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda antolatzeko erabiltzen den sailkapena Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Ofiziala (JESN) da. Sailkapen sistema hau jarduera adarren arabera egituratuta dago eta guztira 4 digitu kodeko 629 jarduera adarrek osatzen dute.

Garrantzitsua da kontuan hartzea zenbait establezimenduk zerbitzu bat baino gehiago eman arren, jarduera adar bakar batean daudela. Hau da, zerbitzu bat baino gehiago ematen duten establezimenduak, eskaintzen duten zerbitzu garrantzitsuenaren epigrafean azaltzen dira eta ez gainerakoetan.

Testuinguru honetan, eta euskarak Nafarroak duen dimentsioa eta eragin ekonomikoa kalkulatzeko 36 jarduera adar hartu dira kontuan, hau da, euskararekin eta hizkuntzarekin harremana duten jarduera adarrak.

2.2. Azterlanerako unibertsoaren zehaztapena: elkarte eta erakundeen datu-oinarria osatu

Nafarroako Estatistika Erakundeak argitaratutako Nafarroako Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda oinarritzat hartuta, aipatutako sektore eta azpisektoreetako establezimenduen zerrenda egin da eta zeharkako informazio iturriekin osatu da.

NASTATetik jasotako Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatean 2018 urtean 43.197 establezimendu daude guztira. Euskarak Nafarroako Foru Komunitatean duen dimentsio eta eragin ekonomikoa estimatzeko aurrez definitutako sektore eta azpisektorea, aldiz, 3.792 establezimenduz osatzen dute.

Aipatu den moduan, gidazerrenda hau "garbitu" egin da eta nahiz eta ikerketarako definitutako jarduera adarrekin bat egin, establezimenduaren jarduera nagusia euskararekin bat ez datorrela ikusi den kasuetan, zerrendatik kendu egin da. Aldi berean, establezimenduren bat falta zela ikusi den kasuetan, zerrenda osatu da.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.3. Euskara koefizientea kalkulatzeko sistema jarduera ekonomikoaren arabera

Azterketa kuantitatiboa egiteko euskararen sektoreko enpresei egindako inkesta informazio iturri oso garrantzitsua bada ere, zenbait kasuetan, inkesta bidez sektorea edo azpisektorea osatzen duten establezimenduen kopurua, hauen enplegua eta euskararen koefizientea ezagutzea oso zaila da. Landa lanaren bitartez informazioa eskuratzea posible izan ez den kasuetan, zeharkako informazio iturriak kontsultatu dira euskara koefizientea kalkulatzeko.

Gainera, kontuan hartu behar da ikerketan aztertu diren sektore batzuetan jarduera ekonomikoaren ehuneko ehuna euskarari lotuta dagoela, enpleguari zein ekoizpenari dagokionez. Kasu honetan, euskarak suposatzen duen enplegua ezagutzeko zuzeneko iturrietara jo dugu, hau da, zuzenean beraiekin eta beraien ordezkari batekin harremanetan jarri gara. Euskara ehuneko ehuna suposatzen duen sektore eta azpisektoreak hauek liriateke:

- Euskaltegiak
- Bertsolaritza
- Euskaren korpusaren lanketa
- Euskara sustatzera bideratutako baliabideak
- ...

Ikerketa burutzeko kontuan hartu diren gainerako sektore eta azpisektoreen kasuan, hizkuntzari lotutako zenbait jardueratan euskarak beste hizkuntzan artean duen pisua estimatu da, hau da, euskarari inputatu beharreko enplegua kalkulatu da. Multzo honetan ondorengo sektore eta azpisektoreak aurkitzen dira:

- Itzulpengintza
- Liburugintza
- Musikaren industria
- Hezkuntza
- ...

Beti ere, euskarak duen pisuaren estimazioa egiteko beharrezkoa den informazioa ezagutzeko inkesta egitea posible izan ez den kasuetan, zeharkako informazio iturrietara jo dugu.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.3.1. Informazio iturriak

Aurretik aipatu den moduan, euskararen pisuaren estimazioa modu zuzenean egitea posible izan ez den kasuetan, zeharkako iturriak erabili ohi dira. Kasu hauetan, sektore eta azpisektorearekin harreman zuzena duten iturriak erabili dira informazio osoena eta egokiena ziurtatzeko helburuarekin.

Testuinguru honetan, hauek izan dira ikerketan zehar erabilitako zuzeneko eta zeharkako informazio iturriak:

- Euskarabidea
- Nafarroako Estatistika Erakundea (na)stat
- Nafarroako Hezkuntza Departamentua
- Nafarroako Kultura Departamentua
- Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioetako Departamentua
- Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa
- Udaletako Euskara Zerbitzuak
- Esleitutako diru laguntzen zerrenda
- Euskaltzaindia
- Euskal Editoreen Elkarte
- Nafarroako Bertsozale Elkarte
- Kultura, sormen eta arte-proposamenen erregistroa
- Zerbitzuen inkesta - Nastat
- Tokikom
- Nafarroako Unibertsitatea Publikoa- NUP
- Nafarroako Unibertsitatea
- DILVE – Distribuidor de Información del Libro Español en Venta

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.4. Analisi kuantitatiboaren emaitzak

Ikerketaren hasieran azaldu den bezala, ikerketarako definitutako sektoreak eta azpisektoreak aukeratzeko eta izendatzeko kontuan hartu den irizpidea sektoreak eskaintzen duen amaierako zerbitzu nagusia izan da. Hau da, ez zerbitzu horren ezaugarrietako bat baizik eta zein den zerbitzu nagusia. Gauzak horrela, berriz ere azalduko dira aztertuko diren bi motatako sektoreak:

- Eskaintzen den zerbitzua hizkuntza denean. "Hizkuntzaren industria" izenarekin izendatu dugu sektore hau eta talde hau osatzen duten azpisektorean hizkuntza da eskaintzen duten produktua edo zerbitzua. Hau da, eskaintzatik hizkuntza kentzen bada, ez dago zerbitzurik.
- Eskaintzen den zerbitzua hizkuntza ez bada ere, erabakigarria izan daitekeen ezaugarri bat denean.

Talde honetan gainerako hiru sektoreak daude: "Kultura eta hedabideak", "Hezkuntza" eta "Toki administrazioa". Hiru kasuetan hizkuntza ez da eskaintzen den azken produktu edo zerbitzua baina erabakigarria izan daiteke aukeraketa egiterako momentuan.

2.4.1. Hizkuntzaren industria

Aurretik aipatu den moduan, hizkuntzaren industria da ikerketaren analisi kuantitatiboan aztertuko den lehen sektorea. Hizkuntzaren industriaren barnean eskaintzen den produktua edo zerbitzua euskara bera den kasuak aurkitzen ditugu. Hau da, euskara ez da zerbitzua edo produktua eskaintzeko euskarri edo gehigarri bat, baizik eta euskara da produktua bera eta euskara gabe ez da posible eskaintzen den produktu edo zerbitzua eskaintzea.

Talde honetan bost azpisektore aurkitzen ditugu:

- a) Euskararen irakaskuntza
- b) Itzulpengintza
- c) Euskara hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza
- d) Euskararen corpusaren lanketa eta zabalpena
- e) Hizkuntza teknologiak

Ikus daitekeen moduan, kasu guztietan hizkuntza da saltzen edo eskaintzen den produktua edo zerbitzua.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

a) Euskararen irakaskuntza (hezuntza sistemaz kanpokoak): euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak eta hizkuntza akademiak

Euskararen irakaskuntzak hiru establezimendu mota hartzen ditu bere barnean: euskaltegiak, hizkuntza eskola ofizialak eta hizkuntza akademiak.

Euskaltegiak

Nafarroako Foru Komunitatean 19 euskaltegi daude lau taldetan egituratuta: AEK-k hamaika establezimendu ditu, IKAk sei establezimendu ditu eta Euskarabideak eta Zubiartek beste establezimendu bana.

Testuinguru honetan, AEK-ko euskaltegiak 127 langile dituzte Nafarroan (96,5 jardunaldi osoko baliokidean), Zubiarte euskaltegiak hogeita lau pertsona enplegatzen ditu (23 jardunaldi osoko baliokidean), IKA-ko euskaltegiak hogeita zortzi langile dituzte (20,5 jardunaldi osoko baliokidean) eta, azkenik, Euskarabideako euskaltegian hemeretzi pertsonak egiten dute lan (18,3 jardunaldi osoko baliokidean). Guztira Nafarroako Foru Komunitateko euskaltegiak 198 pertsona enplegatzen dituzte, jardunaldi osoko baliokidean 159 enplegu eta 2.578.787 euroko gastua suposatzen dutenak.

2.1 Taula: Euskaltegietakoen enplegua eta pertsonal gastuak

Azpi-sektorea	Jardueramota	Erakunde-mota	Euskarabidea				Erreferentziazko enplegua
			Establezimendu kopurua	Matrikulatutako ikasleak	Langileak (irakasleak eta besteak)	Enplegua (lanaldi osoa)	
a. Hizkuntzen irakaskuntza	Euskaltegiak	Euskarabidea	1	753	19	18,3	18
		Herri ekimena-AEK	11	1.200	127	96,5	97
		Herri ekimena-IKA	6	450	28	20,5	21
		Zubiarte	1	1.266	24	23	23
	Guztira		19	3.669	198	159	159

Iturria: Euskarabidea

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Hizkuntza Eskola Ofizialak

Hiru dira Nafarroako Foru Komunitatean aurkitu daitezkeen Hizkuntza Eskola Ofizialak: Iruñekoa, Tuterakoa eta Urrutiko Hizkuntza Eskola. Azken ikasturtean bertan matrikulatutako ikasleak 6.698 izan dira, euskarako klaseetan matrikulatutako ikasteak 2.191 izan direlarik (ikasle guztien %32,7a).

Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialetan euskara klaseak ematen dituzten irakasleak guztira 19,9 dira eta gainerako langileak, 16 pertsona dira. Kasu honetan, pertsonal gastuei aurre egiteko aurrekontua 1.411.000 eurokoa izan da.

Ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskararen irakaskuntzari dagokion erreferentziako enplegua 20koa da.

2.2 Taula: Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskara-enplegua eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera- mota	Nafarroako Gobernu (Hezkuntza Departamentua)				Erreferentziako enplegua
		Zentro kopurua	Matrikulazioa (18-19)	Euskara ikasleak (17-18)	Euskara irakasleak	
a.Hizkuntzen irakaskuntza	Hizkuntza eskola ofizialak	3	6.698	2.191	19,9	20

Iturria: Euskarabidea eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Hizkuntza akademiak

Hizkuntza akademiaren azpisektoreari dagokionez, eta NASTATEko jarduera ekonomikoaren gidazerrendaren arabera, Nafarroan 38 establezimendu daude hizkuntza akademia bezala alta emanda. Establezimendu hauek guztira 199 langile dituzte hizkuntza akademietan klaseak ematen.

Euskarari dagokion enpleguari dagokionez, soilik 2 akademiak adierazi dute euskarazko eskolak eskaintzen dituztela: Bai&by akademia eta San Fermín akademia. Guztira, Nafarroako hizkuntza akademiaren azpisektorearen euskara-enpleguaren koefizientea 3,5 enplegu dira.

Bestalde, aipatu behar da Nafarroako Unibertsitate Publikoak Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegia duela, baina gaur egun ez du euskarazko eskaintzarik.

2.3 Taula: Hizkuntza akademietako enpleguaren NASTATEko Gidazerrendako datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko inkestaren emaitzak eta erreferentziazko enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Jarduera Ekonomikoaren Gidazerrenda (NASTAT, 2018)		Euskara koefizienteari buruzko INKESTA (Ikei, 2018)	Erreferentziazko enplegua
		Establezimendu kop.	Enplegua		
a. Hizkuntzen irakaskuntza	Hizkuntza akademiak	39	119	2,94	3,5

Iturria: NASTAT, 2018

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

b) Itzulpen eta interpretazio lanak: enpresa eta langile autonomoak

Azterketaren lehen atal honetan aurkitzen dugun laugarren azpisektorea itzulpengintza da, zehazki, itzulpen enpresak eta autonomo bezala itzultzaile lanak egiten dituzten pertsonak.

Zentzu honetan, Nafarroan 19 itzulpen enpresa daude guztira 11,5 lanpostu sortzen dituztenak. Establezimendu hauei egindako inkestako emaitzetatik ondorioztatu daitekeenez, enpresa hauek egiten dituzten lan guztien %21,2 euskaratik edo euskarara egindako itzulpenak dira. Hau izan da euskara-enpleguaren koefizientea estimatzeko irizpidea. Ondorioz, 2,4 enplegu dira euskarak sortzen dituen itzulpen enpresetan.

Bestalde, eta itzultzaile autonomoen artean euskara-enpleguaren koefizientea estimatzeko ondorengo suposizioa egin da: itzultzaile autonomoen kasuan tendentzia errepikatu egiten da, hau da, egiten diren lanen %21,2a euskaratik edo euskarara egindako itzulpenak dira. Ondorioz, guztira 69 enplegu zenbatu direnez, euskarari dagokion enplegua 14,6 da.

Ondorioz, guztira 17 enplegu zuzen sortzen ditu euskarak Nafarroako itzulpengintzaren sektorean.

2.4 Taula: Itzulpengintzaren alorreko enpresa eta autonomoen enpleguaren Nastateko Gidazerrendako datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko inkestaren emaitzak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera- mota	Erakunde- mota	Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (NASTAT, 2018)		Euskara koefizientearen estimazioa(enpleguari jarraiki haztatua, Ikei, 2018)	Erreferentziako enplegua
			Establezimendu kop.	Enplegua		
b. Itzulpengintza	Itzulpen enpresak eta langile autonomoak	Itzulpen enpresak	19	11,5	21,2	2,4
		Itzultzaile autonomoak	67	69	21,2*	14,6
	Guztira		86	80,5	--	17

* Itzulpen enpresetan atera den ehuneko berdina aplikatzen da autonomoen kasuan
Iturria: NASTAT, 2018; Ikei, 2018

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

c) *Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza linguistikoa: euskara planen diseinu eta implementaziorako aholkularitza zerbitzuak*

Bi enpresek eskaintzen dituzte Nafarroan hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza: Emun eta Ahize AEK.

Ondorengo taulan ikus daitekeen moduan, bi establezimendu daude Nafarroan eta egiten duten lanaren %100 euskararekin harreman zuzena dauka eta euskarari dagokio. Guztira 5 enplegu suposatzen dute.

2.5 Taula: Hizkuntza zerbitzu eta aholkularitzako enpresetako enpleguaren datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera- mota	Establezimendu kop.	Enplegua guztira	Euskara koefizientea (enpleguari jarraiki haztatua)	Erreferentziako enplegua
c. Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza	Nagusiki hizkuntza zerbitzuak eta hizkuntza aholkularitzako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak	2	5	100	5

Iturria: Nastat, 2018

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

d) Euskararen corpusa eta edukien garapena: hizkuntzaren arauketa, hiztegitza, lexikoa eta terminologiaren alorra

Euskararen corpusari dagokionez, bi erakunde dira Nafarroan euskararen arautzea, lexikoa eta terminologiaren lanketan edo zabalpenean lanean aritzen direnak. Bi erakunde hauek Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza dira.

Erakunde bakoitzak establezimendu bana dauka Nafarroan eta bere enpleguaren %100 dagokio euskarari.

Euskarari dagokion enplegua zein den ezagutzeko, bi establezimenduekin zuzenean hitz egin da. Horrela, zehaztu daiteke Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak 2,41 enplegu sortu dituztela jardunaldi osoko baliokideak.

2.6 Taula: Euskararen corpusaren lanketa eta zabalpeneko erakunde kopurua eta erreferentziazko enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera- mota	Establezimendu kop.	Enplegua guztira	Euskara koefizientea (enpleguari jarraiki haztatua)	Erreferentziazko enplegua
d. Euskararen corpusa	Euskararen arautze, lexikoa eta terminologiaren lanketa edo zabalpeneko erakundeak	2	2,41	%100	2,41

Iturria: Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza, 2018

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

e) **Hizkuntza teknologiak: hiztegi elektronikoak, hizkuntza prozesadoreak, hizkuntza zuzentzaileak, itzulpen lanetarako softwareak, euskara ikasteko nahiz erabiltzeko aplikazioak, web teknologiak, eta abar**

Azkenik, euskarak Nafarroan sortzen duen enpleguaren estimazioa egin ahal izateko eta lehen talde honen analisiarekin amaitzeko, hizkuntzen teknologien azpisektorea aztertu da. Azpi sektore honetan euskarazko teknologia berriak sortzen dituzten enpresez gain (hiztegi elektronikoak, hizkuntza prozesadoreak, hizkuntza zuzentzaileak, itzulpen lanetarako softwareak, euskara ikasteko nahiz erabiltzeko aplikazioak, web teknologiak, etab.), euskarri grafikoak egiten dituzten enpresak ere aurkitzen dira.

NASTATEko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren arabera, Nafarroan 74 establezimendu aurkitu daitezke talde honetan eta guztira 723 enplegu dagokio atalari.

Egindako inkestaren emaitzen arabera, enpresa hauek egiten duten lan guztiaren %2,9a soilik dagokio euskarari eta, ondorioz, euskararen enplegu estimazioa 21 enplegutuan zenbatu daiteke.

2.7 Taula: Hizkuntzaren trataera eta prozesaketara teknologia berriak eta euskarri grafikoaren establezimenduak eta erreferentziazko enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera- mota	Establezimendu kop.	Enplegua guztira	Euskara koefizienteari buruzko INKESTA (enpleguari jarraiki haztatua Ikei, 2018)	Erreferentziazko enplegua
e. Hizkuntza teknologiak	Hizkuntzaren trataera eta prozesaketara aplikatutako teknologia berriak eta euskarri grafikoak	74	723	2,9	21

Iturria: NASTAT, 2018;

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

f) **Hizkuntzaren industria GUZTIRA**

Ondorengo taulan laburpen moduan ikusi daitekeen bezala, "Hizkuntzaren Industriak" bere osotasunean 228 enplegu sortzen ditu Nafarroan. Sektore-taldea osatzen duten bost azpi-sektoreetatik "Euskararen irakaskuntza" da enplegua sortzeari dagokionez pisu erlatibo altuena duena, eta 182,5 enplegurekin talde honetako euskarazko enpleguaren %80,1 suposatzen du.

Rankingaren bigarren eta hirugarren postuan "Hizkuntzaren teknologiak" eta "Itzulpengintza" aurkitzen dira eta 21 eta 17 enplegurekin talde honetako euskarazko enpleguaren %9,2 eta %7,5 suposatzen dute, hurrenez hurren.

Pisu erlatibo nabarmenki baxuagoarekin, "Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitzak" eta "Euskararen corpusaren lanketa eta zabalpena" aurkitzen dira: 5 enplegu eta 2,4 enplegu suposatzen dute hurrenez hurren, hau da, enplegu guztiaren %2,2 eta %1,1, hurrenez hurren.

2.8 Taula: Hizkuntzaren industriaren erreferentziarako enplegua guztira eta azpi-sektorekako banaketa

Sektorea	Azpi-sektorea	Erreferentziarako enplegua
I. Hizkuntzaren industria	a. Euskararen irakaskuntza	182,5
	b. Itzulpengintza	17
	c. Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza	5
	d. Euskararen corpusaren lanketa eta zabalpena	2,4
	e. Hizkuntza teknologiak	21
	GUZTIRA	227,9

Iturria: Ikek landutako datuak, 2018

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.4.2. Kultura eta hedabideen industria

Analisi kuantitatiboarekin aurrera eginez, euskararen eragin ekonomikoa estimatzeko aztertuko dugun bigarren taldea "Kultura eta hedabideen industria" da. Bigarren talde hau ondoren zerrendatzen diren zazpi azpisektorez osatuta dago:

- a) Liburugintza
- b) Ikus-entzunezkoen industria (musika, zinema eta bideo jokoak)
- c) Kultur sortzaileak
- d) Arte eszenikoak
- e) Bertsolaritza
- f) Hedabideak
- g) Komunikazioa, kultura, euskara eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak

Ondoren azaltzen da kasu bakoitzean euskarak enpleguan duen eragina estimatzeko jarraitutako metodologia.

a) **Liburugintza: argitaletxeak, liburu-dendak eta liburutegi-zerbitzuak**

Liburugintzako sektorea hiru azpisektorez osatuta dago: argitaletxeak, liburu dendak eta liburutegi zerbitzu pribatuak. Sektorea bere osotasunean hartuta, guztira 59,5 enplegu dagozkie euskarari. Estimazioa egiteko ondorengo sistema jarraitu da.

Argitaletxeak

Argitaletxeen azpisektoreari dagokion informazioa eskuratzeko, bi iturri nagusi erabili dira. Lehenik eta behin, DILVEren (*Distribuidor de información del libro español en venta*) bitartez eta ISBN agentziako (*International Standard Book Number*) datuak oinarritzat hartuz, Nafarroan kokatuta dauden argitaletxeen zerrenda osatu da.

Ondoren, argitaletxeen azpisektoreari dagokion euskarazko enpleguaren koefizientea estimatzeko, Euskadiko Editoreen Elkartera jo da eta elkarteak urtero argitaratzen duen *Euskarazko argitalpenei buruzko XII. Txostena* hartu da oinarritzat (azken edizioa 2016rteari dagokio). Bertan, Nafarroan liburuak euskaraz argitaratzen dituzten zenbat argitaletxe dauden jasotzen da. Bestalde, euskarazko argitalpen hauek zenbateko fakturazioa suposatzen dute sektorean eta baita ere zenbateko enplegua sortzen da euskaraz argitalpenei dagokiona.

Guztira, 16 enplegu suposatzen ditu euskarak Nafarroako argitaletxeen azpisektorean.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Liburu-dendak

Liburu denden kasuan, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren arabera (NASTAT 2018) 110 establezimendu daude Nafarroan liburu salmentan jarduten dutenak eta guztira 428 enplegu dituzte. Euskarari dagokion enplegua estimatzeko, euskaraz egiten diren argitalpenen ehunekoa kontuan hartu da. Hots, Nafarroako Estatistika Erakundeak argitaratzen duen Nafarroako Argitaratze Ekoizpenaren Estatistikaren arabera, Nafarroan argitaratu ziren tituluen %8,17a euskaraz argitaratu ziren. Ikeik ondorengo suposizioaren egin du: titulu bat liburu dendetan saldu ahal izateko, aurretik argitaratu behar da eta ondorioz, liburu dendetako euskarazko enplegua estimatzeko erabili den koefizientea euskarazko tituluen berdina da: %8,17.

Ondorioz, liburu denden euskarazko erreferentziazko enplegua 35 enplegutik balioesten da.

Liburutegi-zerbitzu pribatuak

Nafarroako liburutegi zerbitzu pribatuetako euskarazko erreferentziazko euskarazko enplegua estimatzeko bi informazio iturri nagusi erabili dira: Nafarroako Estatistika Erakundea eta Nafarroako Gobernuko Kultura Saila.

Nafarroako Estatistika Erakundeak argitaratutako Nafarroako Liburutegien Estatistikaren arabera, Nafarroan izaera pribatuko 19 liburutegi daude (azken datua 2016 urteari dagokio).

Bestalde, Nafarroako Gobernuko Kultura Sailaren "Navarra, Territorio Creativo" txostenaren datuen arabera, Nafarroako liburutegiak bere osotasunean 258 enplegu dituzte eta 153 liburutegi publikoei dagozkio, ondorioz 105 enplegu liburutegi zerbitzu pribatuei dagozkio. Enplegu honetatik euskarari dagokiona estimatzeko, 2017 urtean zehar Nafarroako liburutegietan eskuratutako funtsa dokumentala berria kontuan hartuta, hau da, 2017. urtean zehar eskuratutako funtsa guztiaren gainean euskarazko argitalpenak suposatutako dutenaren koefiziente bera aplikatuko da (%3,4) eta 3,6 enplegu direla estimatzen da.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

b) *Ikus entzunezkoen industria: musikaren industria, zinemaren industria eta bideo jokoan eta kultura digitalaren industria*

Euskarak eragin garrantzitsua izan dezakeen beste sektore bat ikus entzunezkoen industria da. Bertan, hiru jarduera mota aurkitzen ditugu: musika, zinema eta bideo joko eta kultura digitala. Sektore honetan euskararen erreferentziazko enplegua estimatzeko erabilitako iturriak bi izan dira batik bat eta jarraitutako metodologia sektoreko establezimenduei inkesta.

Guztira, ikus entzunezkoen industrian euskarak 25,15 enplegu suposatzen dituela estimatzen da. Ondoren argitzen da estimazioa nola egin den.

Musika

Musikari dagokionez, lehenik eta behin azaldu musikaren industriaren barruan diskoetxeak, disko-saltokiak eta musika sustatzaile eta programatzaileak hartzen direla kontuan azpisektore honetan eta ez musikariak, sortzaileen azpisektorean daudenak. Hau horrela, eta Nafarroako Estatistika Institutuko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren arabera, Nafarroako musikaren industriak 31 enplegu ditu.

Euskararen erreferentziazko enplegua estimatzeko sektoreko establezimenduei inkesta bat egin zaie eta bertako emaitzetatik ondorioztatu da Nafarroako musikaren industrian egiten den lanaren %2,1a euskarari dagokiola. Hori horrela, ondorengo suposizioa egin da: euskaraz egindako lanen pisu erlatiboa euskarazko enpleguaren pisu erlatiboaren berdina da. Ondorioz, euskararen erreferentziazko enplegua Nafarroako musikaren sektorean 0,65 enplegu dira.

Zinema

Alde batetik, zinema, dokumental, publizitate, telebista saio, irrati saio eta bestelako ekoizleak eta, bestetik, zinema aretoak daude azpisektore honetan. Musikaren atalean gertatzen den bezala, aktoreak taldeak kanpo gelditzen dira eta sortzaileen azpisektorean kontuan hartzen dira. Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako "*Situación de los sectores y actividades culturales y creativas de Navarra*" txosteneko emaitzak oinarritzat hartuta, sektore honetako enplegua 299 dela ondorioztatzen da.

Euskarari dagokion erreferentziazko enplegua estimatzeko, sektoreko establezimenduei egindako inkestan ondorioztatutako pisu erlatiboa aplikatu da eta euskarazko erreferentziazko enplegua 6,3 enplegutik estimatzen dira.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Bideo jokoak eta Kultura digitala

Azpi-sektore honekin amaitzeko, bideo jokoen eta kultura digitalaren jarduerak ditugu. Sektore honetako enplegua 867koa da. Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako "*Situación de los sectores y actividades culturales y creativas de Navarra*" ikerketaren arabera. Datu honetan oinarrituta eta euskararen koefizientea medio, sektoreko euskararen erreferentziazko enplegua 18,2koa da.

c) **Kultur sortzaileak: idazleak, musikariak eta artea eta kulturaren alorreko bestelako ekoizleak**

Kultura osatzen duten industria desberdinak aztertu ondoren, kultur sortzaileen egoera ikuskatuko dugu. Nafarroako Estatistika Institutuko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren arabera, Nafarroan 287 idazle, musikari eta artearen eta kulturaren bestelako sortzailean daude. Esan beharra dago batik bat autonomo bezala erregistratuta daudela atal honetan jasotakoak, eta ez direla kontuan hartzen musikaren industriako edo liburugintzako profesionalak, hau da, sortzaileak bakarrik kontuan hartzen dira sektore honetan.

Nafarroako Kultura Departamentuko datuen arabera, Nafarroan sortzen den kulturaren %15 inguru euskaraz sortzen da. Hau da, Nafarroan idazten diren liburuen, abestien, gidoen, antzeztan diren lanen etab-en %15 inguru euskaraz egiten dira. Errealitate hau enpleguarekin bat etorri daitekeela suposatuz, euskarazko erreferentziazko enplegua ere sektoreko enplegu guztiaren %15 dela suposatuko dugu. Ondorioz, Nafarroako kultur sortzaileen azpi-sektorean euskararen erreferentziazko enplegua 43 dela estimatu daiteke.

d) **Arte eszenikoak: antzerki ekoizleak eta programatzaileak**

296 enplegu batzen dira Nafarroako antzerki eta dantza konpainia eta programatzaileen azpi-sektorean Nafarroako Estatistika Institutuko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren arabera.

Testuinguru honetan, eta Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuaren arabera antzokietan antolatzen diren antzerki eta dantza programazioaren %11 euskaraz direnez, antzerki ekoizleen eta programatzaileen euskarazko erreferentziazko enplegua 32,6 dela estimatu daiteke.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

e) **Bertsolaritza: bertsolaritzaren arloko elkarte eta erakundeak**

Bertsolaritzari dagokionez, Nafarroako Bertsozale Elkarateak 52 bertso eskola ditu Nafarroan: 15 pertsona helduei zuzendutako klaseak ematen dituzte eta 37 ume eta gazteei zuzendutako klaseak. Gainera, lurraldeko 61 ikastetxeetan bertso klaseak ematen ditu Nafarroako Bertsozale elkarateak, zehazki lehen hezkuntzako seigarren mailako 2.410 ikaslek jasotzen dituzte bertso klaseak euren ikastetxeetan.

Zerbitzu hau eskaini ahal izateko, Nafarroako Bertsozale Elkarateak 400.000 euroko aurrekontua eta 17 langile ditu, jardunaldi osoko baliokidean 10 enplegu suposatzen dutenak.

f) **Hedabideak: egunkarien argitalpena, aldizkarien argitalpena, irratiak eta irradi zerbitzu emaileak, telebistak eta telebista zerbitzu emaileak**

Ondoren ikus daitezkeen moduan, bloke honen barruan hedabideen sektorean da euskarak enplegu gehien sortzen dituen taldea. Euskarak hedabideen sektorean suposatzen dituen enpleguak estimatzeko bi informazio iturri erabili dira: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Nastat) eta euskarazko eskaintza edukitzeagatik diru laguntza publikoetan onuradunak izan direnen zerrenda.

Nafarroan euskarazko zerbitzua eskaintzen duten hedabide orok (edozein izanda ere hedabide mota: egunkari, aldizkari, irradi eta telebista) diru laguntza publikoak jasotzen dituztela kontuan izanda, euskarazko hedabide guztien zerrenda eta hauen enplegua jasota dagoela esan daiteke. Errealitatea hau izanik, eta hedabide hauek eskaintzen duten euskarazko zerbitzua eskaintzen duen zerbitzu guztiaren gainean suposatzen duen pisu erlatiboa jakinik, hedabideen sektorean euskarazko enplegua 190,8 enplegutuan estimatzen da.

g) **Kultura, aisialdi, euskara eta gizarte gaietako bestelako elkarateak**

Azkenik, eta kultura eta hedabideen industriako azpisektoreekin amaitzeko, "Kultura, aisialdi, euskara eta gizarte gaietako bestelako elkarateak" ditugu. Azpisektore honek suposatzen duen euskara-enplegua estimatzeko bi informazio iturri erabili dira: alde batetik, Nafarroako Estatistika Institutuko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Nastat) eta bestetik, Nafarroako Gobernuo Kultura Departamentua, zehazki SICNA erreminta.

Gauzak horrela, Nafarroako "Kultura, aisialdi, euskara eta gizarte gaietako bestelako elkarateak" bere osotasunean 759 enplegu sortzen dituzte. Euskarazko enpleguari dagokion koefizientea estimatzeko musika, dantza eta kirolko elkarateetan euskarari dagokion koefizientea kontuan hartutako ponderazioa egin da. Ondorioz, euskarari dagokion enplegu koefizientea "Kultura, aisialdi, euskara eta gizarte gaietako bestelako elkarateen" kasuan %9,52koa da eta enplegua 72,25 enplegukoa.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

h) *Kultura eta hedabideen industria laburpena*

2.9 Taula: Kultura eta hedabideetako industriaren euskara koefizientea, erreferentziako enplegua eta iturriak, azpi-sektorekako banaketa

Sektoreak	Azpi sektoreak	Euskara koefizientea	Euskarazko enplegua	Iturriak
Liburugintza	Argitaletxeak	--	16	Euskadiko Editoreen Elkarte, DILVE - Distribuidor información del libro español en venta
	Liburu dendak	%8,17	35	Nafarroako Estatistika Institutua
	Liburutegi zerbitzu pribatuak	%3,4	3,6	Nafarroako Estatistika Institutua, Memoria Navarra Territorio Creativo
Ikus-entzunezkoak	Musika	%2,1	0,65	Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Nastat)
	Zinema		6,3	Nafarroako Gobernu "Situación de los sectores y actividades culturales y creativas de Navarra" ikerketa
	Bideo jokoak eta kultura digitala		18,2	Nafarroako Gobernu "Situación de los sectores y actividades culturales y creativas de Navarra" ikerketa
Kultur sortzaileak	Idazleak, musikariak, artea eta kulturako ekoizleak	%15	43	Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Nastat)
Arte eszenikoak	Antzerki eta dantza konpainiak eta programatzaileak	%11	32,6	Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Nastat)
Bertsolaritza	Nafarroako Bertsozale Elkarte	%100	10	Nafarroako Bertsozale Elkarte
Hedabideak	Egunkariak	--	190,8	Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Nastat) Diru laguntza publikoak Ikeik landutako datuak inkestako emaitzetan oinarrituta
	Aldizkariak			
	Irratiak			
	Telebistak			
Arlo sozialeko erakundeak	Komunikazioa, kultura, euskara eta gizarte arloko bestelako elkarteak	%9,52	72,25	Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Nastat) Diru laguntza publikoak
Komunikazio eta publizitate zerbitzuak	Komunikazio eta publizitate zerbitzuak	%27,7	110,5	Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Nastat)
GUZTIRA		--	538,9	--

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

i) **Kultura eta hedabideen industria GUZTIRA**

Kultura eta hedabideen sektorean gertatzen dena modu laburrean azaltzeko ondorengo taula aurkezten da. Bertan ikusi daitekeen moduan, hedabideak dira euskarazko enplegua sortzeari dagokionez talde honetako "garrantzitsuenak". Zehazki, hedabideen industriak talde honetako euskarazko enplegu guztiaren %44,5a suposatzen duela estimatzen da.

Bigarren multzo batean eta talde honetako enpleguaren %10-%20 inguruarekin "Arlo sozialeko erakundeak", "Liburugintza" eta "Kultur sortzaileak" ditugu. Hots, "Arlo sozialeko erakundeak" euskarazko enpleguaren %16,9 suposatzen dute, "Liburugintzak" %12,7 eta "Kultur sortzaileak" %10.

Azkenik, eta pisu erlatibo baxuagoarekin, "Arte eszenikoak", "Ikus-entzunezkoak" eta "Bertsolaritza" aurkitzen dira: euskarazko enpleguaren %7,6; %5,9 eta %2,3 suposatzen dute hurrenez hurren.

2.10 Taula: **Kultura eta hedabideetako industriaren erreferentziako enplegua guztira eta azpi-sektorekako banaketa**

	Azpi-sektorea	Erreferentziako enplegua
Kultura eta hedabideen industria	a) Liburugintza	54,6
	b) Ikus-entzunezkoen industria	25,2
	c) Kultur sortzaileak	43
	d) Arte eszenikoak	32,6
	e) Bertsolaritza	10
	f) Hedabideak	190,8
	g) Kultura, aisialdia, euskara eta gizarte arloko bestelako elkarteak	72,3
	h) Komunikazio eta publizitate zerbitzuak	110,5
	GUZTIRA	538,9

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.4.3. Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak

a) *Haur-Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza*

i) *Euskara koefizienteak*

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eskainitako informazioa erabili da hezkuntzari dagozkion euskara koefizienteak kalkulatzeko. Haur- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako irakats ordu guztien eta euskarazkoen datuak 2018-2019 ikasturteari dagozkie. Datu horien arabera irakats eredua (A, B, D, G eredua) eta hezkuntza-etaparen arabera (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza-DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa) kalkulaturako euskara koefizienteak ondokoak dira:

2.11 Taula: Irakaskuntza etapa eta eredu bakoitzean aplikatu beharreko euskara koefizienteen zehaztapena

Eredua	Argibideak	Aplikaturako euskara koefizientea				
		Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa	Lanbide Heziketa
A	Euskarazko irakats orduak, euskara irakasgaienak bakarrik	14,3	10,7	10,0	13,3	0
B	Euskarazko irakats orduak	64,3	64,3	60,0	0	0
D	Euskarazko irakats orduak (ordu guztiak gaztelarakoak edo beste hizkuntzakoak izan ezik)	71,1	73,9	89,7	90,9	95,9
G	Euskarazko irakats ordurik ez	0	0	0	0	0

A eredua: gaztelaniaz ematen da irakaskuntza eta euskara irakasgai bezala izaten da, maila, etapa eta modalitate guztietan.

B eredua: zafi batean euskaraz ematen da irakaskuntza, gaztelania irakasgai bezala izaten da eta irakasgai batean edo gehiagotan ere irakas-hizkuntza gaztelania da, ikasketen, zikloaren edo etaparen arabera.

D eredua: irakaskuntza osorik euskaraz ematen da, gaztelaniako irakasgaia izan ezik.

G eredua: eredu honetan ez da euskara ematen, ez irakasgai bezala ezta irakas-hizkuntza bezala ere. Hizkuntza eremuaren arabera ezartzen da

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua, 2018-2019 ikasturtea. IKEIk landutako datuak, 2018

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Ikusi daiteken moduan A ereduan aplikatutako euskara koefizienteak ondokoak dira: %14,3 Haur Hezkuntzan, %10,7 Lehen Hezkuntzan, %10 DBHn, %13,3 Batxilergoan eta %0 Lanbide Heziketan.

B ereduan, berriz, ondoko koefiziente hauek aplikatuko dira: %64,3 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, %60 DBHn eta %0 Batxilergoan eta Lanbide Heziketan.

D ereduan, %71,1 Haur Hezkuntzan, %73,9 Lehen Hezkuntzan, %89,7 DBHn, %90,9 Batxilergoan eta %95,9 Lanbide Heziketan.

ii) Irakasleak

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak eskaintako datuei esker jakin dugu eredu bakoitzean lan egiten duten irakasle kopurua bere osotasunean eta Irakasleei dagokion zenbatekoa errepikapenak kontuan hartu gabe.

Haur eta Lehen Hezkuntza 4.994 irakasle daude guztira; kopuru horretan bi etapetan lan egiten duten irakasleak behin bakarrik daude kontabilizatuak eta ez daude errepikatuak. Irakasleak hezkuntza ereduakoko banaketaren proportzio berak erabiliz estimatu dira. Bigarren Hezkuntzako irakasleak guztira 4.723 dira, errepikapenik gabe.

2.12 Taula: Irakasleak. 2018-2019 ikasturtea

Irakasleak	
Haur eta Lehen Hezkuntza	4.994
Bigarren Hezkuntza (DBH, Batx,LH)	4.723
Guztira (errepikapenik gabe)	9.591

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua, 2018-2019 ikasturtea. IKEIk landutako datuak, 2018

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Irakats eredu eta hezkuntza etapa bakoitzerako estimatutako irakasleen kopuru zehatzak ondoren azaltzen dira:

2.13 Taula: Irakaskuntza etapa eta eredu bakoitzeko irakasle kopuruaren estimazioa, ikasle kopuruaren arabera egina

Eredua	Etapa	Ikasleak		Irakasleak	
		Kop.	%	Kop.	%
A	Haur eta Lehen Hezkuntza	12.277	81,8	2.218	55,3
	DBH	2.382	15,9	1.727	43,0
	Batxilergoa	345	2,3	706	17,6
	Lanbide Heziketa	0	0,0	0	0,0
	Guztira	15.004	100,0	4.014	100,0
B	Haur eta Lehen Hezkuntza	158	91,9	33	44,6
	DBH	14	8,1	41	55,4
	Batxilergoa	0	0,0	0	0,0
	Lanbide Heziketa	0	0,0	0	0,0
	Guztira	172	100,0	74	100,0
D	Haur eta Lehen Hezkuntza	16.694	63,0	1.555	58,0
	DBH	7.004	26,4	1.034	38,5
	Batxilergoa	2.253	8,5	473	17,6
	Lanbide Heziketa	551	2,1	96	3,6
	Guztira	26.502	100,0	2.683	100,0
G	Haur eta Lehen Hezkuntza	32.691	49,4	3.236	47,8
	DBH	18.202	27,5	2.380	35,2
	Batxilergoa	6.177	9,3	1.199	17,7
	Lanbide Heziketa	9.064	13,7	1.106	16,4
	Guztira	66.134	100,0	6.763	100,0
GUZTIRA	Haur eta Lehen Hezkuntza	61.820	57,3	4.994	52,1
	DBH	27.602	25,6	3.394	35,4
	Batxilergoa	8.775	8,1	1.703	17,8
	Lanbide Heziketa	9.615	8,9	1.186	12,4
	Guztira	107.812	100,0	9.591	100,0

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua. Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa, 2018-2019; IKEIk landutako datuak, 2018

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.14 Taula: Euskarazko irakasgaietako irakasle kopuruaren estimazioa, etapa eta irakats ereduaren arabera euskara koefizientea aplikatuta

Eredua	Etapa	Etapa eta eredu bakoitzeko euskarazko irakasgaien irakasleen kopuruaren estimazioa
A	Haur eta Lehen Hezkuntza	220
	Bigarren hezkuntza	87
	Guztira	307
B	Haur eta Lehen Hezkuntza	21
	Bigarren Hezkuntza (DBH, Batx. LH)	25
	Guztira	46
D	Haur eta Lehen Hezkuntza	1.555
	Bigarren Hezkuntza (DBH, Batx. LH)	1.173
	Guztira	2.728
GUZTIRA	Haur eta Lehen Hezkuntza	1.796
	Bigarren Hezkuntza (DBH, Batx. LH)DBH	1.285
	Guztira	3.081

Iturria: IKEIK landutako datuak, 2018

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

iii) Haur eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako euskara-enplegua

Nafarroako Hezkuntzaren sektorean euskarari dagokion enpleguaren estimazioa egiteko irakasleaz gain, irakasleak ez diren langileak euskarari dagokionez suposatzen dutena kontuan hartu behar da. Zentzu honetan, garrantzitsua da aipatzea Nafarroako hezkuntzan irakasleak ez diren langileen inguruko datuak eskuratzea ez dela posible izan. Hori dela eta, Euskal Autonomi Erkidegoan ematen den irakasle-irakasle ez den langilea ratio bera aplikatzea erabaki da, bi erkidegoetako hezkuntza sistemen funtzionamendua antzekoa izango delakoan eta ratio horretan desberdintasun handirik egongo ez delakoan.

Horrela, eta Euskal Autonomi Erkidegoan irakasleak ez diren langileak irakasleen %45,68 direla Nafarroan ere mantenduko dela suposatu da eta guztira, Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan irakasleak ez diren langileen euskarazko enplegua 1.407koa dela estimatu da.

Aurretik aipatu den moduan, hezkuntza maila hauetan irakasleen euskarazko enplegua 3.081 enplegutik estimatu denez, guztira 4.488 enplegu suposatzen ditu euskarak hezkuntza maila hauetan.

2.15 Taula: Haur eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako erreferentziazko euskara-enplegua

Lurraldea	Erreferentziazko euskara-enpleguaren estimazioa
Irakasleak	3.081
Ez irakasleak*	1.407
GUZTIRA	4.488

*Pertsonal irakaslearen irakasleekiko koefizientea: %45,68 aplikatu da.

Iturria: IKEIk landutako datuak, 2018

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

b) Unibertsitateko Hezkuntza

Unibertsitateko mailetan euskarazko kredituei lotutako enplegua kalkulatzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Unibertsitateak emandako datuak izan dira informazio iturri.

2018-2019 ikasturteko gradu eta gradu-ondoko kredituetatik abiatuta, euskarazko kredituek guztizkoarekiko duten pisu erlatiboaren emaitza da langileei, edo zehatzago jardunaldi osoko enpleguei aplikaturiko koefizientea euskara- enpleguaren estimazioa kalkulatu ahal izateko.

i) Nafarroako Unibertsitate Publikoa

NUPen 2017-2018 ikasturtean guztira graduetan eskainitako kredituak 7.620¹ izanik, 1.635 dira euskaraz ematen direnak; proportzio hori erabilita, %21,5 da estimatzen den euskara koefizientea. Koefiziente honek gora egin du azken urteetan (%19,8koa zen 2014-2015 ikasturtean).

2.16 Taula: Nafarroako Unibertsitate Publikoko graduetako kreditu eskaintza hizkuntzaren arabera eta estimatutako euskara koefizientea

Lurraldea	Graduetako kredituak			Euskara koefizientea (%)
	Gaztelaniazko kredituak	Euskarazko kredituak	Guztirako kredituak	
GUZTIRA	4.410	1.635	7.620	21,5

Iturria: Hizkuntza Plangintzarako Arloko Zuzendaritza, Irakaskuntza Antolatzeako Errektoreordetza

¹ Ingeleseko kreditu kopurua 1.575 da.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.17 Taula: Nafarroako Unibertsitate Publikoko graduetakoa kreditu eskaintza hizkuntza eta zentroaren arabera

ZENTROA	2017-2018 ikasturtea				
	Kredituak guztira	Eskaintza ingelesez	Ingeleseko %	Euskarazko eskaintza	Euskarako %
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	1.536	588	38,3%	168	10,9%
Telekomunikazio eta Industria Ingeniarren Goi Mailako Eskola Teknikoa	2.085	372	17,8%	345	16,5%
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea	1.674	270	16,1%	876	52,3%
Zientzia Juridikoen Fakultatea	636	63	9,9%	54	8,5%
Osasun Zientzien Fakultatea	513	0	0,0%	6	1,2%
Nekazaritza Ingeniarren Goi Mailako Eskola Teknikoa	810	234	28,9%	156	19,3%
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea / Zientzia Juridikoen Fakultatea	366	48	13,1%	30	8,2%
GUZTIRA	7.620	1.575	20,7%	1.635	21,5%

Iturria: Hizkuntza Plangintzarako Arloko Zuzendaritza, Irakaskuntza Antolatzeko Errektoreordetza

Gradu-ondoei dagokionez, Bigarren Hezkuntzako Irakasletzako Masterrean 42 kreditu eskaintzen dira euskaraz 2017-2018 ikasturtean. Gainerako gradu-ondoetan ez dago euskarazko eskaintzarik. NUPen Gradu-ondo mailan 2.112 kreditu eskaintzen dira guztira, beraz, euskara koefizientea %2 da.

2.18 Taula: Nafarroako Unibertsitate Publikoko gradu-ondo eta masterretako kreditu eskaintza hizkuntzaren arabera eta estimatutako euskara koefizientea

	Gradu-ondo eta masterretako kredituak		Euskara koefizientea (%)
	Euskarazko kredituak	Guztirako kredituak	
Nafarroako Unibertsitate Publikoa guztira	42	2.112	2,0

Iturria: NUP, 2017-2018 ikasturtea. IKEIk landutako datuak.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.19 Taula: Nafarroako Unibertsitate Publikoko gradu eta gradu-ondoko kreditu eskaintza zentroaren arabera

ZENTROA	Kredituak guztira	Euskarazko eskaintza
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	180	0
Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa	762	0
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea*	300	42
Zientzia Juridikoen Fakultatea	210	0
Osasun Zientzien Fakultatea	240	0
Nekazaritza Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa	420	0
GUZTIRA	2.112	42

*: kreditu hauek Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan kokatzen dira. Titulazio honek guztira 60 kreditu ditu eta horietatik 42 dira euskaraz eskaintzen direnak.

Iturria: NUP, 2017-2018 ikasturtea. IKEIk landutako datuak.

Aurretik aipatutako datuak kontuan izanda, Nafarroak Unibertsitate Publikoan gradu eta gradu-ondoko eskaintza osoa kontuan izanik, lortutako batez besteko euskara koefizientea %17,23 da.

Bestalde, Nafarroako Unibertsitate Publikoan 1.188 pertsonak egiten dute lan irakasle eta ikertzaile moduan. Hauetatik 434 lanaldi murriztua dute eta jardunaldi erdia egiten dute lan, ondorioz, 971 enplegu dira jardunaldi osoko baliokidean.

Administrazio eta Zerbitzuetako langileak, berriz, 485 dira eta hauetatik 47 langile daude lanaldi murrizketarekin (%50eko lanaldi murrizketa). Ondorioz, jardunaldi osoko baliokidean 462 enplegu estimatzen dira.

Amaitzeko, enplegu honi Nafarroak Unibertsitate Publikoan gradu eta gradu-ondoko eskaintzako euskara koefizientea aplikatuz (%17,23), 247 euskarazko enplegu estimatzen dira Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.20 Taula: Nafarroako Unibertsitate Publikoko guztirako enplegua (lanaldi osora) eta estimatutako euskara-enplegua

Lurraldea	Enplegua (lanaldi osotan)	Batez besteko euskara koefizientea (%)	Euskara enplegua
Irakasle eta ikertzaileak	971*		
Administrazio orokorra	462**		
GUZTIRA	1.433	17,23	247

*Irakasle eta Ikertzaileak 1.188 dira. Hauetatik 434k lanaldi murriztua dute. %50aren murrizketa estimatu da bataz beste.

**Administrazio eta Zerbitzuetako langileak NUPen 485 dira. Hauetatik 47 langile daude lanaldi murrizketarekin. %50aren murrizketa estimatu da bataz bestekoz.

Iturria: NUP, 2017-2018 ikasturtea. IKEIk landutako datuak.

ii) Nafarroako Unibertsitatea, Iruñeko kanpusa

Nafarroako Unibertsitatean, Iruñeko kanpusean, guztira graduatan eskainitako kredituak 9.476 dira. Hauetatik gaztelerez eskaintzen direnak 6.987 dira baina euskaraz ez dago inongo eskaintzarik 2018-2019 ikasturtean. Berdin gertatzen da gradu-ondokoen eskaintzarekin, 3.323 kreditu eskaintzen dira Iruñeko kanpusean baina ez dago euskarazko eskaintzarik 2018-2019 ikasturtean.

2.21 Taula: Universidad de Navarrako graduatuko kreditu eskaintza hizkuntzaren arabera eta estimatutako euskara koefizientea

Lurraldea	Gaztelaniazko kredituak	Euskarazko kredituak	Guztirako kredituak*	Euskara koefizientea (%)
Graduatuko kreditu eskaintza	6.987	0	9.476	0
Gradu-ondoko kreditu eskaintza	--	0	3.323	0

*: Ingelesez eskainitako kredituak barne.

Iturria: Nafarroako Unibertsitatea, Hizkuntza Plangintzarako Arloko Zuzendaritza, Irakaskuntza Antolatzeko Errektoreordetza

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Ondorengo taulan, laburpen moduan ikusi daitekeen moduan, Nafarroan unibertsitate alorrean euskarari inputatu beharreko enplegua 247koa da.

2.22 Taula: Unibertsitateetako euskara enplegua guztira

	Euskarazko enplegua
Nafarroako Unibertsitate Publikoa guztira	247
Nafarroako Unibertsitatea	0
GUZTIRA	247

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitatea. . IKEIk landutako datuak

c) Hezkuntza alorreko bestelako elkarte eta erakundeak

Hezkuntzarekin harremana duten baina hezkuntza arautuaren barruan (ikastetxeak eta unibertsitatea) aurkitzen ez ditugun elkarten euskarazko enplegua estimatzeko lehen erreferentzia Nafarroako Estatistika Institutuko Jarduera Ekonomikoaren Gidazerrendan bestelako hezkuntza arloaren epigrafeetan kokatuak dauden elkarteak daude azpi-multzo honetan. Zehazki, hezkuntza erakundeak, guraso erakundeak, mediatekak, ikastola elkarteak, kulturari loturiko hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituzten beste hainbat elkarte eta antzeko erakundeak daude multzo honetan.

Guztira, Nastaten Gidazerrendan bestelako hezkuntza arloko epigrafeetan erregistraturiko establezimenduak 406 enplegu dituzte. Kasu honetan, euskarazko enplegua estimatzeko erakunde sozial, kultural eta kirol erakundeetan aplikatutako koefiziente berdina aplikatu da. Ondorioz, hezkuntza alorreko bestelako erakundeen euskarazko enplegua 38,7 enplegutuan estimatzen da.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

d) Hezkuntza GUZTIRA

Hezkuntzako sektorearekin amaitzeko, eta laborpen moduan sektore hau osatzen duten hiru azpi-sektoreetan euskararen errealitatearen irudi bat azaltzeko helburuarekin ondorengo taula eskaintzen da. Nabarmena da hezkuntzaren sektorean, euskarari dagokionez, Haur- Lehen- eta Bigarren Hezkuntzak duten pisua: Nafarroako hezkuntza osoak sortzen duen euskarazko enpleguaren %94 Haur- Lehen- eta Bigarren Hezkuntzari dagokiola estimatzen da. Unibertsitate Hezkuntzak (%5,2) eta, bereziki, Hezkuntza alorreko bestelako erakundeak (%0,8) sortzen duten euskara enplegua oso baxua da.

2.23 Taula: Hezkuntzan erreferentziazko enplegua

	Azpi-sektorea	Erreferentziazko enplegua
Hezkuntza	a) Haur eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren hezkuntza	4.488
	b) Unibertsitateko Hezkuntza	247
	c) Hezkuntza alorreko bestelako erakundeak	38,7
	GUZTIRA	4.773,7

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.4.4. Toki administrazioak

Nafarroan euskarak sortzen duen enpleguaren estimazioarekin amaitzeko, Administrazio Publikoan euskarak suposatzen duen enpleguaren estimazioari ekingo diogu. Aipatu behar da euskarari dagokion informazioa eskuratzea bereziki zaila izan dela atal honetako informazioari dagokionez, euskarari dagokionez informazio gehiegi ez dagoelako jasota Administrazio Publikoan.

Lehenik eta behin toki administrazioetako Euskara Zerbitzuen enplegua aztertuko da. Ondorengo taulan adierazten dira euskara zerbitzuen aurrekontua, diru laguntzak eta hitzarmenak eta enplegua. Zehazki, bi ataletan banatzen da Toki administrazioen euskara zerbitzua, alde batetik udalen eta mankomunitateen euskara zerbitzuak eta, bestetik, Euskarabidea eskaintzen duen zerbitzua.

2.24 Taula:: Toki Administrazioetako euskara arloetako erreferentziazko enplegua

		Aurrekontu osoa	Diru laguntza eta hitzarmenak	Euskarazko enplegua
Toki Administrazioa	Toki Administrazioa -udalak eta mankomunitateak- euskara programa*	3.923.510	1.431.951	44
	Euskarabidea	6.224.644	2.450.530	47
	GUZTIRA	10.148.154	3.882.481	91

Iturria: Herri Administrazioetako Zuzendaritza eta Euskarabidea


* Euskara zerbitzuei dagokion enplegua 38 lanpostukoa da jardunaldi osoko baliokidean

Zentzu honetan, Nafarroako toki administrazioetako euskara zerbitzuei edo euskara programei lotutako enplegu zuzena 44 enplegukoa da jardunaldi osoko baliokidean. Zehazki, Nafarroako 32 udalek eta 4 mankomunitatek dute Euskara Zerbitzua eta guztien artean 38 enplegu suposatzen dituzte jardunaldi osoko baliokidean. Gainera, Euskara zerbitzua ez duten baina euskarak eragina duen beste udal edo zerbitzuak badaude, kasu honetan Toki Administrazioetako Zuzendaritzatik eskainitako informazioaren arabera, 6 enplegu daude jardunaldi osoko baliokidean euskarari dagozkionak. Guztira, 44 enplegu suposatzen dute Toki Administrazioetako eta euskara programako euskara enplegua.

Ondorengo mapan ikusi daitezke Nafarroan euskara zerbitzua duten 32 udalen banaketa lurraldean zehar

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.1 Mapa Euskara zerbitzuak eskualdeka



Aipatutako 32 udalez gain, ondorengo 4 mankomunitatek dute euskara zerbitzua:

- Bortziritako euskara Mankomunitatea
- Irantzuko Mankomunitatea
- Malerrekako Mankomunitatea
- Sakanako Mankomunitatea

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Bestalde, eta Kultura Departamentuari dagokionez, hiru atal nagusitan banatu daiteke: toki administrazioetako kultura departamentuak, Nafarroako Gobernuo Kultura Departamentua eta Baluarte Fundazioa. Guztira 69 enplegu suposatzen ditu euskarak jardunaldi osoko baliokidean.

2.25 Taula: Kultura Departamentuetako euskarari dagokion erreferentziako enplegua

		Aurrekontu osoa	Diru laguntza eta hitzarmenak	Enplegua	Euskarazko enplegua
Kultura	Toki Administrazioa: Kultura	53.669.611	7.623.339	257	39
	Nafarroako Gobernuo Kultura Departamentua	48.149.915	11.914.111	186	28
	Baluarte	--	--	17	3
	GUZTIRA	101.819.526	19.537.450	460	69

Iturria: Nafarroako Gobernuo Kultura Departamentua

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.5. Euskararen datu ekonomikoak: enplegua eta balio erantsi gordina

Euskarak Nafarroan sortzen duen enplegu zuzena estimatu ondoren, bere balio ekonomikoa estimatu ahal da. Hau da, euskararen sektorea osatzen duten jarduera adar bakoitzak duen balio ekonomikoa ezagutu ahal da eta ratio ekonomikoak erabiliz euskara-sektorearen magnitude makroekonomikoak kuantifikatu dira.

Nafarroako Estatistika Institutuak urtero argitaratzen duen Zerbitzuen inkestak industria, zerbitzu- eta merkataritzako jarduera ekonomikoen Nafarroako datu ekonomikoak eskaintzen dituzte, zehazki, Nafarroako zerbitzuen makromagnitudeak. Euskarak Nafarroan duen balio ekonomikoa estimatu ahal izateko jarduera bakoitzaren ondorengo datu ekonomikoetatik abiatu gara: enplegua, soldatapekoen ordainketa (soldatak eta gizarte kotizazioak barne) eta Balio Erantsi Gordina.

Ondorengo taulan, Nafarroako Estatistika Institutuak eskainitako Zerbitzuen inkestako datuak azaltzen dira. Ikus daitekeen moduan, azpisektore guztien informazioa ez dago eskuragarri (batik bat, datuen babesa dela eta). Informazio hori oinarritzat hartuta, euskarak Nafarroan duen balio ekonomikoa estimatu da. Aipatu behar da, informazioa eskuragarri ez zegoen kasuetan, sektore horrek Euskal Autonomia Erkidegoen duen Balio erantsi Gordina enpleguarekiko ratio erreferentzia moduan erabili dela.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.26 Taula: Zerbitzuen inkestako datuak

JESN*	Landunak	Soldatapekoak	Soldaten ordainketak	Soldatak gordinak	Negozio zifraren zenbateko garbia	Produktzioa oinarritzko prezioetan	Balio Erantsi Gordina oinarritzko prezioetan	Soldatapeko pertsonako soldaten ordainketa	Negozio zifraren zenbateko garbia landun bakoitzeko	Balio Erantsi Gordina landun bakoitzeko
1812, 1820	905	826	29.487	23.322	131.750	131.962	45.878	35,679	145,523	50,674
4741, 4761, 4763	491	407	8.876	7.046	71.506	20.710	13.314	21,825	145,649	27,119
5811, 5813, 5814, 5819, 5821	758	690	29.610	23.492	81.323	78.684	32.141	42,917	107,226	42,378
5912, 5914, 5915, 5916, 5920	227	160	3.480	2.751	16.071	16.100	6.217	21,719	70,822	27,395
6010, 6020	174	170	7.392	5.744	6.594	8.764	4.806	43,505	37,895	27,622
6312, 6391, 6399	98	80	2.691	2.121	3.386	3.366	2.317	33,524	34,667	23,722
7021, 7022	761	575	23.804	19.542	50.281	56.306	37.944	41,396	66,094	49,877
7220	15	6	94	70	416	416	214	16,382	27,612	14,190
7311	644	381	7.476	5.992	32.341	33.830	15.445	19,644	50,231	23,988
7430, 7490	588	407	13.705	10.696	28.100	28.100	19.368	33,696	47,795	32,942
8532, 8543, 8544, 8551, 8552, 8559	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
9001, 9002, 9003, 9004, 9105, 9106	1.148	618	16.626	13.352	45.779	57.734	19.820	26,913	39,861	17,258
Jarduera guztiak	5.809	4.319	143.242	114.127	467.546	435.971	197.463	33,163	80,481	33,990
Nafarroako Zerbitzuen Sektorea guztiara	104.394	79.040	2.196.361	1.738.497	13.944.228	7.194.606	3.927.221	27,788	133,572	37,619

*: A.1 eranskina ikusi.

Milaka euro

Iturria: Ikeik landutako datuak, 2018

Esan bezala, datu makroekonomikoak oinarritzat hartuta, euskararen sektorea osatzen duten jarduera ekonomikoen enplegua eta Balio Erantsi Gordina estimatu da.

Enpleguari dagokionez, ondorengo taulan ikus daitekeen moduan, Euskarak Nafarroan 5.700,5 enplegu sortzen dituela estimatzen da. Sektoreka nabarmena da hezkuntzaren eragina, enplegu guztiaren %83,7a bereganatzen duena (4.774 enplegu), pisu erlatibo askoz baxuagoarekin kultura eta hedabideen industria (%9,5; 539 enplegu), hizkuntzaren industria (%4; 227 enplegu) eta Administrazio Publikoa (%2,8; 160 enplegu).

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Bestalde, eta Balio Erantsi Gordinari dagokionez, Euskararen Industriak 236,9 milioi euro sortzen dituela estimatzen da. Enpleguarekin gertatzen den moduan, hezkuntzaren sektorea da BEGri ekarpen altuena egiten diona, enpleguarena baina zertxobait baxuagoa bada ere (%83,6). Egitura berdina mantenduz, Kultura eta hedabideen industria bigarren postuan kokatzen da (%7,4), Toki administrazioa (%5,2) eta Hizkuntzaren industria (%3,8) jarraitzen dutelarik.

2.27 Taula: Euskararen Industriako jarduera-sektoreen datu ekonomikoak

Azpi-sektorea	Euskarari loturiko jardueraren datu ekonomikoak	
	Enplegua	Balio Erantsi Gordina (mila €)
I.1- Hizkuntzaren Industria	226,9	9.101,7
I.2- Kultura eta hedabideen industria	538,9	17.521,9
I.3- Hezkuntza	4.773,7	197.940,6
<i>Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza</i>	4.488	186.094,1
<i>Unibertsitate Hezkuntza</i>	247	10.241,8
<i>Hezkuntza alorreko bestelako euskara erakundeak</i>	38,7	1.604,68
I.4- Toki Administrazioa	160	12.302,1
<i>Euskara: euskara zerbitzuak eta Euskarabidea</i>	91	6.563,2
<i>Kultura</i>	69	5.738,9
GUZTIRA	5.700,5	236.866,3

Iturria: Zerbitzuen Inkesta (Nastat). Ikeik landuta

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.28 Taula: Administrazio publikoaren azpi-sektoreetako datu ekonomikoak

Azpi-sektorea	Guztirako aurrekontuak (mila €) eta enplegua				Euskarari loturiko jardueraren datu ekonomikoak	
	Aurrekontua	Personal gastuak (I. kap.)	Diru-laguntza eta hitzarmenak (IV. eta VII. kap.)	Enplegua	Enplegua	Balio Erantsi Gordina (mila €)
IV.1.- Euskara zerbitzuak eta Euskarabidea	10.148.154	4.164.846	3.882.481	91	91	6.563,2
IV.2.- Kultura	101.819.526	7.905.247	19.537.450	460	69	5.738,9
GUZTIRA	111.967.680	12.070.093	23.419.931	551	160	12.302

Iturria: Zerbitzuen Inkesta (Nastat). Ikeik landuta

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.6. Euskararen pisua Nafarroako ekonomian: eragin zuzena, zeharkakoa eta induzitua

2.29 Taula: Input-Output taulako jarduera-adarrak, sektore-ekonomikoei jarraiki

Sektore ekonomikoa	Input-Output tauletako jarduera-adarrak
I. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	01. Nekazaritza, abeltzaintza eta ehiza 02. Basogintza, baso ustiaketa, arrantza eta akuikultura
II. Erauzte industriak	03. Erauzteko industriak 04. Elikagaien industriak 05. Edarien eta tabakoaren ekoizpena 06. Ehungintzaren industria 07. Jantzigintza 08. Larruaren eta oinetakoen industria 09. Zuraren eta kortxoaren industria 10. Paperaren industria
III. Manufaktura industriak	11. Arte grafiko eta erreproduzioak
	12. Industria kimikoa
	13. Farmazia-ekoizkinak
	14. Kautxu eta plastikozko produktuak
	15. Beste produktu mineralen ekoizpena
	16. Metalurgia, burdinazko produktuen ekoizpena
	17. Metalezko produktuen ekoizpena
	18. Produktu informatiko eta elektronikoen ekoizpena
	19. Material eta tresneria elektrikoen ekoizpena
	20. Makineria, orokorrean
	21. Motordun ibilgailuak egitea
	22. Bestelako garraio-materiala
	23. Altzarigintza
	24. Bestelako manufaktura industriak
	25. Makineriaren konponketa eta instalazioa
	26. Gasa, lurina eta aire girotua
	27. Ur hornidura eta haraztea
28. Hondakinen saneamendua eta kudeaketa	
IV. Energia, gasa eta ur hornidura	29. Eraikuntza
V. Eraikuntza	30. Ibilgailuen salmenta eta konponketa 31. Handizkako merkataritza eta merkataritza-bitartekariak
VI. Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	32. Txikizkako merkataritza
	33. Garraioak
	34. Biltzeiratzeta eta garraioarekin uztarturiko jarduerak
	35. Posta zerbitzuak
	36. Alojamentu zerbitzuak
	37. Janari eta elikagaien zerbitzuak

Sektore ekonomikoa	Input-Output tauletako jarduera-adarrak
VII. Informazio eta komunikazio jarduerak	38. Argitalpenak
	39. Ekoizpen zinematografikoko jarduerak
	40. Telekomunikazioak
VIII. Finantza zerbitzuak eta higiezin jarduerak	41. Programazioa, aholkularitza eta jarduerak
	42. Finantza zerbitzuak, aseguruak eta funtsak salbu
	43. Aseguruak eta pentsio-funtsak
	44. Finantza-laguntzaile jarduerak
	45. Jarduerak higiezinekin
IX. Jarduera profesionalak	46. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak
	47. Arkitektura eta ingeniariatzako zerbitzuak
	48. Ikerketa eta Garapena
X. Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak	49. Publizitatea eta merkatu azterlanak
	50. Beste jarduera profesionalak
	51. Alokairu jarduerak
XI. Toki administrazioa	52. Enpleguarekin uztartutako jarduerak
	53. Bidai-agentziak
XII. Hezkuntza	54. Segurtasun eta ikerketa jarduerak
	55. Administrazio publikoa eta defentsa; segurtasuna
XIII. Osasun eta gizarte zerbitzuak	56. Hezkuntza
	57. Hezkuntza ez merkatukoa
XIV. Gizarte zerbitzuak	58. Osasun jarduerak
	59. Osasun jarduerak ez merkatukoak
XV. Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak	60. Sorospena egoitzen establezimenduetan
	61. Gizarte zerbitzuak ez merkatukoak
	62. Jarduera sortzaile, artistiko eta ikuskizunak
	63. Kirol eta aisialdiko jarduerak
	64. Kultur jarduerak ez merkatukoak
	65. Elkarleen jarduerak
	66. Ordenagailuen konponketa, efektu pertsonalak
	67. Beste zerbitzu pertsonalak
68. Etxebizitzetan jarduerak, enplegatutako gisa	

Iturria: Nastat

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Aurreko orrian azaltzen den NASTAt-eko Input Output taulak abiapuntu bezala hartuta, euskararen industriako inpaktu zuzena eta zeharkakoa estimatzeko ondoko pausuak jarraitu dira:

Euskararen sektoreetako establezimenduen datu ekonomikoak (Balio Erantsi Gordina eta enplegua) Input-Output taulako jarduera- adarretan kokatu dira. Guztira, Input-Output taulak 68 jarduera-adar ditu eta zuzeneko eragina kalkulatzeko azterketa honetan kontuan hartu diren establezimenduak, ondoren azaltzen diren 12 adarretan kokatzen dira:

- Arte grafikoak eta erreprodukzioak
- Txikizkako merkataritza
- Argitalpenak
- Ikus-entzunezkoak, zinea, irratia eta abar
- Informatika
- Ikerketa eta Garapena
- Publizitatea eta Merkatu azterlanak
- Bestelako jarduera profesionalak
- Herri Administrazioa
- Hezkuntza
- Kultur jarduerak
- Elkartegintzako jarduerak

Ondorengo taulak Euskarak Nafarroako ekonomian duen eragin zuzena, zeharkako eta induzitua adierazten ditu hiru adierazle desberdinekiko: Ekoizpen balioa (mila euro), Balio Erantsi Gordina (mila euro), Enplegua (lanpostuak).

Euskararen Industriako jarduera sektoreen datu ekonomikoak estimatu direnean ikusi ahal izan den moduan, euskarak 5.700,5 lanpostu zuzen sortzen ditu Nafarroan eta 236.866,3 mila euroko Balio Erantsi Gordina.

Edozein jarduera ekonomikoak lurraldeko ekonomian zuzeneko eragina izateaz gain, zeharkako eragina ere badu. Jarduera batek duen zeharkako eragina zera da, jarduera hori burutu ahal izateko parte hartzen duten sektore guztiak kontuan hartu behar dira, hau da, jarduera egiteko erosi diren bitarteko produktu edo zerbitzuak kontuan hartu behar dira. Estimazio hau Input-Output taulen bitartez egiten dira: Input-Output taulak jarduera bakoitzean irabazitako euro bakoitza merkatuko gainerako sektoretan nola banatzen den kalkulatzeko dute. Zehazki, eta Input-Output taulen arabera, Euskararen Industriak zeharkako 1.141,3 enplegu sortzen dituela estimatzen da eta 44.925,1 mila euroko Balio Erantsi Gordina.

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

2.30 Taula: Euskararen zuzeneko, zeharkako eragina eta eragin induzitua Nafarroako ekonomian

Eragina mota	ekoizpen balioa (mila €)	Balio erantsi gordina (mila €)	Enplegua (lanpostuak)
Eragin zuzena	314.242,1	236.866,3	5.700,5
Zeharkako eragina	68.261,0	44.925,1	1.141,3
Eragin induzitua	149.526,2	87.307,5	1.423,7
GUZTIRA	532.029,3	369.098,9	8.265,5

Iturria: Nastat. Ikeik landuta

Azkenik, Euskararen Industriak sortzen duen eragin induzitua estimatu da EAEko ratioak erreferentzia moduan hartuta. Hots, Euskararen Industrian zuzenean edo zeharka lana egiten duten pertsonak egiten duten kontsumogatik sortzen den Balio Erantsi Gordina eta enpleguari dagokio eragin induzitua. EAEko ratioak erabiltzearen arazoia, kontsumo patrioiak bi lurraldeetan antzekoak direla aurreikusi dela izan da. Tautan ikusi daitekeen moduan, 1.423,7 enplegu induzitu sortzen ditu Euskararen Industriak eta 87.307,5 mila euroko Balio Erantsi Gordina.

2.31 Taula: Euskararen pisua Nafarroako ekonomian: enplegua, Balio Erantsi Gordina eta Barne Produktu Gordina

	Nafarroako ekonomia	Euskararen Industria	Euskarak Nafarroako ekonomian suposatzen duena (%)
Enplegua (lanpostuak)	282.175	8.265,5	2,93
Balio Erantsi Gordina (milioi euro)	18.408,8	369,1	2,01
Barne Produktu Gordina (milioi euro)	19.827,0	390,2	1,97

Iturria: Nastat, EIN. Ikeik landuta

2. Euskararen sektorearen enplegua eta datu ekonomikoak

Gauzak horrela, hiru magnitudek adierazten dute Euskarak Nafarroako Ekonomian duen pisuaren estimazioa: enplegua, Balio Erantsi Gordina eta Barne Produktu Gordina. Zeharki, herrialde bateko Barne Produktu Gordinak herrialde horrek ekoizten dituen produktu eta zerbitzu guztien balio adierazten du, hau da, Nafarroako Euskararen Barne Produktu Gordinak adieraziko du euskarak Nafarroako ekonomiarako duen balioa.


Enpleguari dagokionez, Nafarroan 282.175 lanpostu daude jardunaldi osoko baliokideak (EIN 2018 urteko lau hiruhilekoetako batez bestekoa), euskarak Nafarroan suposatzen duen enplegua 8.265,5 enplegutik estimatzen da, beraz, Euskararen Industriak Nafarroako enplegu guztiaren %2,93 suposatzen du.

Nafarroako Estatistika Erakundeak argitaratutako magnitude ekonomikoen arabera, Nafarroako Balio Erantsi Gordina 18.408,8 milioi eurokoa da (2017 urteari dagokio). Azterlan honetan estimatutako datuen arabera, Euskararen sektorearen Balio Erantsi Gordina 369,1 milioi eurokoa da, hau da, Nafarroako ekonomiaren Balio Erantsi Gordinaren %2,01 suposatzen du euskarak.

Azkenik, eta estimatutako Euskaren Industriaren Balio Erantsi Gordina oinarritzat hartuta eta sektoreari dagozkion zergak eta euskaren eta kulturaren arloko diru laguntzak kontuan hartuz, Euskararen Industriako Barne Produktu Gordina estimatu da. Zehazki, 390,2 milioi euroko Barne Produktu Gordina estimatzen zaio Euskararen Industriari, Nafarroako ekonomia osoko BPGrekiko (19.827 milioi euro) %1,97 suposatzen duena.



2. ATALA ANALISI KUALITATIBOA



3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Kapitulu honetan, Nafarroa eremutik kanpo, herritarren artean, oro har, eta bereziki ehun ekonomiko eta produktiboan, hizkuntza jakin baten erabilera sustatzera eta bultzatzera bideratutako esperientzia ugari aztertu nahi ditugu.

Helburu horrekin, kapitulu honetan hiru eskualde jakinetan jarriko dugu arreta, hau da: Galizia (Espainia), Gales (Erresuma Batua) eta Quebec (Kanada). Eskualde horiek guztiek Nafarroako kasuarekin ezaugarri komun batzuk dituzte, eta horregatik da bereziki interesgarria eskualde horietako kasuak aztertzea, hau da:

- Sustatu beharreko hizkuntza, eremuaren arabera, neurri handiagoan edo txikiagoan nagusi den beste hizkuntza batekin batera bizi den eskualdeak dira hirurak, gutxienez herrialdearen testuinguru orokorrean (ingelesa Galeseko eta Quebeceko kasuan, gaztelania Galiziaren kasuan).
- Hiru eskualdeek dute autonomia politiko eta legegintzako autonomia zabala zenbait elementu arautzeko, horien artean bete beharreko hizkuntza-politika.
- Hiru eskualdeetan, bertako hizkuntza funtsezko balio kultural eta nortasun-balio gisa hartzen da, eta horrek dakar eskualdeko biztanle guztien artean haren ezagutza eta erabilera sustatzeko borondate politiko argia izatea.
- Hiru eskualdeetan, babestu beharreko hizkuntzak izaera ofiziala du eskualdeko eta nazio mailako legedian.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.1. Galizia

3.1.1. Galegoaren hedadura

Galegoaren lurralde geografikoa Galiziako Komunitate Autonomoak eta Asturias, Leon eta Zamorako mendebaldeko eremuek mugatzen dute. Galegoaren banaketa geografikoki nahiko homogeneoa da, eta ez dago haren erabilera egiaztatu ez den lurralde-eremurik. Hori dela eta, galegoa da oraindik ere gehiengoaren hizkuntza Galizian, baina eguneroko erabileran gaztelaniak lekua hartzeko joera dago. Hitzuna zenbat eta gazteagoa izan eta hiri handietan, hala nola A Coruña, Vigo, Santiago eta Pontevedra, besteak beste, orduan eta erabilera gutxiago du galegoak ohiko hizkuntza gisa. 2013ko datuen arabera, Galiziako biztanleriaren % 30,8k beti galegoz hitz egiten du, aldiz, % 20,0k galegoz gehiago hitz egiten du gaztelaniaz baino. Zenbaki orokorretara pasatuta, zifra horiek adierazten dute gutxi gorabehera "ohiko" galego-hiztunak 1,3 milioi direla. Bitxikeria gisa, aipatu behar da galego-hiztunen komunitate zabalak daudela oraindik ere zenbait hiritan, hala nola Bartzelonan, Zürichen, Montevideon edo Buenos Airesen.

3.1 Taula: Galiziako pertsonak, normalean hitz egindako hizkuntzaren arabera

Hitz egiten du	%			Zenbakia		
	2003	2008	2013	2003	2008	2013
Beti galegoz	42,9	29,9	30,8	1.112.670	79.297	789.157
Galegoz gazteleraz baino gehiago	18,2	26,4	20,0	471.781	687.618	513.325
Gazteleraz galegoz baino gehiago	18,7	22,5	22,0	484.881	583.880	563.135
Beti gazteleraz	19,6	20,0	25,9	506.322	521.606	664.052
Bestelako egoera	0,5	1,1	1,2100	13.005	28.622	29.536
GUZTIRA	100	100	100	2.588.658	2.601.024	2.559.206

Iturria: IGE, Enquisa estruktural a fogares

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.1.2. Galegoaren lege-estatusa

1981ean onartutako Galiziaren Autonomia Estatutuak galegoa onartzen du Galiziako berezko hizkuntza eta komunitateko hizkuntza koofizial gisa, eta estatutuaren arabera, "guztiak dute ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea". Estatutuak, gainera, botere publikoei ematen die eremu guztietan galegoa normalizatzeko ardura.

1983ko ekainaren 5eko 3/1983 Legeak, hizkuntza-normalizazioari buruzkoak, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen eta arautzen ditu, bereziki Administrazioaren, hezkuntzaren eta komunikabideen eremuei dagokionez. Beste elementu batzuen artean, Lege horrek Galiziako agintari publikoak behartzen ditu beharrezko neurriak har ditzaten hizkuntza-arrazoiengatik inor ez baztertzeko. Legeak zehazten du, gainera, galegoa, Galiziako hizkuntza den heinean, komunitate autonomoko erakundeen, bertako Administrazioaren, tokiko Administrazioaren eta komunitate autonomoaren mendeko erakunde publikoen hizkuntza ofiziala dela. Gainera, bermatzen du herritarrek eskubidea izan dezaten galegoa erabiltzeko, ahoz eta idatziz, komunitate autonomoaren lurralde-eremuan Administrazio publikoarekin izandako harremanetan. Azkenik, Galiziako agintari publikoak behartzen ditu galegoaren erabilera normala sustatzera, ahoz eta idatziz, herritarrekin izandako harremanetan, eta galegoa eskakizun gisa ezartzen da Administrazio publikoan lanpostu bat eskuratzeko.

Lege hori, gerora, zenbait lege, agindu eta dekreturen bidez osatu da. Esaterako, Galiziako Tokiko Administrazioaren 1997ko uztailaren 22ko 5/1997 Legeak ezartzen du galegoa, Galiziako hizkuntza den neurrian, tokiko Administrazioaren hizkuntza ere badela. Bestalde, Galiziako funtzio publikoari buruzko 2009ko ekainaren 23ko Legeak ezartzen duenez, "Administrazioak bermatu egingo ditu Galiziako herritarren eskubide konstituzionalak eta hizkuntza eskubideak, bai galegoari dagokionez, Galiziako berezko hizkuntza den neurrian, bai gaztelaniari dagokionez, Galizian ofiziala den hizkuntza den neurrian". Beste lege batzuek kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak edo produktuen etiketatzeak arautzen dituzte, besteak beste.

Azkenik, aipatzekoa da Hizkuntza Politikaren Idazkaritza Orokorra dela galegoaren sustapen eta irakaskuntzaz nahiz Galiziako Xuntaren hizkuntza-politika zuzentzeaz, planifikatzeaz, koordinatzeaz eta exekutatzear arduratzen den Galiziako Komunitate Autonomoko Administrazio orokorreko organoa. Kultura, Hezkuntza eta Unibertsitate Antolamenduaren Conselleriaren mende dago Hizkuntza Politikaren Idazkaritza Orokorra. Haren helburuen artean dago Galiziako Autonomia Estatutuko 5. artikulutik eratorritako legediaren garapena eta aplikazioa sustatzea.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.1.3. Eremu ekonomikoan galegoa sustatzeko eskualdeko agintariak garatutako plan eta ekintza nagusiak.

Eskualdeko Galiziako Gobernuak orain arte hiru jardura nagusi garatu ditu Galizian galegoaren erabilera eta hedapena bultzatzeko, hau da, Galegoa Normalizatzeko Plan Orokorra ("Plan Xeral de Normalización da Lingua Galega" (PXNLG)), orain arte Galiziako gobernuko hizkuntza-politika arautzen duena. Plan Orokor hori orain arte plan partzial batekin osatu da: Ehun Ekonomikoan Galegoa Dinamizatzeko Plana ("Plan de Dinamización da Lingua Galega no Tecido Económico 2016-2020").

Gainera, gaur egun galegoa dinamizatzeko bigarren plan partziala egiten ari dira: Gazteen artean Galegoa Dinamizatzeko Plana ("Plan de Dinamización da Lingua Galega na Mocidade 2018-2022"). Idazten 2018 urte amaierarako amaituko dutela aurrez ikusi dute.

Jarraian, plan horiek zehaztu ditugu, bereziki galegoa ehun ekonomiko eta produktiboan sustatzearen inguruko alderdiei dagokienez.

a) *Galegoa Normalizatzeko Plan Orokorra*

Galiziako Komunitate Autonomoak 2004tik du Galegoa Normalizatzeko Plan Orokorra ("Plan Xeral de Normalización da Lingua Galega (PXNLG)")², 2004ko irailaren 21ean Galiziako Parlamentuan aho batez onartutakoa. Plan horrek Galiziako hizkuntza-errealitatefiki abiatuta egindako lauhun neurri zehatz baino gehiago biltzen ditu, gizartearen eremu ugarietan hizkuntzaren erabilera bultzatzeko eta edozein herritarrek erabat galegoz bizitzeko aukera izan dezan bermatzeko.

Galegoa normalizatzeko plan orokorrak helburu orokorrak eta zehatzak ezartzen ditu, sektore mailako bi jardura-bloke handitan egituratuta. Hala, lehen blokeak zeharkako elementu deitutakoak biltzen ditu (hizkuntza-eskubideak, teknologia berriak eta corpusaren inplementazioa), aldiz, bigarren blokeak jardun nahi den sektore mailako zazpi eremu zehatz biltzen ditu (hau da, Administrazioa, Hezkuntza, familia eta gazteria, Komunikabideak eta industria kulturalak, Ekonomia, Osasuna, Gizartea eta azkenik, hizkuntzaren kanporako proiektzioa).

Zehazki, "Komunikabideak eta industria kulturalak " eta "Ekonomia" eremuei dagokienez, Planak lanerako sei azpieroemu handi identifikatzen ditu (Industria kulturalak, Industria, Merkataritza, Kooperatibismoa, bankua eta Lana); horietan, laneko azpieroemu horietako bakoitzerako neurri multzo bat definitzen eta proposatzen dira, lortu nahi diren helburuak erdietsi ahal izateko.

² Ikus: http://www.lingua.gal/c/document_library/get_file?folderId=1647062&name=DLFE-8928.pdf

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.2 Taula: Galegoa Normalizatzeko Plan Orokorrak "Komunikabideen eta industria kulturalen" eta "Ekonomiaren" arloekin lotuta intereseko azpieroemugaritan lortu nahi dituen helburuak

Azpieroemua	Helburuak
Industria kulturalak	<ul style="list-style-type: none"> • Hedapen eta eskaera handieneko produktu kulturalak Galiziako gizaritari galegoz iritsi ahal izatea bermatzea. • Galegozko produktu kulturalen eskaintza nabarmen igo dadin lortzea, defizitarioak diren edo jaramon gutxien egiten zaien sektore eta generoetan arreta jarrita bereziki.
Industria	<ul style="list-style-type: none"> • Galegoaren erabilera sustatzea, bereziki Galiziako ekonomian lider diren enpresetan. • Galegoaren erabilera handitzea sektore industrialean laneko hizkuntza gisa, baita enpresen arteko harremanean ere. • Galegoaren erabilera bermatzea Galizian lan egiten duten administrazioen mendeko sektore publiko industrialean.
Merkataritza	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresak bultzatzea galegoa merkataritza-jardueretan sartzearen ondoriozko onurak balora ditzaten. • Ohiko merkataritza-jardunbide gisa bezeroaren arreta galegoz izan dadin sustatzea.
Kooperatibismoa	<ul style="list-style-type: none"> • Galiziako kooperatibetan, bazkideen artean barne-harremanetarako hizkuntza gisa eta jardueran sortzen duten dokumentazioan administrazioari dagokionez galegoaren erabilera sustatzea. • Galiziako kooperatibek bezeroekin dituzten merkataritza-harremanetan eta produktuen nortasun-elementu gisa galegoa erabil dezaten sustatzea.
Bankua	<ul style="list-style-type: none"> • Banku-erakundeen eta aurrezki-kutxen artean informazioa emateko eta kontratu mailako dokumentazioan, lineako zerbitzuetan eta bezeroaren arretan galegoaren erabilera zabalitzea. • Bankuetan bezeroei galegoz arreta ematea ohiko jardunbide izan dadin sustatzea.
Lana	<ul style="list-style-type: none"> • Galegoaren erabilera orokortzea laneko eta lan-harremanetako hizkuntza gisa. • Karrera teknikoetan, lanbide-heziketan eta hezkuntza ez-arautuan galegoaren presentzia handiagoa bermatzea. • Sindikatuak eta bestelako langileen erakundeak konprometitzea galegoa normalizatzeko prozesuan. • Lan-harremanetan galegoa erabiltzeko langileen eskubidea bermatzea.

Iturria: Galegoa Normalizatzeko Plan Orokorra

Bestalde, eta azpieroemugorietako bakoitzerako, Galegoa Normalizatzeko Plan Orokorrak neurri multzo zabala jasotzen du (txosten honetako eranskinetan zehaztuta daude).

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

b) *Ehun Ekonomikoan Galegoa Dinamizatzeko Plana 2016-2020*

Ehun Ekonomikoan Galegoa Dinamizatzeko Plana ("Plan de dinamización da Lingua Galega no Tecido Económico 2016-2020")³ 2016ko abuztuaren 4an onartu zuen Galiziako gobernuak. Aurrez aztertutako Galegoa Normalizatzeko Plan Orokorrek ezarritako jarraibideetan oinarritutako eta garatutako lehen plan partziala da.

Plan hori Kultura, Hezkuntza eta Unibertsitate Antolamenduaren Conselleriaren mendeko Hizkuntza Politikaren Idazkaritza Orokorrek lideratu eta koordinatu du, eta hori egiteko Galiziako eremu sozio-ekonomikoko 314 eragile baino gehiagok hartu zuten parte.

Planaren helburu nagusia zen galegoaren presentzia handitzea enpresaren eta ekonomiaren eremuan, bai Galiziako enpresen merkataritza-loturak zabaltzeko, bai gizartean eragin biderkatzailea sortzeko (enpresek hizkuntzaren erabilera sustatzeko dinamikak sortzeko garaian duten rol garrantzitsua kontuan hartuta).

Plana hiru helburu estrategiko nagusiren bidez egituratzen da, hau da:

- Galegoaren erabilerak enpresaren helburu eta emaitzetan eta lan-harremanetan, harreman komertzialetan eta bankuetako harremanetan onurak dituela kontzientziatzea.
- Galegoaren erabilera zabaltzea eremu ekonomikoan, lan-harremanetan, harreman komertzialetan eta enpresako harremanetan, bai eskaintzan, bai produktu eta zerbitzuen eskarian.
- Hizkuntza erabiltzea Galiziako berezko marka bereizgarria eta bertako produktuak sustatzeko kalitateari eta berrikuntzari lotuta, eta kontsumitzaileei nahiz enpresariari konfiantza transmitituta.

Horretarako, Planak neurri multzoa prestatu du, guztira 81 neurri, espezifikokoak nahiz zeharkakoak. Neurri horien helburua da hizkuntzaren erabilera eta haren ikusgarritasuna handitzea hamar sektore jakinetan, hau da: Ostalaritza, Merkataritza, Elikadura, IKT, Eraikuntza, Bankua, Aholkularitza eta bitartekaritza, Publizitate-agentziak, Lana eta Kooperatibismoa (ikusitako proposatutako neurrien zerrenda zehatza hurrengo taulan). Horretarako, Planak ondo definitutako jardueren kronograma zehazten du 2016 eta 2020 artean, eta guztira 5,2 milioi euro bideratuko dira horretara.

³ Ikus: http://www.lingua.gal/c/document_library/get_file?folderId=1649399&name=DLFE-12456.pdf

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.3 Taula: Ehun Ekonomikoan Galegoa Dinamizatzeko Plana 2016-2020 planak proposatutako neurri espezifikoak eta zeharkako neurriak

Eremuak	Neurriak
Neurri orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> Galiziako Xuntako organismo eta erakundeekin lankidetzeta eta koordinazioa, Administrazioaren jardueren eraginkortasuna handitzeko. Enpresa-elkarteekin lankidetzeta, galegoaren aldeko jarduerak sustatzeko. Galegoa sustatzeko enpresaburuen eta enpresen sarea sortzen laguntzea. Publizitatearen eta eremu komertzial eta enpresarialetan kanpoko nahiz barneko seinaleztapen bidez galegoaren erabilerrari ikusgarritasuna ematea eta babestea. Portugalgo bezeroei ateak irekitzen dizkien hizkuntza gisa galegoaren abantailak sustatzea eta hobetzea. Nazioarteko negozioak egiteko hizkuntza gisa galegoaren potentziala bistaratzeko informazio-jarduerak. Eremu sozioekonomikoan galegoa indartzeko sustapen-jarduerak komunikabideetan. “Galegoaren eguna Enpresan” ezartzeko jarduerak, enpresetan galegoaren erabilera bultzatzeko erreferentzia kronologiko garrantzitsu gisa. Galegoaren sustapena produktuak etiketatzean. Egitura ekonomikoan galegoa dinamizatzeko proposamenak biltzeko partaidetza-prozesua ezartzea. Erantzukizun Sozial Korporatiboaren (ESK) testuinguruan hizkuntza sustatzeko ekintzak. Datu-base terminologikoak garatzea eta hedatzea adar profesional ugarietan. Enpresan galegoa erabiltzearen inguruko abantailen dekalogoia egitea eta hedatzea. Enpresan galegoa erabiltzearekin lotuta, jardunbide egokien eta arrakasta-kasuen gida bat prestatzea eta hedatzea. Enpresan galegoaren erabilera identifikatzeko bereizgarriak erabiltzearen inguruko bideragarritasun-azterketa. Enpresarako arreta-puntua sortzea hizkuntzaren arloari lotuta. Xuntak eta haren mendeko erakundeek kontratatutako prestakuntza-ikastaroak galegoz egiteko akordioa eta koordinazioa. Enpresaburuei eta zuzendaritza-taldeko langileei zuzendutako jarduerak egiten laguntzea, galegoa erabiltzearen garrantzia eta abantailak nabarmentzeko. Galegoari gehiengoaren hizkuntza, hizkuntza erabilgarria eta azaleratzen ari den hizkuntzaren irudia ematen dion komunikazio-kanpaina, aurrerabideari lotuta eta balio ekonomiko eta sozialarekin. Bezeroaren arreta galegoz izateko kanpaina bat egitea. Galegoa dinamizatzeko enpresa-argitalpenak argitaratzen eta zabaltzen laguntzea. Enpresa-eremuan galegoa sustatzeko bitarteko digitaletan egindako jarduerak babestea. Bezeroaren arretarako eta zerbitzuko prestakuntza-materialak galegoz egitea.
Ostalaritza	<ul style="list-style-type: none"> Ostalaritza-sektoreko elkarte eta erakundeekin lankidetzan aritzea galegoa erabiltzeko sektorearen sustapen ekonomikorako jardueretan. Tokiko administrazioekin lankidetzan aritzea ostalaritza-industria dinamizatzeko eta hobetzeko galegoaren erabilera sustatzearen bidez. Hizkuntza Dinamizatzeko Sarearen jarduerak, IKTen bidez ostalaritza-sektorean galegoaren erabilera babesteko: Internet, sare sozialak, geokopapena eta abar. Bezeroekin galegoa hizkuntza nagusi gisa erabiltzeak duen garrantziaren gaineko informazio-jarduerak egitea. Bezeroekin galegoz komunikatzeko eta erabiltzeko materialak prestatzeko eta hedatzeko euskarria ematea: menuak, kartak eta abar. Galegoaren erabilera babesteko materialak eta tresnak prestatzea eta ematea. Data jakinetan eta ospakizunetan galegoa zabaltzeko jarduerak. Ostalaritza-sektorerako hizkuntza-baliabide espezifikoak dituen webgunea sortzea.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Eremuak	Neurriak
Merkataritza	<ul style="list-style-type: none"> • Sektoreko sustapen ekonomikorako jardueretan galegoa erabiltzeko erakunde komertzialekin lankidetzan aritzea. • Tokiko administrazioekin lankidetzan aritzea merkataritza sustatzen eta hobetzen, galegoaren erabilera bultzatuz. • Bezeroekin hizkuntza nagusi gisa galegoa erabiltzearen garrantzia zabaltea. • Galegoz komunikatzeko eta erabiltzeko materialak diseinatzea. • Saltoki txikietan galegoaren erabilera sustatzeko komunikazio-jarduerak. • Data jakinetan galegoz ospatzeko jarduerak. • Sektorean galegoaren erabilera aitortzeko jarduerak babestea. • Merkatarientzako hizkuntza-baliabide espezifikoak dituen webgunea sortzea. • Galegoa normalizatzeko marka handietara hurbiltzea. • Galegoa normalizatzeko merkataritza-gune handietara hurbiltzea.
Elikadura	<ul style="list-style-type: none"> • Sektoreko elkarte eta erakundeekin lankidetzan aritzea galegoa erabiltzeko sektorearen sustapen ekonomikorako jardueretan. • Tokiko administrazioekin lankidetzan aritzea galegoa erabil dadin elikadura-sektorea dinamizatzeko eta hobetzeko. • Produktuak galegoz etiketatzea sustatzea. • Sektorean galegoaren erabilera aitortzeko jarduerak babestea. • Galegoa erabiltzen duten elikadura-sektoreko enpresekin webgune bat sortzea. • Kalitateko elikagai-produktuak sustatzea hizkuntzarekin lotuta. • Kalitatea kudeatzeko erakundeekin lankidetzan aritzea galegoaren erabilera sustatzeko. • Merkaturarekin lankidetzan aritzea galegoaren erabilera sustatzeko jardueretan, baita dinamizazioan eta hobekuntzan ere. • Banatzaile eta kate handietara hurbiltzea galegoaren erabilera normalizatzeko.
IKTak	<ul style="list-style-type: none"> • IKTen fabrikatzaile nagusiekin akordioak egitea galegoa sar dezaten ekipamendu eta programetan. • IKT arloko enpresa eta erakundeei eskatzea haien webguneetan eta sare sozialetan galegoaren erabiltzeko. • Softwarea garatzen duten enpresei babesa ematea galegoa sar dezaten haien produktuetan. • Galegozko hizkuntza-baliabideak ematea IKTen sektoreko enpresei garapenetan erabiltzeko. • IKTen sektoreko elkarte profesionalekin lankidetzak babestea eta egitea jarduerak galegoz egin ditzaten sustatzeko. • IKTen sektoreko enpresen artean galegoaren erabilerari/sustapenari sariak ematea babestea. • Sektoreko enpresei eta erakundeei enpresetan galegoa erabiltzearen abantailen inguruko informazioa ematea. • IKTen sektoreko enpresa berriekin (eta haien haztegiekin) harremanetan jartzea eta produktuetan galegoa erabiltzearen eta babestearen garrantzia jakinaraztea. • Aplikazioen eta doako zerbitzu elektronikoen interfazeen itzulpen-taldean jarduerak babestea eta ahalbidetzea, haien galegoz jartzeko lanean aurrera egiteko. • Mapen web-zerbitzuen hornitzaile handiekin lankidetzak egitea galegoz jartzeko.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Eremuak	Neurriak
Eraikuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresek, profesionalak eta eraikuntzaren sektoreko eragileek erabilitako erabilera publikoko baliabide, material eta datu-baseen existentzia sustatzea. • Eraikuntzaren sektoreko eragile, enpresa eta langileentzat erabilera-gidaliburuak eta dokumentuak egitea. • Eraikuntzaren sektoreko enpresetan galegoaren erabilera sustatzeko kanpaina. • Eraikuntzaren sektoreko lanbide eta azpisektoreen terminologia espezifikoak eguneratzea eta zabaltzea. • Higiezin salerosketako eragiketa ekonomikoetan kontratuak eta erregistroak galegoz egitea sustatzea.
Bankua	<ul style="list-style-type: none"> • Banku-erakunde nagusietara hurbiltzea eta haiekin hitzarmenak egitea, galegoaren erabilera normalizatzeko. • Banku-erakundeen fundazioekin lankidetzak ezartzea galegoaren erabilera zabaltzeko haien jardueretan. • Bezeroari arreta galegoz emateko lankidetzak-akordio espezifikoak egitea.
Aholkularitza	<ul style="list-style-type: none"> • Galegoaren erabilera sustatzeko sektoreko elkarreetara hurbiltzea eta lankidetzak egitea. • Sektorerako baliabide espezifikoak dituen webgunea sortzea eta zabaltzea. • Galegoa erabiltzen duten aholkularitza-enpresen taldeak sortzea sustatzea.
Publizitatea	<ul style="list-style-type: none"> • Publizitatea galegoz egitearen abantailak nabarmentzeko informazio-jarduerak. • Galegoa erabiltzeari dagokionez publizitatearen sektoreko enpresa eta pertsonen lana aitortzen duten sariak sortzea sustatzea eta horretarako lankidetzak aritzea. • Galegoa erabiltzen duten agentzia eta publizitate-enpresen taldeak sortzea sustatzea.
Lan-harremanak	<ul style="list-style-type: none"> • Akordio espezifikoak sustatzea jarduera ekonomikoetan eta enpresetan galegoaren erabilera eta eguneroko erabileraren inguruko elkarriketa sozialaren tes-tuinguruan. • Hitzarmen kolektiboak galegoz idaztea eta itzultzea sustatzea. • Negoziazio kolektiboan, negozioetan eta bezeroekin galegoa erabiltzearen garrantziari buruzko informazioa ematea eta gaikuntza-jarduerak garatzea.
Kooperatibismoa	<ul style="list-style-type: none"> • Kooperatiba-elkarreetara hurbiltzea haien jarduera ekonomikoetan galegoaren erabilera sustatzeko. • Kooperatibetako hizkuntza korporatibo gisa galegoaren erabilera babestea eta sustatzea. • Kooperatibetako hizkuntza-baliabide espezifikoak dituen webgunea sortzea. • Sektore ugarietako kooperatiba garrantzitsuenetako ordezkariengana hurbiltzea haien jarduerak galegoz izatea ahalbidetzeko neurriak adosteko.

Iturria: Ehun Ekonomikoan Galegoa Dinamizatzeko Plana 2016-2020

Planaren kudeaketaren ikuspegitik, urteko jarduera-planak egitea biltzen du, eta horietan, arduradunak, lortu beharreko helburuak, eskuragarri dauden baliabideak edo erabilitako kontrol-adierazleak zehazten dira. Planak, gainera, Planaren Jarraipen Batzordea egongo dela jasotzen du, eta hura arduratuko da lortutako emaitza guztien jarraipena, ebaluazioa eta kontrola egiteaz, baita lortutako emaitzen urteko memoriak eta jarraipen-txostenak egiteaz ere.

c) **Gazteen artean Galegoa Dinamizatzeko Plana (Plan de Dinamización da Lingua Galega na Mocidade 2018-2022).**

Kultura, Hezkuntza eta Unibertsitate Antolamenduaren Conselleriaren mendeko Hizkuntza Politikaren Idazkaritza Orokorraren bidez, eta Gizarte Politikako Conselleriaren Gazteria, Partaidetza eta Boluntariorzaren Zuzendaritza Orokorraren bidez, Galiziako Xunta Gazteen artean Galegoa Dinamizatzeko Plana

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

("Plan de Dinamización da Lingua Galega na Mocidade 2018-2022") ari da garatzen, inplikaturako eragile ugariaren lankidetzarekin. Plan horren helburua da gazteen artean galegoaren erabilera handitzea (14 eta 35 urte artean).

Planak galegoaren erabilera sustatu nahi du gazteen artean, hezkuntza-eremutik egindako ekintzez harago. Hori dela eta, galegoaren erabilera 9 eremu zehatzetan bultzatu nahi du: Elkarrekin, Kirola, Aisialdia, Industria kulturalak, Familia, Etengabeko prestakuntza, Irakaskuntza, Komunikazio digitala eta sare sozialak, eta azkenik, Enplegua eta ekintzaitza.

Zehazki, eta enpleguaren eta ekintzaitzaren eremuan, Planaren asmoa da, besteak beste, galegoaren normalizazioa sustatzea Enpleguarekin eta ekintzaitzarekin lotutako erakunde eta zerbitzuetan, bereziki gazteekin harreman gehien dutenetan. Gainera, Planaren asmoa da galegoaren potentzialtasuna aprobetxatzea Portugalgo merkatura iristeko; izan ere, horrek aukerak sor ditzake Galiziako gazteen ekintzaitzarako eta enplegurako. Bitartean, eta Industria kulturalen eremuari dagokionez, Planaren asmoa da gazteentzako produktu kulturalen eskaintza ugaria eta lehiakorra garatzea (zinema, serieak, bideo-jokoak, komikiak, liburuak, musika, programak, aplikazioak eta abar) galegoz, nazioartean arrakasta handia duten produktuei arreta berezia jarrita.

Gazteen artean Galegoa Dinamizatzeko Plan hau behin betiko 2018 amaieran onartuko dutela aurrez ikusi dute.


3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.2. Gales

3.2.1. hizkuntzaren hedadura

Galesa hizkuntza zelten familiako hizkuntza bat da, Gales herrialdean hitz egiten da (Erresuma Batua)⁴. Eskuragarri dauden azken datuen arabera⁵, Galesen bizi den herritarren % 20,8 inguru gai zen galesez hitz egiteko, hau da, gutxi gorabehera 560.000 hiztun (bereziki herrialdearen iparraldean eta ekialdean), aldiz, hegoaldeko hiri handietan, ingeles-hiztunak dira nagusi.

3.1 Mapa: Gales-hiztunen proportzioa, eremu geografikoen arabera



⁴ Bitxikeria gisa, galesa hitz egiten da Argentina hegoaldeko eremu batzuetan ere, zehazki, Chubut probintzian, bertan bizi baita Britainiar uharteetatik kanpoko galesen komunitate handiena.

⁵ 2011ko Erresuma Batuko Erroldatik ateratako informazioa.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.2.2. Galesaren lege-estatusa

Ikuspegi politikotik, 1998an Galeseko Gobernu Akta onartzeak ("Government of Wales Act 1998") Galeseko autonomia politikoaren hasiera ekarri zuen, nahiz eta hasiera batean mugatuta egon eskualdean bigarren mailan legeak egiteko aukerari dagokionez, Parlamentu britainiarraren aurretiazko baimena behar baitzuen. Gerora, 2006an Galeseko Gobernu Akta onartuta ("Government of Wales Act 2006") Galeseko autogobernu-gaitasunak handitu ahal izan dira, eskualdeko parlamentu propio bat edo gobernu bat sartzeari barne, baita arlo ugarietan politika eta legedi propioak garatzea ere, galesaren sustapena barne.

Galesaren ikuspegitik, hizkuntzak lehen babes politikoa jaso zuen 1993an Galesaren Akta onartuta ("Welsh Language Act 1993"). Lege horrek, funtsean, herritarrei prozedura judizialean galesa hitz egiteko aukera eman zien, eta sektore publikoko erakunde guztiak behartu zituen ingelesa eta galesa baldintza beretan tratatzera. Gerora, Galesaren Legea 2011 izenekoak ("Welsh Language Measure 2011") galesaren lege-estatusa zabaldu zuen, eta lehen aldiz Galeseko hizkuntza ofizial bihurtu zuen ingelesarekin batera, ondorio guztietarako. Horretarako, Galesaren Komisionariotza sortu zuten ("Welsh Language Commissioner"), eremu publikoan zein pribatuan gales-hiztunen hizkuntza-eskubideak modu eraginkorrean babesteko gaitasunarekin. Komeni da nabarmentzea, gainera, Galesa Ikasteko Zentro Nazionala ("National Centre for Learning Welsh"), gales-ikastaroak garatzeaz eta emateaz arduratzen dena.

Gaur egun, galesa nahitaezko ikasgaia da 5 eta 16 urte arteko ikasle guztientzat; hain zuzen ere Galeseko ikastetxeen % 26k inguruk galesa dute hizkuntza nagusi. Gainera, ikasleek bigarren mailako ikasketak eta unibertsitateko ikasketak galesez jarraitzeko aukera dute. Eta administrazio publiko guztian galesaren erabilera bermatuta dago, aldiz, sektore pribatuan duen erabilera desberdina da eremuaren eta sektore ekonomikoen arabera.

3.2.3. Eremu ekonomikoan galesa sustatzeko eskualdeko agintariek garatutako plan eta ekintza nagusiak

Galeseko Gobernuak 2012tik herrialdeko eremu politiko, ekonomiko eta sozial guztietan galesaren presentzia eta erabilera garatzera bideratutako Plan eta Estrategia multzoa ari da garatzen. Horrekin lotuta, komeni da bi Plan Estrategiko nagusiak nabarmentzea, hau da, Galesaren inguruko Estrategia 2012-2017 ("A living language: a Language for Living - Welsh Language Strategy 2012-2017") eta gaur egun indarrean den Cymraeg⁶ 2050: milioi bat gales-hiztun ("Cymraeg 2050: A million Welsh speakers")⁷. Galeseko Teknologiaren inguruko Ekintza Plan bati ere erreferentzia txiki bat egingo zaio ("Welsh Language Technology Action Plan"). Orain gutxi, 2018ko urrian, onartu dute.

⁶ Cymraeg hitzak galesa esan nahi du galesez.

⁷ Bi plan handi horiez gain, komeni da Galesaren Hezkuntza Estrategiaren garrantzia ("Welsh-Medium Education Strategy"). 2010ean onartu zuten eta hezkuntza-sistema osoan galesaren integrazioa bermatzera zuzenduta dago.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

a) Galesaren inguruko Estrategia 2012-2017

Galesaren inguruko Estrategia 2012-2017 ("A living language: a Language for Living -Welsh Language Strategy 2012-2017")⁸ galesa hizkuntza bizia eta aldi berean banakoen eguneroko bizitzako eremu guztietan erabiltzeko modukoa izateko asmoz egin zuten. Horretarako, Estrategiak hiru arlo estrategiko nagusi zituen, hau da:

- 1. arlo estrategikoa (Familia): familia-ingurunean galesaren erabilera bultzatzea eta babestea.
- 2. arlo estrategikoa (umeak eta gazteak): Ume eta gazteentzat bideratuta eta hizkuntza nagusi gisa galesa erabiltzen duten jardueren eskaintza handitzea, hizkuntzaren balioaren inguruan haiek duten kontzientzia handitzeko.
- 3. arlo estrategikoa (Komunitatea): Galesak komunitatean duen kokapena indartzea.
- 4. arlo estrategikoa (Enpresa): Jendeak lanpostuan galesa erabil dezan aukerak handitzea.
- 5. arlo estrategikoa (Zerbitzuak galesez): Herritarrentzako zerbitzuak galesez gehiago eta hobeto ematea.
- 6. arlo estrategikoa (Azpeigitureak): Hizkuntzarako dauden azpiegiturak indartzea, teknologia digitalak bame.

Bertan, elkartutako ekintza multzoa ezarri zuten. Horrez gain, Estrategia honekin lortutako emaitzak monitorizatzeko eta ebaluatzeko testuingurua ere zehaztu zuten. Zehazki, eta 4. eta 5. arlo estrategikoetan, "Lanpostua" eta "Zerbitzuak galesez" atalei dagozkienetan, Planak garatu beharreko zenbait neurri zehatz ezartzen zituen (ikus hurrengo koadroa).

⁸ Ikus: <https://gov.wales/docs/dcells/publications/122902wls201217en.pdf>

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.4 Taula: Galesaren inguruko Estrategia 2012-2017 dokumentuko 4. eta 5. arlo estrategikoetan aurrez ikusitako ekintzak

Aukeratutako Arlo Estrategikoak (AE)	Aurrez ikusitako ekintzak
4. AE (Enpresa)	<ul style="list-style-type: none"> • Lanpostuan galesa erabiltzeari lotuta, jardunbide egokien gidak garatzea sektore guztietan. • Protokolo operatiboak sortzea, Protokolo operatiboak sortzea, enpresetan galesa erabiltzea sustatzeko betebeharrak sartzeko neurriak txerta ditzaten horretarako eskumenak dituzten agintariak. • Lanpostuan galesa gaitasun gisa aitortzen dituzten sustatzea, eta langileek etengabeko prestakuntzako jardueretan galesa ikas dezaten aukerak garatzea. • Galesezko hizkuntza-gaitasunak dituzten langileen eskariari buruz dagoen informazioa hobetzea, eta informazio hori kanal ugariatik zabalitzea. • Lantokietan galesaren erabilerarekin lotuta enpresa-jardunbide egokiak erakustea.
5 AE (Zerbitzuak galesez)	<p>Sektore publikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu publikoak galesez ondo ematen direla bermatzea, eta herritarrek berak animatzea hala nahi dutenek erabil ditzaten. • Galesez osasun-zerbitzuak eta asistentzia soziala indartzeko testuinguru estrategiko bat <i>ad hoc</i> egitea eta ezartzea. <p>Sektore pribatua:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sektore pribatuak galesa beren borondatez erabil dezaten sustatzea, eta aldi berean, banakoek enprekin dituzten harremanetan galesaren erabilera sustatzea. • Enpresa jakin batzuen artean galesaren erabilerari dagokionez betebeharrak sortzea, Galesaren 2011ko Legean jasota datorren bezala ("Welsh Language Measure 2011")⁹. • Sektore publikoak kontratuak enpresa pribatuei kontratuak edo laguntzak esleitzean galesaren erabilera beste irizpide bat bezala sartuko dela bermatzea. <p>Hirugarren sektorea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hirugarren sektoreak galesa beren borondatez erabil dezaten sustatzea, eta aldi berean, banakoek Hirugarren sektoreko erakunde horiekin dituzten harremanetan galesaren erabilera sustatzea. • Sektore publikoak kontratuak hirugarren sektoreko erakundeei kontratuak edo laguntzak esleitzean galesaren erabilera beste irizpide bat bezala sartuko dela bermatzea.

Iturria: Galesaren inguruko Estrategia 2012-2017

⁹ Komeni da nabarmentzea Galesaren 2011ko Legeak ("Welsh Language Measure 2011") ahalbidetzen duela enpresa pribatu batzuk derrigortu egin daitezkeela ezarritako estandar linguistiko batzuk betetzera. Funtsean, hauek:

- Publikoarekiko zerbitzuak eskaintzen dituzten eta urtean £400,000 edo gehiagoko diru publikoa jasotzen duten erakundeak.
- Agintari publikoekin akordioa eginda zerbitzu jakin batzuk eskaintzen dituzten erakundeak (telekomunikazio-enpresak, autobus- eta tren-operadoreak eta konpainia elektrikoak eta abar).

Hala ere, eta orain arte, ez dira sartu betebeharrak kasu batean ere. Hain zuzen ere, Galeseko gobernua gaur egun sektore pribatuarekin eztabaida-prozesuan dago eremu horretan dagoen legegian aldaketak sartzeko behararen inguruan.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

2014an, Galeseko Gobernuak "Hizkuntza bizia: Bizitzeko hizkuntza – Aurrera goaz" ("A living language: a language for living – Moving forward")¹⁰ izeneko aitortpen politikoa egin zuen. Estrategiaren hasierako dokumentua hura amaitu arte falta ziren hiru urteetarako egokitzea zen helburua.

Galesaren inguruko Estrategia 2012-2017 estrategiaren ondorioz, azken urteotan ekimen interesgarri ugari garatu dira:

- Webgune baten garapena¹¹; bertan galesari buruzko eta enpresei buruzko informazio interesgarri ugari topa daiteke, enpresen artean galesaren erabilera babesteko eskuragarri dauden baliabide publikoak barne.
- Egin lan Galesen ("Work Welsh") programaren garapena. Enpresei zuzenduta, langileentzat galesezko prestakuntzaren eta horrelako gaien inguruko informazioa eta aholkularitza ematera bideratuta dago.
- ETE-en artean Galesari Laguntzeko Funtza ("Welsh language Small- and Medium-sized Enterprises (SME) Support Fund") izeneko proiektu pilotua era-tzea. Horren helburua, funtsean, enpresek galesez garatutako produktu eta zerbitzuen eskaintza handitzea da, ETE-en beraien hizkuntza arloko babes-sarea ezartzen laguntzeaz gain.
- Teifi Haranean galesezko enpresa-zerbitzuak garatzeko proiektu pilotua egitea.
- Enpresa-zerbitzuak galesez gehiago erabiltzeko enpresek dituzten oztopoak hobeto ulertzeko zenbait ikerketa egitea.
- Enpresei bi hizkuntzetan lan egitearen abantailak erakusteko ekitaldi eta kanpaina ugari egitea.
- Baliabide digital berriak garatzeko zerbitzu digitalak eskaintzen dituzten enpresa pribatuekin lankidetzeta-hitzarmen ugari egitea (hiztegiak, testuak az-tertzeko eta itzultzeko baliabideak eta abar).

b) *Cymraeg 2050: milioi bat gales-hiztun*

Cymraeg 2050: milioi bat gales-hiztun estrategia ("Cymraeg 2050: A million Welsh speakers")¹², formalki 2017. urtean onartutakoa, datozen 30 urteetan galesa sustatzeari dagokionez Galeseko eskualdeko gobernuaren jarduerak gidatzeko oinarritzko dokumentu gisa sortu zen.

¹⁰ Ikus: <https://gov.wales/docs/dcells/publications/140806-living-language-moving-forward-en.pdf>

¹¹ Ikus: <http://cymraeg.llyw.cymru/business/?lang=en>


¹² Ikus: <https://gov.wales/docs/dcells/publications/170711-welsh-language-strategy-eng.pdf>

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Horrekin lotuta, dokumentuaren oinarria da 2050. urterako hizkuntza eguneroko bizitzako alderdi guztietan erabiliko duten milioi bat gales-hiztuneko komunitatea izatea. Horretarako, Galeseko herritar guztiengan sentimendu positiboa sortu behar da hizkuntzaren balioari dagokionez, eta Galeseko kulturari, gizarteari eta ekonomiari egiten dion ekarpen positiboari dagokionez.

Azken helburu hori lortzeko, Planak hiru lan-eremu handi identifikatzen ditu, eta hirurek elkar elikatzen dute. Honako hauek dira: gales-hiztun kopurua handitzea, hizkuntza gehiago erabiltzea, eta azkenik, hizkuntzaren garapena ahalbideratuko duten kanpoko baldintzak (testuingurua eta azpiegiturak) sortzea.

3.1 Grafikoa: Cymraeg 2050 Estrategiaren lan-eremuak



Iturria: Cymraeg 2050 Estrategia

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.5 Taula: Cymraeg 2050 Estrategiak lortu nahi dituen helburuak eta lan-eremuak

Gaiak	Helburuak
1. lan-eremua: gales-hiztun kopurua handitzea	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzaren transmisioa familian: familiek hizkuntza etxean transmiti dezaten babesa zabaltzea. Lehen urteak: galesa hizkuntza nagusi gisa erabiltzen den espazioen eskaintza zabaltzea. Derrigorrezko hezkuntza: benetako gales-hiztunen kopurua handituko duen hezkuntza-sistema sortzea. Derrigorrezkoa ez den hezkuntza: gizartean galesa erabiltzeko herritar guztiei babesa emango dien derrigorrezkoa ez den hezkuntza-eskaintza garatzea. Hezkuntzan eta prestakuntzan, galesari dagokionez eskuragarri dauden giza baliabideak eta bestelako baliabideak handitzea eta hobetzea.
2. lan-eremua: hizkuntzaren erabilera handitzea	<ul style="list-style-type: none"> Lantokia: galesaren erabilera handitzea sektore ugarietako lantokietan. Zerbitzuak: gales-hiztunei eskainitako zerbitzuen aukera zabaltzea eta galesezko zerbitzuen erabilera handitzea. Galesaren erabilera soziala: hizkuntzaren erabilerari lotutako jardunbide positiboak garatzea, eta horiei laguntzeko, sozialki galesa erabiltzeko aukera formalak eta informalak izatea.
3. lan-eremua: Kanpoko baldintza egokiak sortzea (testuingurua eta azpiegiturak)	<ul style="list-style-type: none"> Komunitatea eta ekonomia: gales-hiztunen komunitateetako azpiegitura sozioekonomikoari laguntzea. Kultura eta komunikabideak: galesa herrialdeko kultura garaikidearen zati dela bermatzea. Gales eta mundua: galesa Galesek munduarekin, oro har, dituen harremanak hobetzeko esfortzuen zati izan dadin ziurtatzea, eta Galesera bizitzera joandako pertsonak jasotzeko eta integratzeko erabiltzea. Teknologia digitala: galesaren erabilera ziurtatzea testuinguru digital guztietan. Hizkuntza-azpiegitura: galesaren azpiegitura etengabe garatzea bermatzea (hiztegiak, terminologia, itzulpengintzaren lanbidea) Estrategia hau ezartzearen zati gisa. Hizkuntza-plangintza: hizkuntza-plangintza eta -sustapena nazio mailan, eskualdean eta tokian-tokian txertatzea, elebitasunerako eta gales-hiztunen beharrak hobeto ulertzeko eta babesteko. Ebaluazioa eta ikerketa: galesaren eta gales-hiztunen inguruan dauden ebidentziak modu eraginkorrean erabiltzea, hizkuntza-politika garatzeko esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzeko oinarri gisa.

Iturria: Cymraeg 2050 Estrategia

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Helburu horiek lortzeko, eskualdeko gobernuek urte ugariako lan-programak garatzea aurrez ikusi du. Programa horietan zehaztuko dituzte helburu horiek lortzeko garatu beharreko ekintzak. Hala, lehen Laneko Plana 2017-2021⁽¹³⁾ aldiari dagokio. Aldi horretarako garatu beharreko ekintza orokor multzo bat zehazten du planak. Gainera, Galeseko gobernuek urtero definitzen du Ekintza Plan bat, eta bertan zehazten dira urte horretan aurrez ikusitako eta egin beharreko ekintza zehatz guztiak, eta hala erantzuten diete urte anitzeko planak aurrez ikusitako helburu eta ekintzei¹⁴. Zehazki, eta 2017-2021 aldirako, honako hauek dira garatu nahi diren ekintzetako batzuk:

1. Galesez egindako etengabeko prestakuntzako jarduerak sustatzea.
2. Enpresa-erakundeekin lankidetzan marketineko kanpainak garatzea, lantokietan elebitasunaren balioari buruzko gazteen pertzepzioa handitzeko.
3. Enpresetan egin beharreko helduentzako galesezko ikastaroen eskaintza handitzea.
4. Galesaren erabilera sustatzea sektore publikoko enplegatuen artean, gainerako herritarrentzako eredu gisa.
5. Enpresen eta hirugarren sektoreko erakundeen lantokietan elebitasuna sustatzeko babes-programak garatzen jarraitzea.

c) *Welsh Language Technology Action Plan*

Galesezko Teknologiaren inguruko Ekintza Plana ("Welsh Language Technology Action Plan")¹⁵ orain gutxi, 2018ko urrian, argitaratutako dokumentua da, galesa teknologiaren munduan sartzeko beharra biltzen du, bereziki teknologia digitalei lotutako guztian eta hiru eremu zehatzetan lehentasunezko arreta emanda, hau da: i) ahots-teknologiak galeserako, ii) ordenagailuz lagundutako itzulpenak eta iii) elkarrizketarako adimen artifiziala.

Horretarako, ekintza ugari proposatzen dira askotariko eremuetan, hala nola azpiegitura digitalen garapena, herritarrentzat eskuragarri dauden gaitasun digitalen garapea eta sustapena, edo galesezko zerbitzu eta produktu digitalen sorrera eta erabilera sustatzea.

¹³ Ikus: <https://gov.wales/docs/dcells/publications/170711-cymraeg-2050-work-programme-eng-v2.pdf>

¹⁴ Zehazki, aurkeztutako azken ekintza-plana 2018-2019 aldiari dagokio (ikus: <https://gov.wales/docs/dcells/welsh-language/publications/180703-cymraeg-2050-million-welsh-speakers-action-plan-2018-2019-en.pdf>)

¹⁵ Ikus: <https://gov.wales/docs/dcells/publications/181023-welsh-language-technology-action-plan.pdf>

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.3. Quebec

3.3.1. Frantsesaren hedadura Kanadan eta Quebecen

Hiru lurraldeekin batera (Nunavut, Yukon eta Ipar-ekialdeko lurraldeak), Kanadako hamahiru erakunde federalak osatzen dituzten hamar probintzietako bat da Quebec. Kapitala izen bereko Quebec da, eta populazio gehien duen hiria, berriz, Montreal. Quebecek nortasun kultural eta politiko handia du Kanada barruan¹⁶, eta hori hizkuntzaren berezitasunean islatzen da. Gainerako probintzietan ez bezala, Quebecen hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da.

3.2 Mapa: Quebecen kokapen geografikoa



¹⁶ Berezitasun horregatik, eta Quebec Kanadan egokitzeko izan diren arazo historikoak direla eta, 2006ko azaroaren 27an, Kanadako parlamentuak Quebec «Kanada elkartu baten barruko nazio» gisa aitortu zuen; "nazio" kontzeptua zentzu kultural eta sozialean hartuta, eta ez lege ikuspegitik.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Quebecek gaur egun guztira 8 milioi biztanle inguru ditu; horietatik % 94,4k frantsesa erabiltzen eta hitz egiten du (2016ko datuak)¹⁷. Zehazki, probintziako biztanleen % 79,1ek frantsesa du ama-hizkuntza, eta aldiz, % 8,3k, ingelesa. Gainerako % 13aren ama-hizkuntza ofiziala ez den hizkuntzaren bat da (alofono deitutakoak). Edonola ere, biztanlearen ehuneko oso altuak du bere burua elebiduntzat (% 43 inguruk). Kanada osoa erreferentzia gisa hartuta, frantses-hiztunen ehunekoa benetan gutxiengoa da (% 21 baino gutxiago). Komeni da aipatzea Montreal hirian ingelesaren erabilera zabalduago dagoela Quebeceko gainerako lekuetan baino.

3.3.2. Frantsesaren lege-estatusa Quebecen

Lehen aipatu dugun moduan, eta Kanada osatzen duten gainerako probintzietan ez bezala, Quebecen hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da 1977an Frantsesaren Gutuna "Charte de la Langue Française" (edo 101 Legea)¹⁸ aldarikatu zutenetik. Gutun horrek definitzen ditu Quebeceko herritarren hizkuntza-eskubideak eta ezartzen du frantsesa izango dela probintziako hizkuntza ofiziala eremu guztietan (soziala, kulturala, ekonomikoa eta abar). 101 Lege horrek arautzen du hizkuntzen erabilera hiru eremu nagusietan, hau da, Quebeceko Gobernuan eta Administrazioan, eremu ekonomikoan eta hezkuntza publikoaren sektorean. Hiru sektore horietan, Legeak frantsesaren egoera indartu nahi du ingelesaren aurrean, eta horretarako, Quebeceko gutxiengo ingeles-hiztunen eskubide tradizional batzuk mugatzen ditu.

Quebeceko ingeles-hiztunen komunitatearen egoera

Quebeceko eta Kanadako hizkuntza-egoeraren elementu bereizgarrietako bat da Quebeceko gehiengo frantses-hiztunen artean, Kanada barruan gutxiengo linguistiko ofiziala izanik, ingeles-hiztunen gutxiengo ofizial bat dagoela. Eskuragarri dauden datuen arabera, Quebeceko biztanleen % 8,3k inguruk du ingelesa ama-hizkuntza gisa (2016ko datuak). Gainera, ingelesa hitz egindako lehen Hizkuntza Ofizial gisa duten alofono kopuru handi samarra dago ("First Official Language Spoken") (batez ere munduko beste eremu batzuetatik Quebecera etorritako etorkinak), hala, biztanleria osoaren % 13,4k inguruk erabiltzen du ingelesa hitz egindako lehen hizkuntza gisa.

Legeen ikuspegitik, Quebeceko ingeles-hiztunen komunitatea (Quebeckers deitutakoak) ofizialki gutxiengo linguistiko gisa aitortuta dago Kanadako legeen arabera. Zehazki, 1982ko Konstituzio federalak ingelesa eta frantsesa aitortzen ditu Kanadako hizkuntza ofizial gisa. Gainera, Kanadako Hizkuntza Ofizialen Legeak ("Official Languages Act"), hasiera batean 1969an onartutakoak eta 1988an eta 2005ean aldatutakoak, berretsi egiten du zerbitzu publikoak aukeratutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea (masa kritikoa baldin badago), eta gobernu federala behartzen du hizkuntza ofizialeko gutxiengoen komunitateen ("Official-Language Minority Communities") bizitasuna eta garapena babesteko "neurri positiboak" garatzera.

¹⁷ Chiffres en bref sur les langues officielles par province ou territoire (ikus: <https://www.clo-ocol.gc.ca/fr/statistiques/province-territoire>)

¹⁸ Ikus: <http://www.legisquebec.gouv.qc.ca/fr/showdoc/cs/C-11>

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Quebeceko Gobernuak garatutako hizkuntza-politikaren aurka egin izan du tradizionalki Quebeceko ingeles-hiztunen komunitateak; hain zuzen ere, lege eta politika mailako bitarteko ugari erabili ditu horren aurka egiteko. Horrekin lotuta, 101 Legearen aurka egiteko errekurtso judizial ugari aurkeztu izan dituzte, eta horren ondorioz 101 Legearen xedapen ugari baliogabetu ditu Auzitegi Gorenak Kanadako Konstituzioaren aurkakotzat hartuta. Hori dela eta, xedapen horietako batzuk aldatu egin dituzte (esaterako, enpresen iragarki eta izendapen komertzial guztietan frantsesa soilik erabiltzea; hala, gaur egun, legeak beste hizkuntza batzuk erabiltzeko aukera ematen du, frantsesaren presentzia nagusia baldin bada).

Frantsesaren Gutuna dozena bat arauk eta Gobernu mailako politika batek osatzen dute; azken horrek arautzen du frantsesaren erabilera bai Administrazio publikoan, bai hizkuntzaren ikuspegitik estrategikoak diren beste sektore batzuetan (hezkuntza, kultura, immigrazioa, informazioaren teknologiak eta abar). Zehazki, eta Administrazio Publikoetarako, Frantsesaren Gutunak ezartzen du Administrazio Publikoak eredu eta lider izan behar duela Frantsesaren Gutuna aplikatzeko garaian, eta horrek berekin dakar zerbitzu eta produktu guztiak frantsesetik eskaintzeko betebeharra.

Ikuspegi operatibotik, Quebec probintziako Gobernuak eremu ugariak atribuzioak ditu, probintzian frantsesa sustatzearena barne, noski. Hala, hizkuntza-politikaren arloan dagoen erakunde publiko nagusia Frantsesaren Quebeceko Bulegoa da ("Office Québécois de la Langue Française")¹⁹. Frantsesaren Gutunean ezarritakoaren arabera, Bulego horren helburu nagusia da probintziako politika zehaztea eta bideratzea hizkuntzaren sustapenari dagokionez, eta eremu ugarietan frantsesa egoki erabiltzen dela bermatzea (administrazio publikoak eta enpresak barne). Bulego horretan zortzi kide daude, Quebeceko gobernuak berak izendatutako presidentea eta Quebeceko gizarte zibileko ordezkari ugari barne. Horrez gain, Frantsesaren Goi Mailako Kontseilu bat ere badago ("Conseil Supérieur de la Langue Française"). Quebecen frantsesaren inguruko edozein gairen inguruan aholkularitza eskaintzeko Quebeceko Gobernuaren erakundea da.

¹⁹ Ikus: <https://www.oqlf.gouv.qc.ca/accueil.aspx>

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.3.3. Eremu ekonomikoan frantsesa sustatzeko Quebeceko eskualdeko agintariak garatutako ekintza nagusiak.

Frantsesaren Gutunak eta ondorengo gainerako legegintzako garapenek zenbait eskubide eta betebeharrak ezartzen dituzte kontsumitzaileentzat, langileentzat, enpresentzat eta profesional liberalentzat.

Zehazki, legegintzako corpusak ezartzen du Quebecen jarduerak garatzen dituzten enpresa eta profesional liberelek frantsesa erabili behar dute haien jardueretan²⁰. Zehazki, honako hau ezartzen du legeak:

1. Langile guztiek dute eskubidea lan-jarduerak frantsesez egiteko; hala, Quebecen jarduerak egiten dituzten enpresek oinarritzko eskubide hori errespetatu behar dute intereseko eremu guztietan (ordezkaritza sindikala, lan-eskaintzak, prestakuntza-jarduerak, langileei zuzendutako komunikazioak, laneko bilerak, enpresa-akordioak eta abar). Araua bete ezean, eskuragarri dauden legeek zenbait mekanismo judizial dituzte eskubide hori betearazteko.
2. Kontsumitzaile guztiek dute frantsesez informazioa eta arreta jasotzeko eskubidea. Horretarako, Legeak ezartzen du enpresek frantsesa erabili behar dutela (beste hizkuntza batekin batera hala nahi badute, baina frantsesa beti nagusi dela) Quebecen eskainitako produktuen inskripzioetan, ontzia edo bilgarria barne, baita produktuekin batera doazen dokumentuetan ere (erabilera-jarraitzaileak, berme-ziurtagiriak, erabiltzailearen gidaliburuak eta abar). Gomendio horixe bera zabaltzen zaie honako hauei ere: inprimatutako publizitateari (katalogoak eta liburuxkak barne), webguneeko edukiei eta mezu komertzial eta publizitate-mezuei, enpresa baten izenari edo, azkenik, dokumentazio komertzial guztiei (fakturak, erosketa-aginduak eta bar).
3. Profesional liberelek zerbitzuak frantsesez eskaini behar dituzte, eta produktuak ere hizkuntza horretan egin behar dituzte. Horretarako, profesional liberelek lanbidea behar bezala garatzeko frantses maila egokia dutela egiaztatatu behar dute.
4. Frankofonia Ziurtagiria izatea nahitaezkoa da ("Certificat de Francisation") 50 langile edo gehiago dituzten enpresentzat (Frantsesaren Gutuneko 135etik 154ra arteko artikulua). Quebecen gutxienez 6 hilabetez 50 langile edo gehiago dituzten enpresa guztiek Frantsesaren Quebeceko Bulegoan erregistratu behar dute eta txosten bat bidali²¹ duten egiturari, egiten dituzten jarduerari eta frantsesari dagokionez duten hizkuntza-egoerari buruz. Frantsesaren Quebeceko Bulegoak uste badu enpresak frantsesaren erabilera orokortua duela, hark automatikoki eskuratzen du Frankofonia Ziurtagiria, eta hiru urtean behin berri beharko du. Aldiz, Frantsesaren Quebeceko Bulegoak ez badu uste frantsesaren erabilera orokortua dagoenik, enpresari jakinaraziko dio Frankofonia Programa bat garatu eta egin behar duela nahitaez, eta programa hori Bulegoak onartu beharko du. Frankofonia

²⁰ Ikusi deskribapen zehatza hemen: https://www.oqlf.gouv.qc.ca/francisation/entreprises/201610_guide.pdf (frantsesez).

²¹ Ikusi bidali beharreko dokumentua hemen: https://www.oqlf.gouv.qc.ca/francisation/entreprises/formulaires/formulaire-inscription_rg.doc

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Programa hori hurrengo urteetan ezarri beharko dute Frankofonia Ziurtagiria lortu arte, eta tarte horretan enpresak erregulartasunez eman beharko dio egindako aurrerapenen berri Frantsesaren Quebeceko Bulegoari. Betebehar hori errespetatzen ez duten edo betetzen ez duten enpresek isunak eta zigorrak jaso ditzakete, kontratu eta laguntza publikoak jasotzeko ezintasuna barne, edo are gehiago, jarduera-lizentziak bertan behera geratzeko aukera ere izan dezakete.

- Quebecen 100 langile edo gehiago dituzten enpresek, gainera, Frankofonia Batzordea sortu behar dute, baita 50 eta 99 langile arten dituzten enpresek eta Frankofonia Programa bat egin behar dutenak ere (Frantsesaren Quebeceko Bulegoak hau egitea komenigarria dela ustekotan). Batzordearen helburua da frantsesa ohiko lan-hizkuntza arrunta izatea enpresan. Batzordea enpresako eta langileen ordezkariak osatuko dute eta funtzio hauek izango ditu:
 - Frankofonia Ziurtagiria duten enpresen kasuan, Batzordeak bermatu behar du frantsesa benetan eta modu iraunkorrean ezarri dela. Horretarako, enpresan frantsesaren erabilerak izandako bilakaerari buruzko txosten bat prestatu eta bidali beharko diote Frantsesaren Quebeceko Bulegoari hiru urtean behin. Batzordeak sei hilean behin bildu behar du.
 - Ziurtagiri hori ez duten enpresen kasuan, eta hura lortu arte, Batzordeak enpresako egoera linguistikoa aztertu behar du, eta Frankofonia Programa bat prestatu, agintari eskudunei bidaltzeko.
- Azkenik, berrogeita hamar langile edo gehiago dituzten enpresek erabilitako informazioaren teknologietan frantsesaren erabilera orokortu behar dutela ezartzen du Legeak.

Jarduera horiekin batera, Quebec probintziako Gobernua frantsesa sustatzeko finantza-laguntza emateko programa batzuk ditu. Hala, probintziako Gobernua 225.000 dolar kanadar arteko finantza-laguntza ematen du, urtebetetik hiru urtera artekoa izan daiteke, frantsesaren erabilera eta eragina handitzera bideratutako proiektuetarako, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek, kooperatibek, udal-organazioek edo enpresa pribatuek²² gara ditzakete. Zehazki, bi proiektu mota babesten dituzte:

- Frantsesa menderatzea bultzatzeko eta horri balioa emateko proiektuak, bereziki honako hauek zuzendutakoak:
 - Frantsesaren gaitasuna sustatzea gaitasun profesional gisa eta enpresetarako arrakasta-faktore moduan.
 - Eremu edo jarduera espezifiko baterako frantsesezko terminologia espezifiko hobeto ezagutzea eta erabiltzea.
 - Jarduera profesionalak egiteko beharrezko frantsesezko gaitasunak indartzea.
 - Frantses-hiztunak ez diren langileen integrazio linguistikoa sustatzea lantokian.

²² Proiektu hauek lehenago kolektiboetan 18 eta 35 urte arteko heldu gazteak sartzen dira; frantsesez hitz egiten ez dutenak, bereziki etorkinak eta emakume etorkinak; gerentziako kideak eta 50 langile baino gutxiagoko enpresetako langileak, baita turismoaren, merkataritzaren, eskulangintzaren edo goi mailako teknologia erabiltzen duten sektoreak ere.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

8. Enpreetan frantsesaren erabilera sustatzera bideratutako proiektuak, bereiziki honako hauetara bideratutakoak:
 - Quebecen frantsesez lan egiteak eta negozioak egiteak duen garrantziaren inguruan kontzientzia sustatzea enpresen eta bezeroen artean.
 - Bezeroekiko harremanetan lehen aukerako hizkuntza frantsesa izatea.
 - Frantsesaren erabilera handitzea jendeari zuzendutako komunikazio eta testu komertzialetan, baita langileen esku utzitako dokumentuetan ere.
 - Frantsesaren presentzia eta erabilera handitzea ekonomia digitalaren sektoreetan.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.4. Galizia, Gales eta Quebeceko esperientzietako ondorio nagusiak eremu urriko hizkuntza propioen sostenguan

Galizia, Gales eta Quebeceko azterturiko esperientziek, beraine artean sos desberdinak izan arren, ikasgai batzuk jasotzea ahalbidetzen du, interesgarriak izan daitezkeenak Euskara sustatzeko garaian Nafarroako Foru Erkidegoaren Gobernuaren aldetik. Zehazki, ikasgaiok honakoak dira:

- Eremu urriko hizkuntza bati laguntzeak borondate politiko irmo bat behar du, ezaguera eta erabilpena sustatzeko erkidegoaren biztanleria osoaren artean. Zentzu honetan, ofizialtasun bikoitza txertatzeak (galesera eta galizieraren kasuak) edo eremu urrikoen hizkuntza-eskubideak onartzeak (Quebecen kasua) harreman publiko eta pribatu guztietan hizkuntza hautatzeko askatasun pertsonalaren berme baten gisa jarduten dute.
- Azterturiko hiru esperientziek erakusten dute lurralde esparruan hizkuntza-planifikazio jarduerak funtsezko elementu batzuk direla lagundu behar diren eremu urriko hizkuntzen biziberritze efektiborako. Bestalde, ez dira baztertu behar hezkuntza edo kulturaren esparruan elebitasunaren sostengu efektiboa bezalako beste elementuak. Zentzu honetan, "Galiziar-Hizkuntzaren Normalizazio Plan Orokorra" edo Galeseko Herrialdearen "Cymraeg 2050"-a bezalako esperientziek erakusten dute ondo zehaztutako, denborarekin planifikatutako, arduradun argiak dituzten eta baliabide nahikoak dituzten planak zeinen garrantzitsuak diren, lagundu behar den hizkuntzaren erabilera eta zabaltzea sustatzeko interesgarritzat jotzen diren esparru guztietan. Gainera, planifikazio esperientzia hauetako batzuen izaera parte-hartzaileak indartu egiten du ezbairik gabe euren zilegitasuna gizarte osoaren begietan. Azkenik, azpimarratu behar litzateke planifikazio-esperientzia hauek une oro azpimarratzen ari direla biztanleria osoaren artean hizkuntzaren balioaren inguruko sentimendu positibo bat sortzeko beharra, eta baita bere ekarpena ere kulturari, gizarteari eta erkidegoaren ekonomiari. Gainera, Galeseko esperientziarekin egin den moduan, eskuratutako emaitzak modu sistematikoan monitorizatzea komenigarria litzateke.
- Administrazio publikoek azterturiko hiru kasuetan funtsezkoa den paper eredugarri bat jokatzeko dute, lagundu behar den eremu urriko hizkuntzaren erabilera sustatzeko garaian. Horrela bermatu egiten da administrazio publikoekin erlazionatzeko hiritarrek aukeratu eta erabili ahal izatea nahi duten hizkuntza.
- Azterturiko Gales, Galizia eta Quebeceko hiru esperientziek berresten dute hizkuntza-normalizazio jarduerak planifikatu eta garatzearen garrantzia esparru ekonomikoan eta merkataritza-, lan- eta enpresa-harremanetan. Izan ere, paper garrantzitsua jokatzeko dute agente ekonomikoek eta enpresek, hizkuntzaren erabilera sustatzeko dinamika propioen sortzaile diren agente estrategiko gisa.
- Gainera, azterturiko hiru esperientziek eremu urriko hizkuntzaren erabilerak sortzen dituen aukera ekonomikoak aztertzen ditu, bai lan- eta merkataritza harreman berrien elementu indartzaile gisa, edo baita irudi bereizle propio baten edota negozio aukera berrien elementu sortzaile gisa ere. Honen

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

adibide on bat galiziar esperientziaren eskutik dator eta bere galiziar Hizkuntzaren Dinamizazio Plana Ehun Ekonomikoan 2016-2020 ekimenetik. Aipatu-tako plana bereziki esparru ekonomiko eta enpresarialean galizieraren presentzia handitzera bideratua dago eta, aldi berean, gainontzeko gizartearen eragin efektu biderkatzaile bat ahalbidetzeraz.

- Galiziako esperientziak sektore produktibo jakin batzuetan zenbait ekintza identifikatu eta ardazteko beharra erakusten du. Zehazki, hizkuntzaren erabilera eragin handiagoa sortu lezakeen sektoreetan, bai ikuspuntu linguistikotik eta baita ekonomiko eta sozialetik ere. Sektore/Jarduera bereziki adierazgarriak adibide dira, besteak beste, erkidegoa merkatu nagusitzat duten jarduerak ekonomikoak eta non tokiko bezeroekin harremana oso garrantzitsua den (Elikadura, Ostalaritza, Merkataritza, Banketxeak, Enpresa-aholkularitza jarduerak eta iragarki agentziak, eta abarren enpresak), edo beste sektore batzuk non hizkuntzak funtsezkoa den paper-bereizgarri bat jokatzen duen (industria kulturalak, IKTen sektorea, etab.).
- Gaur egungo mundu digitalizatu honetan hizkuntza-normalizazioa lortzeko garrantzia berezia duen elementu bat da IKTen sektoreari arreta berezi bat eskaintzea. Zentzu honetan, Galeseko eta Galiziako esperientziek erakusten dute sektore honetako plan bereziak garatzeak duen garrantzia, indartu nahi den hizkuntzan dauden produktu digitalen sortzea eta erabilera bultzatzeko. Honek barne hartzen du software ekoizle eta sortzaileekin akordioak, hizkuntzaren erabilera indartzea web-orri eta sare sozialetan, ordenagailuaz lagunduriko itzulpenen garapena, web-eremuak sortzea sektoreontzako propio diren hizkuntza-baliabide bereizgarriekin, etab.
- Azterturiko esperientziek ekintza arin edo "soft" posible sorta zabala erakusten dute sustapen eta normalizazio linguistikoari dagokionez, sektore edota enpresa esparruan. Identifikaturiko adibideek ondorengoak barneratzen dituzte:
 - Elkartana elkarte eta sektoreetako erakunde adierazgarriekin, hizkuntzaren erabilera sustatzeko sektorean.
 - Enpresa-sareen sortzea bultzatu hizkuntza sustapenerako.
 - Sustapen eta kontzientziazio kanpainak, bezeroekin hizkuntza behikular gisa hizkuntza erabiltzearen garrantziaren inguruan.
 - Bezeroekin hizkuntzaren erabilera eta komunikazioa sustatzeko gidak prestatzeko eta zabaltzeko laguntzak.
 - Hizkuntzaren normalizazioaren gaiarekin bereziki sentsibilizatuak dauden eremu geografiko zehatzetako enprekin proiektu-pilotuak garatu, eta jardunbide-egoki gisa erabili litezkeenak beste enpresa edota eremu geografikoetan.
 - Enpresa-esparruan hizkuntzaren erabilerearen jardunbide-egoki eta arrakasta-kasuen gidak egin eta zabaltzea.
 - Enpresen artean sari eta aintzatespenak ezartzea hizkuntzaren erabilerari edo sustatzeari dagokionez.
 - Enpresentzako arreta-puntua(k) ezarri (fisikoak edota birtualak) gai linguistikoen inguruan.
 - Terminologia-base sektorialen garapena eta difusioa.
 - Enpresen barne eta kanpoko seinaletikari laguntza.
 - Adierazgarriak diren enpresa handiekin akordio bereziak normalizazio linguistikoaren inguruan, eta gainontzekoentzat erreferente izan daitezkeenak.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

- Enpresetan hizkuntzaren sustapen ekintzak Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren (GEK) baitan.
 - Produktuen etiketa edo iragarki-materialen ekoizpena (inprimatua edota birtuala) lagundu behar den hizkuntzan.
 - Enpresarentzat interesgarria den dokumentazio anitzaren ekoizpena lagundu (erabilera instrukzioak, berme-ziurtagiriak, kontratuen informazioa, fakturak, etab.).
 - Argitalpen enpresariaren edizioa eta zabaltzea bultzatu lagundu behar den hizkuntzan.
- Gainera, aztertutako hiru esperientziek lan-harremanen esparruan hizkuntzaren erabilera garatu eta sustatzearen garrantzia erakusten dute, bai enpresa indibidualen baitan eta baita maila sektorialean ere. Zentzu honetan, aipaturiko ideietako batzuk zera barneratzen dute:
 - Agente sozialen (sindikatuak eta patronalak) arteko akordioak sustatzea gizarte elkarrizketaren baitan hizkuntzaren erabilera eta sustatzeari buruz enpresetan.
 - Hitzarmen kolektiboak lagundu nahi den hizkuntzan idaztea.
 - Langileentzako dokumentu informatiboak idaztea edo, azkenik,
 - Langile eta profesionalen prestakuntza jarduera arautu eta ez arautuetan hizkuntzaren presentzia sustatzea. Honek jarduera-profesionala burutzeko hizkuntzaren ezaguera eta erabileran trebakuntza-jarduerak bultzatzea barneratzen du.

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

3.5. Eranskina. Medidas propuestas en las áreas relativas a “Medios de comunicación e industrias culturales” y a “Economía” por el Plan General de Normalización de la Lengua Gallega (en gallego)

Subáreas	Medidas propuestas
Industrias culturales	<p>3.2.1. Promover a dobraxe ao galego de polo menos 10 fi lmes anuais, dos que presenten maiores expectativas comerciais.</p> <p>3.2.2. Fomentar a publicidade e as campañas para consumir cinema en galego.</p> <p>3.2.3. Promover cinefóruns en galego nos centros educativos, sobre todo nos non universitarios.</p> <p>3.2.4. Fomentarse que as producións nas que participen a Administración galega ou a CRTVG sexan distribuídas preferentemente en galego.</p> <p>3.2.5. Proxeccións de cine abertas en galego ao aire libre.</p> <p>3.2.6. A Consellería de Educación e Ordenación Universitaria e mais a Consellería de Cultura, Comunicación Social e Turismo distribuirán ás bibliotecas da rede pública, aos centros de ensino e ás asociacións e centros culturais produtos audiovisuais e cinematográficos en galego, atendendo ao seu interese documental, didáctico, científico ou artístico.</p> <p>3.2.7. Sinatura de convenios coas principais distribuidoras para que inclúan a versión en galego nos filmes en soporte DVD.</p> <p>3.2.8. Elaboración dun catálogo de vídeos e DVD que se poden mercar en galego, que será actualizado periodicamente e difundido pola Internet</p> <p>3.2.9. Campaña para que as orquestras realicen o seu labor de animación en galego.</p> <p>3.2.10. Acordar coas orquestras que, polo menos, a metade do seu repertorio estea en galego.</p> <p>3.2.11. Promoción na CRTVG dos principais solistas e grupos que usen o galego.</p> <p>3.2.12. Solicitar ás principais distribuidoras musicais que os CD e outros materiais promocionais de solistas galegos estean, cando menos, en galego.</p> <p>3.2.13. Campaña nas tendas de discos para a promoción e venda da música en galego.</p> <p>3.2.14. Potenciación da canción en galego mediante festivais.</p> <p>3.2.15. Elaboración de produtos dirixidos á infancia e a mocidade (cómic...) en galego.</p> <p>3.2.16. Incrementar a política de tradución ao galego das mellores obras da literatura universal.</p> <p>3.2.17. Promover coleccións de distintos xéneros, orientadas á dimensión práctica: libros de xardinería, cultivos, bricolaxe, etc.</p> <p>3.2.18. Promover un proceso de reflexión entre o profesorado sobre a necesidade de fomentar no alumnado a lectura de libros en todas as materias de estudo.</p> <p>3.2.19. Formar o profesorado de lingua e literatura galegas en novas técnicas de ensino e aprendizaxe da literatura.</p> <p>3.2.20. Asumir neste plan as medidas que recolla o Pacto polo Libro</p> <p>3.2.21. Incrementar o apoio ao teatro que se fai nos centros escolares.</p> <p>3.2.22. Facilitar a asistencia da mocidade ás representacións teatrais en galego, mediante campañas de propaganda e a negociación de prezos accesibles para este sector</p> <p>3.2.23. Todas as web dependentes ou cofi nanciadas pola Administración galega deben estar en galego.</p> <p>3.2.24. Campaña no mundo empresarial para que as empresas utilicen o galego nas súas web</p> <p>3.2.25. Acordos coas empresas de telefonía para que inclúan o galego no seu menú de idiomas, se é que aínda non o teñen.</p> <p>3.2.26. Levantar a cabo as negociacións coas empresas que cumpra para que os avisos de “apagado/fóra de cobertura” sexan cando menos</p>

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Subáreas	Medidas propuestas
	<p>bilingües para as chamadas desde Galicia, ou para quen o solicite.</p> <p>3.2.27. Crear un diccionario de abreviaturas para mensaxes SMS</p> <p>3.2.28. Sinatura de convenios cos principais museos de Galicia para que inclúan o galego na publicidade das exposicións, paneis, folletos e na sinalética.</p> <p>3.2.29. Facilitarlle a formación en lingua galega ao persoal que traballa nos museos, especialmente aos guías e persoas que traballan cara ao público, para que todos teñan capacidade de expresarse en galego.</p> <p>3.2.30. Velar por que os cursos de formación específicos cos aos guías de museos se impartan en galego</p>
Industria	<p>4.1.1. Campaña para facer ver que moitas das relacións técnicas se realizan de feito entre persoas que coñecen e usan o galego.</p> <p>4.1.2. Elaborar e facilitarlle a cada sector económico (maiormente no setor servizos) a documentación e asesoramento lingüístico necesario para que os cadros técnicos poidan desenvolver en galego a súa actividade e sexa posible así conservar a lingua en todo o proceso produtivo.</p> <p>4.1.3. Programar actividades formativas (lingüísticas, sociolingüísticas e psicolingüísticas) que lles permitan aos cadros técnicos desenvolver en galego a súa actividade.</p> <p>4.1.4. Realizar en galego os cursos de formación en TIC (Office, web e similares).</p> <p>4.1.5. Fixar unha porcentaxe das axudas de formación continua para a formación de empregados no uso do galego ou desenvolvemento de iniciativas internas do uso do galego.</p> <p>4.1.6. Asinar convenios cos colexios e asociacións profesionais para facilitarlles ás empresas a súa actividade en galego.</p> <p>4.1.7. Continuidade das axudas públicas existentes para a galeguización de empresas, outorgándolles prioridade ás accións con carácter perdurable e global.</p> <p>4.1.8. Avaliación anual da produtividade das axudas e da súa correcta utilización.</p> <p>4.1.9. Promover a coordinación de todos os organismos públicos para que haxa un impulso común polo galego.</p> <p>4.1.10. Impulsar a acción do TERMIGAL dotándoo de maiores recursos técnicos e humanos.</p> <p>4.1.11. Impulsar con firmeza a elaboración das novas tecnoloxías da fala aplicables ao mundo económico (programas de contabilidade, facturación, nóminas etc.)</p> <p>4.1.12. Campaña publicitaria vinculando os produtos estrela de Galicia co patrimonio lingüístico.</p> <p>4.1.13. Campaña publicitaria vinculando a natureza, o turismo rural, a cadea ecolóxica cos nomes das cousas e dos lugares e coa lingua que neles se creou e pervive.</p> <p>4.1.14. Reorientar a promoción turística de Galicia de xeito que o turista, que vén buscando a diferenza e que a leva consigo como un trofeo, perciba tamén a vitalidade da lingua galega e poida levar tamén algo dela</p> <p>4.1.15. Editar uns folletos cuns mínimos rudimentos da lingua galega (conversación) e da súa historia. E incorporalos á cadea de promoción turística</p>


3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Subáreas	Medidas propuestas
Comercio	<p>4.2.1. Campaña nos medios de comunicación que dea do galego unha imaxe de lingua maioritaria, propia e emerxente e que a asocie a progreso social e económico e que faga ver que a lingua ten valor económico (e da que hoxe dependen moitos postos de traballo e empresas enteiras).</p> <p>4.2.2. Pacto pola fala de entidades empresariais, políticas, sindicais e académicas para lle quitar á lingua marcas de partido ou de inestabilidade, explicitando compromisos e iniciativas.</p> <p>4.2.3. Comunicación oficial da Xunta de Galicia ás empresas recomendando actitude favorable á lingua.</p> <p>4.2.4. Establecemento da Oferta positiva nun número signifi cativo de empresas e creación dun distintivo oficial, apoiado nunha campaña de TV.</p> <p>4.2.5. Promoción da facturación por defecto en galego</p> <p>4.2.6. Invitación a un grupo de dez empresas estratéxicas cada ano a que incorporen o galego á súa actividade. Cinco persoas relevantes de Galicia presentaranlle un proxecto previamente deseñado para esa empresa, que mellore a imaxe social dela e lle garanta certa publicidade.</p> <p>4.2.7. Facilitar o material técnico e as axudas precisas para que as empresas non renuncien a usar ou seguir usando o galego nas súas actividades.</p> <p>4.2.8. Incremento das axudas ás empresas polo uso do galego e bonifi cación no tratamento fiscal dos custos nos que incorren as empresas (doazón para un ben cultural).</p> <p>4.2.9. Incorporar como criterio das concesións de axudas públicas ou contratos coa Administración pública a implicación da empresa no uso do galego, introducindo en todas as axudas unha cláusula de promoción do galego.</p> <p>4.2.10. Campaña de recuperación da memoria empresarial con conciencia de país (Peinador, A. Bóveda, Fernández, Ánxel Casal, Sargadelos...) e premio anual a empresas Galeguizada</p> <p>4.2.11. Facer un novo estudo de mercado que mida non tanto opinións (xa coñecidas) canto comportamentos lingüísticos reais neste eido.</p> <p>4.2.12. Difundir os datos resultantes.</p> <p>4.2.13. Campañas para facer visible e estimular ese tanto por cen de clientes que di preferir un produto se está etiquetado en galego.</p> <p>4.2.14. Resolver os problemas xurídicos que puidese haber e que difi cultan ou impiden o uso do galego no sector económico.</p> <p>4.2.15. Instalar en todos os organismos públicos e en lugar visible un cartel que informe do dereito do cidadán ou consumidor a expresarse oralmente ou documentalmente en galego.</p> <p>4.2.16. Promover xunto co Consello Galego de Consumidores, unha iniciativa lexislativa que recoñeza mellor os dereitos lingüísticos dos consumidores e usuarios</p> <p>4.2.17. Establecer unha colaboración institucional coas universidades (nomeadamente coas facultades que crean cadros técnicos para o mundo empresarial) para que permanentemente elaboren traballos e desenvolvan programas que clarifi quen e estimulen o feito publicitario en galego e para que aumente a porcentaxe de materias explicadas en galego nas que se formen os futuros publicistas e técnicos.</p> <p>4.2.18. Promover unhas xornadas anuais para estudar e estimular a publicidade en galego.</p>

3. Nafarroatik kanpo hizkuntzak esparru sozio-ekonomikoan sustatzen diren esperientzien azterketa

Subáreas	Medidas propuestas
	<p>4.2.19. Creación dun premio anual á mellor campaña publicitaria en galego.</p> <p>4.2.20. Subvencionar e animar a publicidade en galego, centrando o esforzo nas empresas de publicidade.</p> <p>4.2.21. Promover que nas etiquetas multilingües e nas instrucións de uso e de consumo dos produtos que se vendan en Galicia teña cabida tamén a lingua galega.</p> <p>4.2.22. Resolver as trabas legais para a etiquetaxe e normalizar en galego as marcas de calidade e as denominacións de orixe.</p> <p>4.2.23. Promover nos produtos galegos etiqueta tripla (galego, castelán, inglés) ou cuádrupla (galego, portugués, castelán, francés).</p> <p>4.2.24. Ampliar institucionalmente e comercialmente o acordo do Eixo Atlántico da libre circulación das linguas galega e portuguesa nas relacións comerciais dentro da rexión Galicia-Norte de Portugal.</p> <p>4.2.25. Maior desenvolvemento das institucións de relación que xa existen (Eixo Atlántico) e contemplar a ampliación a outros países lusofalantes.</p>
Cooperativismo	<p>4.3.1. Convocar os representantes das máis importantes cooperativas dos distintos sectores co obxecto de acordar as medidas conducentes á galeguización da súa actividade</p>
Banca	<p>4.4.1. Acordos institucionais da Xunta de Galicia coas universidades e mais as empresas de TIC para produción de programas e soporte técnico en galego. Utilizaríase a Rede para a difusión destas ferramentas.</p> <p>4.4.2. Establecer un plan de axudas para o acceso ás TIC e para a presenza comercial na Rede supeditado ao uso que se faga da lingua galega.</p> <p>4.4.3. Establecer acordos para que na selección de persoal, especialmente daquel destinado á atención directa ao público, se garanta a competencia lingüística en galego que permita poñer en práctica a Oferta positiva.</p> <p>4.4.4. Establecer acordos entre a Administración e a banca para que aquela lle forneza una actualización terminolóxica continuada que dea resposta ás necesidades neste ámbito.</p>
Traballo	<p>4.5.1. Programar cos sindicatos, comités de empresa e Consello Galego de Relacións Laborais a introdución dos dereitos lingüísticos dos traballadores como cláusula de oficio en todos os convenios colectivo</p>

Iturria: Galegoa Normalizatzeko Plan Orokorra



4. Nafarroako Klusterren ordezkarien iritzia

4. Nafarroako klusterren ordezkarien iritzia

4.1. Sarrera

Atal honen helburua da Nafarroako kluster eta elkarte sektorialen multzo adierazgarri baten artean egindako analisi kualitatibo baten emaitza nagusiak aurkeztea da. Modu honetan, eurak Euskararekiko duten pertzepzioa ezagutu nahi da sektorearentzako aberastasun iturri posible gisa (bezeroak, merkatuak, negozio-hobi berriak, etab.).

Metodologiaren ikuspuntutik, guztira 9 elkarrizketa pertsonal egin dira hainbat kluster eta elkarte sektorial nafarren ordezkari kualifikatuekin, 2018ko abenduaren 10etik eta 2019ko urtarrilaren 15era doan tartean. Elkarrizketa hauek, izaera irekikoak, ondorengo alderdiak landu dituzte:

- Euskararen egoera orokorra sektorean (erabilera, sentsibilitatea harekiko, etab.)
- Euskararen potentziala sektorearentzat aberastasun iturri posible gisa
- Egungo/Etorkizuneko oztopoak eta mehatxuak potentzialtasun hau garatzeko
- Planen existentzia (abian edo aurreikusiak), Euskararen erabilerari mesede egiteko sektorean eta sektorearengatik
- Sektoreak berak garaturiko jardunbide egoki posibleen identifikazioa

Zehazki, jarraian taula bat aurkezten da elkarrizketaturiko kluster eta elkarteekin.

KLUSTERRA	Sektorearen garrantzia Nafarroako ekonomian
Asociación Navarra de Empresas de Consultoría (ANEC)	Klusterra 23 aholkularitza enpresek osatzen dute guztira. Enpresen %85a Iruñan eta bere eskualdean kokatzen dira. Enpresa txiki edo oso txikien nagusitasun handia.
Clúster de Transformación Industrial de Navarra	Klusterra guztira 120 partaidek osatzen dute, eta horietatik %66 manufaktura-enpresak dira. Klusterrak helduak diren sektoreetan (metala, mekatronika, automozioa, etab.) dauden enpresen presentzia nabaria dauka.
Asociación Navarra de Empresas de Ingeniería, Oficinas Técnicas y Servicios Tecnológicos (ANAIT)	ANAITek Nafarroako Ingeniaritza, Arkitektura eta Zerbitzu Teknologikoen enpresen interesak ordezkatzeko dituzte, eta soilik Nafarroako enpresak bameratzen ditu. Klusterrak gaur egun ingeniaritzetako 53 enpresa dauzka, 200 langile ingururekin, eta urteko 17 milioi euroko batez besteko fakturazioarekin.
Cluster Functional Print (AEGRAN)	AEGRANek arte grafikoen sektorearen parte diren enpresak bameratzen ditu, Lizarraldean eta Iruñako eskualdean presentzia erlatiboki garrantzitsu bat duen sektorea. Klusterrak 76 enpresa bazkide dauzka, 4.000 langile inguru eta urteko 800 milioi euroko fakturazioa. Azken urteetan, Klusterra Nafarroatik kanpokokoak diren enpresak erakartzen ari da.

4. Nafarroako klusterren ordezkarien iritzia

KLUSTERRA	Sektorearen garrantzia Nafarroako ekonomian
Asociación de Empresarios de la Madera de Navarra (ADEMAN)	ADEMANek 80 enpresatik gora dauzka, egurraren balio kate osoa suposatzen dutenak Nafarroan, basoan egurraren jatorritik honen merkataritza eta salmentaraino azken bezeroari. Sektoreak bere osotasunean guztira 391 enpresa dauzka, eta horietatik %50 autonomoak dira. Enpresa hauek Nafarroako enpresa guztien %1,2 ordezkaten dute, eta negozio-zifra 120 milioi eurokoa da (Nafarroako industria-negoziaren zenbateko netoaren %0,75).
Asociación Bodegas de Navarra (ABN)	ABN Nafarroako 23 upategiz osatua dago, eta euren artean Foru Erkidegoko upategi famatuenetako batzuk daude.
Cluster TIC de Navarra (ATANA)	AITANA Nafarroako IKT Klusterra da eta guztira 52 enpresa ordezkaten ditu, 145 milioi euro inguruko fakturazioa lortuz eta 1.400 langileko enplegua. Sektoreak bere osotasunean lurraldeko BPGaren %2,5 erakartzen du.
Clúster Audiovisual de Navarra (CLAVNA)	CLAVNAk 21 bazkide inguru dauzka, NAPAR, EDER Patzuergoa (irabazi asmorik gabeko erakundea, Nafar Eriberako 26 Toki-Erakundez osatua), NICDO eta unibertsitate publiko eta pribatuak, irakaskuntza zentroak eta beste enpresa pribatuak bezalako erakundez osatua. Sektoreak 1.500 pertsona inguruko enplegua ordezkaten du.
Asociación de Industrias Agroalimentarias de Navarra, Rioja y Aragón (ALINAR) (antiguo CONSEBRO)	ALINAR 80 bat enpresa kidez osatua dago, eta horietatik %68 nafarrak, %21 errioxarrak eta %6 aragoarrak dira (beste probintzietako baten batzuk ere dauden arren). ALINAR Nafarroako Nekazaritza eta Elikadura Klusterren partaidea da. Klusterrak helburu bezala sektorearentzako berrikuntza proiektuak garatzea du helburu.

4. Nafarroako klusterren ordezkarien iritzia

4.2. Egindako elkarrizketetatik eskuratutako emaitza nagusiak

4.2.1. Euskararen egoera orokorra sektore produktiboetan

- Orokorrean esan daiteke euskarak presentzia urria duela Nafarroako enpresen artean lan-hizkuntza gisa, bai enpresen barnean eta baita enpresen artean ere. Zentzu honetan, ohiko lanerako hizkuntza gaztelera da.
- Edozein kasutan, Euskara presente dago zenbait enpresa indibidualetan, eta arrazoi desberdinengatik (kulturalak, ekintzailearen ama hizkuntza, etab.) hizkuntza euren lan-hizkuntza bezala erabiltzen dute. Presentzia hau, noski, nabarmenagoa da zonalde euskal hiztunetan kokatutako enpresen artean, bereziki gertuko bezeroei orientatuak dauden enpresen artean.
- Orokorrean, Euskaraz garatzeko produktu edota zerbitzu bereizien eskari eskasa dago, zenbait sektore edota jardueren salbuespenarekin (zerbitzu kulturalak, ostalaritza eta merkataritza bezalako hurbileko zerbitzuak, etab.), eta era bereizian presentzia euskaldun sendoa duten zenbait zonalde geografikoetan. Ikusten da, halaber, enpresa batzuk euren Gizarte Erantzukizun Korporatiboko jardueretan interesa dutela gai euskaldunari dagokionez (ekitaldi eta jarduera zehatzen sostenguari bitartez).
- Enpresa eta sektoreen zati handiena gaur egun oso zuzenduak daude euren nazioartekotzeari begira, bai zuzena eta baita alderantzizkoa ere. Zentzu honetan, esfortzu oso garrantzitsu bat dago trebetasun linguistikoak garatzeko sektore-profesionalen artean, ingeleran eta sektorearen arabera beste hizkuntza zehatzetan (alemana, frantsesa). Aitzitik, langileria propioaren artean euskararen ezagutzaren garapena ez dago kontsultaturiko sektoreen gehiengoan antzeman diren lehentasunen artean.

4.2.2. Euskararen potentzialtasuna sektorearentzako aberastasun sortzaile gisa

- Badira zenbait esparru sektorial non elkarrizketatuek potentzialtasun garrantzitsu batzuk identifikatu dituzten aberastasuna sortzeko Euskararen inguruan. Aipaturiko adibideek hezkuntza eta prestakuntza bezalako gaiak barneratzen dituzte (bai gazteenak, bai helduenak) euskararen gaiari dagokionez edo euskara hizkuntza-instrumentala den beste gaietan. Halaber, sormen-industria (kultura, ikus-entzunezkoak, ondare materialaren eta ukiezina-ren kudeaketa), turismoa (bereziki Euskadiko euskal hiztunak diren kontsumitzaileentzako produktu bereizien sortzeari lotua) edo txikizkako merkataritza (euskal hiztunei emandako arretari dagokionez).
- Garrantzitsutzat hartzen den lan-esparru bat da ere produktuen komunikazio, promozio eta etiketatzeari dagokiona. Izan ere, zenbait sektoretako zenbait enpresa indibidualek (adibidez, nekazaritzako elikagaiena) euren produktuen komunikazioan eta etiketatzean ekimen interesgarriak burutu dituzte. Horien emaitza gisa gainera negozio-aukera esanguratsuak sortu dira (beti ere enpresa indibidualen eta salmenta zuzenari eta Internet bidez-

4. Nafarroako klusterren ordezkarien iritzia

koari zuzenduriko produktuak sortzen dituztenen mailan. Seinalaturiko beste lan-esparru batzuk euskarazko edukiak dituzten web-atarien sorkuntzari dagokie.

- Edozein kasutan, ez da aurreikusten jarduera guzti hauen garapenak sektoreko fakturazioetan hazkunde oso garrantzitsuak sortu ditzakeenik, maila indibidualean enpresa zehatzen emaitza positiboetatik haratago.
- Azterturiko gainontzeko sektore produktiboentzako, euskara garrantzirik gabeko gai bat bezala kontsideratzen da euren egungo eta etorkizuneko jardute-lehentasunetan.
- Gainera, adierazten da Nafarroako Administrazio publikoa (bereziki Nafarroako Gobernua eta udal-administrazioak) paper garrantzitsu bat jokatu dezaketela produktu edota zerbitzuen eskatzaile bezala (aholkularitzak, plan estrategikoak, produktu kultural propioak, etab.), non euskarak paper garrantzitsu bat jokatu dezaken lan hizkuntza gisa. Gainera, Administrazio Publikoak adibide gisa joka dezake euren hiritarrei arreta osoa eta eraginkorra bermatuz edozein delarik ere hautatutako hizkuntza.
- Hau esanda, zenbait sektorek euren gaitzespena azaldu dute enpresentzako hizkuntzari loturiko "eginbehar" posibleen ezartzearen aurrean (adibidez, ziurtagiri linguistikoak zenbait laguntza publiko eskuratzeko aukera izateko).

4.2.3. Egungo/Etorkizuneko oztopo eta mehatxuak potentzialtasun hau garatzeko

- Zenbait sektoreetan (adibidez, ikus-entzunezkoan edo aholkularitzan), zailtasun nabarmenak topatzen dira esperientziadun eta euskaraz erraztasunez lan egiteko ahalmena duten langileak eskuratzeko (kontuan hartu gabe belaunaldi berri bat sartzen ari dela lan-merkatuan ezaguera linguistiko egoiekkin). Edozein kasutan, eta kontsultaturiko sektore gehienentzako, hizkuntza-profil euskalduna duten langileen exijentzia kasik hutsala da.
- Zenbait elkarriketatut identifikaturiko beste oztopo bat da kasu askotan nahi ez den lotura bat posizionamendu politikoaren eta euskararen artean. Hau, dudarik gabe, eragin negatiboa du honen garapenean eta denboran jarraitua den sostengu politiko bat ez-edukitzean (gobernuaren kolore-politikoak aldatu daitezkeen heinean).
- Azkenik, zenbait solaskidek (adibidez, sormen-kultura esparrukoak) nafar gizartean euskararen inguruko ikuspuntu partekatu baten falta dagoela seinalatzen dute, ekonomikoki aukera izan daitezkeen sektore gisa, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan gertatu litekeen ez bezalaxe.

4. Nafarroako klusterren ordezkarien iritzia

4.2.4. Planen existentzia (abian edo aurreikusiak), euskararen erabilera bultzatzera bideratuak, bai sektorean eta bai sektorearentzako

- Ez da identifikatu Plan berezirik dagoenik (abian edo aurreikusiak) Klusterren aldetik eta erakunde ordezkarien aldetik, hizkuntzari loturiko aukeren erabilera edota ustiapena bultzatzeko.

4.2.5. Jardunbide egoki posibleen identifikazioa, sektorean bertan garatuak

- Orokorrean zailtasun handia dago euskararen inguruan jardunbide egoki indibidual edota kolektiboak identifikatzeko elkarrizketatuen artean. Hau esanda, enpresa indibidual batzuen aldetik garaturiko jardunbide egoki batzuk antzematen dira. Hauek jakin izan dute euskara aprobetxatzen desberdintze eta negozio iturri gisa. Zehazki, ikus-entzunezko ekoizleen artean adibideak aipatzen dira, edo nekazaritza elikaduraren sektoreko enpresa batzuen artean, euskarazko etiketa duten produktuak garatzearekin lotuta kolektibo edota ekitaldi zehatzetarako (Nafarroa Oinez, Errigora Ekimena, enpresa indibidualen aldetik promozio-opariak, etab.).



5. Ondorio nagusiak

5. Ondorio nagusiak

5.1. Analisi kuantitatiboaren ondorio nagusiak

▶ Hutsuneak bete eta garrantzitsua den informazio estatistikoaren eskuragarritasuna hobetu

- Euskarazko funts dokumentalak (liburutegi publikoak)
- Euskarazko funts dokumentalak (liburutegi pribatuak)
- Euskarazko salmentak liburu-dendetan (adibidez editoreen elkartearen bitartez)
- Kultura eta sormen ekoizpena euskaraz:
 - Museok
 - Erakusketak
 - Artxiboak eta dokumentazio ondarea
 - Ikus entzunezko industria
 - ...
- Hedabideak: urtero diru laguntzak jasotzen dituzten eragileen ezaugarriak: Enplegua, fakturazioa eta jardueraren zein % da euskaraz.
- Zine eta arte eszenikoen diru laguntzak: enplegua, fakturazioa eta jardueraren zein % da euskaraz.

▶ Sicna-n, Nafarroako kulturaren informazio sisteman, (jarduera guztiak jasotzen dituen) iraulitako datuen guztizko fidagarritasuna lortzeko konpromisoak sustatu eta lortu, programatutako jarduera edo ekintzaren hizkuntzari dagokionez (gaur egun ez da modu sakonean betetzen)

▶ Kultura Sailaren hausnarketa estrategikoetan euskararen gaia modu transbertsalean barneratu

▶ Sektoreko eragileekin sistematizatutako harremanak ezarri elkarrekin adierazle gakoak definitu eta jarraipena egiteko

- Euskadiko Editoreen Elkarte
- Nafarroako Bertsozale Elkarte
- Tokikom
- Nafarroako Antzerki Sarea
- Euskaltzaindia
- Eusko Ikaskuntza
- Euskararen sustapena helburu duen edozein erakunde interesgarri
-

5. Ondorio nagusiak

5.2. Analisi kualitatiboaren ondorio nagusiak

► **Presentzia eskasa lan-hizkuntza gisa,**

- Euskararen presentzia eskasa Nafarroako enpresetan lan-hizkuntza gisa, zenbait enpresa indibidualetako kasu zehatzetatik haratago. Hauetan euskara desberdintze eta negozio iturri bezala erabiltzen jakin dute eurentzako.

► **Euskaraz eskeintzen diren produktu eta zerbitzuen eskaera murrizta, sektore eta zonalde batzuk salbu**

- Bada, orokorrean, euskaraz garatu beharreko produktu edota zerbitzu bereizien eskari eskasi bat, zenbait sektore zehatzen salbuespen partzialarekin (zerbitzu kulturalak, ostalaritza edo merkataritza bezalako gertutasuneko zerbitzuak, etab.), zehazki Nafarroako iparralde eta erdialdeko zonalde euskaldunean.

► **Nazioartekotzeak beste hizkuntzen garrantzia handitu du**

- Nazioartekotzerako dagoen orientazio sendoak azaltzen du ingelera edo sektorearen arabera beste hizkuntza espezifikoak bezalako trebetasun linguistikoek eskari altua. Aitzitik, euskarazko trebetasun linguistikoek garapena ez da lehentasun bat kontsultaturiko sektoreen zati handienarentzako.

► **Potentzialtasuna ikusten da honako sektoretan: hezkuntza eta prestakuntza, sormen-industriak, turismoa eta txikizkako merkataritza**

- Orokorrean, Euskara lehentasunezkoa ez den gai bat da Nafarroako sektore produktiboek zati handienarentzako, bai epe motzean eta baita epe ertain edota luzean ere. Hau esanda, badira euskararen inguruan aberastasuna sortzeko potentzialtasunak dituzten sektore batzuk. Aipaturiko adibideek hezkuntza eta prestakuntza, sormen-industriak, turismoa eta txikizkako merkataritza bezalako gaiak barneratzen dituzte. Aipagarria kontsideratzen den lan-esparru bat da ere produktuen komunikazio, promozio eta etiketatzea. Beste lan-esparru bat da euskarazko edukiak dituzten web-atarien sorkuntza.

► **Administrazio Publikoaren paper garrantzitsua**

- Nafarroako Administrazio Publikoak paper garrantzitsu bat joga dezake euskarazko produktu edota zerbitzuen eskatzaile bezala. Gainera, adibide-papera jokatu dezake euren hiritarrei arreta osoa eta eraginkorra eskainiz edozein delarik hautatutako hizkuntza.

► **Esperientziadun langileria euskalduna lortzeko zailtasuna**

- Euskara aberastasun iturri gisa izateko bidean antzemandako oztopo nagusien artean esperientziadun langileria euskalduna lortzeko zailtasuna, hizkuntzaren inguruko kontsentsu sozial eta politiko baten falta eta euskarari buruz gizarre nafarrean ikuspegi partekatutako baten falta daude, aukera ekonomikodun sektore bat bezala.

► **Klusterrak eta erakundeak ez dute euskara bultzatzeko plan berezirik aipatu**

- Ez da antzeman Plan berezirik (abian edo aurrekusiak) Klusterren eta erakunde adierazleen aldetik hizkuntzarekin loturiko aukeren erabilera edota usiaketa bultzatzeko.


5. Ondorio nagusiak

5.3. Ondorio nagusiak

- Gomendatzen da etorkizuneko ekintza-plan batek bere ekimenak sektore eta jarduera zehatzetara lehenestea, beren ezaugarri propioengatik euskara enpresa-erreminta gisa sustatzeko garaian interes edota erraztasun handiagoa eduki ditzaketenak. Kontuan hartu beharreko adibideen artean daude sormen-industriak, turismoa, txikizkako merkataritza eta lehen sektorea jarduerak. Zentzu honetan, Euskarabideako Plan Estrategikoak dagoeneko azpimarratzen ditu turismoa, merkataritza eta lehen sektoreak euskarari dagokionez ekintzak bultzatzeko lehentasunezko sektoreak bezala.
- Gomendagarria da kontuan izatea Nafarroan existitzen diren geografikoki desberdinak diren errealitate linguistikoak, neurri posibleak diseinatzeko garaian. Izan ere, ezarri beharreko politikekiko gizarte atxikimen handiena lortzea bilatu behar da, eta horretarako epeak eta mezuak egokitu. Baloratu behar da ere politika ezberdinen eraginkortasuna hauek aukeratzeko eta martxan jartzeko orduan.
- Pizgarrien politika bat aurrekusi behar da esfortzu pribatua sustatzeko euskararen normalizazio eta sustapenari dagokionez.
- Azkenik, elkarlanak eta sinergiak bilatzeko komenigarritasuna iradokitzen da, beste esparru geografikoetako aktoreekin (Iparralde eta EAE), euskara lan-munduan sustatzeko ekintzen inklusioan. Egun dagoeneko badauden Hiriko Hitzarmena eta Akitania-Berría Euskadi Nafarroa Euroeskualdea bezalako elkarlan foroak aproposak dirudite proiektu komunak egituratzeko. Gainera, honek jada existitzen diren europar-funtsetara (POCTEFA, adibidez) erraztuko luke sarrera.



3. ATALA ERANSKINAK



A. Eranskina Metodologia

A.1. NASTATEko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (NASTAT, 2018)

Hizkuntzari loturiko jarduera-sektoreen informazio ekonomikoa eskuratu ahal izateko, Nafarroako Foru Komunitateko establezimenduen oinarriko datu ekonomikoak biltzen dituen Nastateko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendako (JEGID) datuak aztertzeetik abiatu gara. Gidazerrenda hori, Nafarroako Foru Komunitatean jarduera ekonomikoak egiten dituzten establezimendu eta enpresa guztien errolda da. Komunitateko erreferentzia markoa da zentsuak eta inkestak egiteko eta erkidegoko establezimenduetan lanean ari den biztanleriaren azterketa ere ahalbidetzen du.

Urtero eguneratzen da eta herri- administrazioen datuak eta eragiketa estatistiko ezberdinetatik eskuratutako informazioarekin osatzen da; erabilitako datuak, Nastaten 2018ko Gidazerrendakoak dira (2018ko urtarrilak 1 ean argitaratuak) eta urtero eguneratzen dira. Hori bai, gaur egun ez dira sartzen lehen sektoreko jarduerak, etxerako langileak enplegatzen dituzten familiak eta lurraldez kanpoko erakundeak.

Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendako datuak, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (JESN) arabera epigrafeen arabera antolatuta daude. Guztira berezitateko jarduera-adarrak, 629 dira (4 digituko koderekin) eta horietatik 36 jarduera-adar izan dira hizkuntzarekin loturaren bat duten aktibitate gisa aukeratutakoak. Zentzu honetan, aztertu diren sektoreak (eta euren JEGID kodeak) honakoak izan dira:

A.1 Taula: JEDIGeko sektoreak

JEDIGeko sektoreak	
1812	Inprimaketako eta arte grafikoetako beste jarduera batzuk
1820	Grabatutako euskarrien erreprodukzioa
4741	Ordenagailuen, ekipo periferikoen eta informatikako programen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan
4761	Liburuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan
4763	Musika eta bideo grabazioen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan
5811	Liburuen argitalpena
5813	Egunkarien argitalpena
5814	Aldizkarien argitalpena
5819	Beste argitaratze jarduera batzuk
5821	Bideojokoen argitalpena
5912	Zinemako, bideo eta telebista saioretako produkzio ondoko jarduerak
5914	Zinema erakusteko jarduerak
5915	Zinema eta bideoko produkzio jarduerak

A. Eranskina Metodologia

A.1 Taula: JEDIGeko sektoreak

JEDIGeko sektoreak	
5916	Telebista saioetako produkzio jarduerak
5920	Soinua grabatzeko eta musika argitaratzeko jarduerak
6010	Irrati-difusioko jarduerak
6020	Telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak
6312	Web atariak
6391	Berri agentzien jarduerak
6399	Beste inon sailkatu gabeko beste informazio zerbitzu batzuk
7021	Harreman publikoak eta komunikazioa
7022	Enpresa kudeaketarako beste aholkularitza jarduera batzuk
7220	Ikerketa eta garapen esperimentalak gizarte zientzietan eta humanitateetan
7311	Publizitate agentziak
7430	Itzulpengintza eta interpretazioko jarduerak
7490	Beste inon sailkatu gabeko beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk
8532	Bigarren hezkuntza tekniko eta profesionala
8551	Kirol eta aisialdi hezkuntza
8552	Kultura hezkuntza
8559	Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza
9001	Arte eszenikoak
9002	Arte eszenikoen jarduera lagungarriak
9003	Sormen artistikoa eta literarioa
9004	Ekitaldi aretoen kudeaketa
9105	Liburutegien jarduerak
9106	Agiritegien jarduerak

Iturria: Nastat

A. Eranskina Metodologia

Hala ere kontuan izan behar da, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda ofizial horrek ez dituela azterlan honen eremukoak diren zenbait aktibitate jasotzen, nagusiki euskararen sustapenarekin lotura dutenak (euskalgintzako gizarte erakundeak adibidez); jarduera-adar horietako datuak, zeharkako bestelako informazio iturriak erabiliz kalkulatu dira.

Bestalde kontuan hartu behar da ere, establezimendu berak zerbitzu edo produktu ezberdinak merkaturatu arren, establezimendu hori JEGID erroldako JESN epigrafe bakar batean agertzen dela; enpresa edo establezimenduaren jarduera nagusiaren arabera JESN epigrafe batean edo bestean kokatzen da; ondorioz, establezimendu batek hainbat jarduera-epigrafetakoak diren produktuak ekoiztu ditzake baina horietako bakar bat bakarrik izendatu zaio.

A.2. Enpresen Inkesta Estrukturnala (Zerbitzuen inkesta)

Ikerketa honetarako Nastatek egindako kalkulu eta jarduera-adar bakoitzeko batez besteko ratio ekonomikoak erabiliz kuantifikatu dira euskara-sektoreen magnitude makroekonomikoak.

Horretarako, lehendabizi azterlan honi loturiko jarduera epigrafeetako (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalari jarraiki) datu ekonomikoak eskuratu ditugu Nastatek. Zehazki, 2016ko Zerbitzuetako Inkestatik lortutako datuak erabiliz (Nastatek berak landuak). Inkesta hau urteroko maiztasunarekin egiten da, eta ikertutako sektoreetako (industria, zerbitzu- eta merkataritza sektoreak) enpresen ezaugarri ekonomiko nagusiei buruzko informazioa eskaintzen du (langileria, negozio-zifra, etab.). Kasu honetan, zerbitzuen inkesta erabili da ikerketarako.

Azken finean, bilatzen dena da Nafarroako Foru Komunitateko zerbitzu-sektorearen egitura ekonomikoa ezagutzeko eta urteko kontu ekonomikoak eta Input-Output taulak egiteko behar den informazioa ematea. Horietan, izan ere, urtero eguneratzen dira sektoreko datu orokorrak, makromagnitudeei dagokienez. Gauzak horrela, jarduera epigrafe bakoitzaren ondoko datu ekonomikoetatik abiatu gara: establezimendu kopurua, enplegua, soldatuen ordainketa (soldatak eta gizarte kotizazioak barne), fakturazioa eta Balio Erantsi Gordina.

- Jarduera-epigrafe bakoitzerako ratioak kalkulatu dira, enpleguaren arabera:
- Soldatuen ordainketa (mila €) enplegu bakoitzeko.
- Fakturazioa (mila €) enplegu bakoitzeko.
- Balio Erantsi Gordina (mila €) enplegu bakoitzeko.

A. Eranskina Metodologia

Jarraian, euskararen azpi-sektore eta jarduera-adar bakoitzeko establezimenduak jarduera- epigrafeen arabera sailkatu ondoren, eta euskarari inputatu beharreko enplegua kontuan izanda, jarduera-epigrafe bakoitzari dagozkion enpleguaren araberako ratio ekonomikoak aplikatu eta euskararen azpi-sektore osorako magnitude ekonomikoak kalkulatu dira: hau da, enplegua, soldatuko ordainketa, Balio Erantsi Gordina eta fakturazio bolumena.

A.3. Input-Output taulak

Sektore ekonomiko gisa euskarak Nafarroako Foru Komunitateko ekonomian duen pisua eta garrantzia neurtzera iristeko, batetik Balio Erantsi Gordinean oinarritutako kalkuluak egin dira, eta bestetik, ekonomia batean sektore ezberdinen arteko interdependentziak zein diren erakusten duten Nafarroako datuekin osatutako Input-Output taulak erabili dira.

Input/Output taulen sistema sektore jakin batek herrialde baten Barne Produktu Gordinean duen garrantzia neurtzeko prozedurarik erabiliena da. Input-Output taulak, herrialde jakin bateko ekoizpenari buruzko informazioa ematen duten tresna estatistikoak dira; herrialde baten urteko ekoizpena, zein sektorek ekoizitakoa den eta ekoizpen hori beste zein sektoretara bideratzen den erakusten dute.

Input-Output tauletako datuak erabiliz jakin daiteke, sektore jakin bateko ekoizpenetik zenbat bideratzen den azken kontsumora eta ekoizpen horren zein zati den beste sektore batzuek bitarteko kontsumo modura erabiltzen dutena. Input-Output tauletan, produktu eta jarduera-adarren arteko erlazioaren datu ekonomikoak jasoak daude eta bestetik, Balio Erantsi Gordinari dagozkion datuak erabiliz, kontabilitate bikoiztuaren arazoari aurre egiten zaio.


Input/Output sistema edo eredu ekonomikoaren informazio taula nagusienak honakoak dira: "Jatorrian" eta "helburuan" deituriko taulak eta taula "simetrikoak":

- "Jatorrian" Input/Output taula: produktu eta zerbitzuen eskaintzari buruzko informazioa ematen du, bertan ekoiztutakoak eta inportatutakoak bereiziz.
- "Helburuan" Input/Output taula: eskariari buruzko informazioa ematen du, produktu-mota bakoitzak zein erabilera mota duen, bitarteko kontsumorako edo azken kontsumorako zein erabiltzen den bereiziz. "Jatorrian" eta "Helmugan" tauletako guztirako balioek bat etorri behar dute. "Helburuan" taulak baita ere, jarduera-adar bakoitzaren balio erantsiari buruzko informazioa ematen du. Zutabeka dago jaso informazio hori, zutabe bakoitzeko bitarteko kontsumoen baturari, dagozkion Balio Erantsi Gordina erantzen badiogu (soldaten ordainketak, ekoizpenaren gaineko zergak, kapital finkoen kontsumoa eta ustiapenaren gaineko soberakinak), ekoizpenak oinarrituko prezioetan duen balioa lortuko dugu.
- Taula "simetrikoak": aurreko bi taulen lanketa edo elaborazio prozesu batetik eratorritako datuekin eraikitako taulak dira eta estatistika-eragiketetatik lortutako datuekin ez dago zuzenean taula "simetrikoetako" informazioa ematera iristerik. "Helburuan" Input-Output taularen antzeko egitura du, baina bi diferentziarekin:

A. Eranskina Metodologia

- Produktuak eta jarduera-adarrak homogeneoak izateko kalkuluak eginak daude, non jarduera-adar batek produktu bakar bat ekoitzi eta produktu bat jarduera-adar batek bakarrik ekoitziko balu bezala eraikitako Input/Output taula teorikoa osatzen den.
- Inportazioen balioak ere jasotzen direnez, produktu jakin baten ekoizpenaren balioa (oinarrizko prezioetan) emateaz gain, guztizko eskaintzaren balioa ere ematen du oinarritzko prezioetan (kontabilitateko kontzeptua erabilita, baliabide edo errekurtsoen balioa alegia).

Taula simetrikoa da azken batean inpaktu ekonomikoa neurtzeko erabiltzen diren koefizienteak kalkulatu eta ereduak eraikitzeko taularik erabiliena. Zutabeka, jarduera adar bakoitzak bere ekoizpenerako beste jarduera-adarretan egindako bitarteko kontsumoari buruzko informazioa ematen du.



B. Eranskina DIRU LAGUNTZAK

B. Eranskina Diru laguntzak

B.1. Euskararen erabilera sustatzeko diru-laguntzak

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua Herritarrekiko eta Erakundeekiko Departamentuari atxikitutako erakunde autonomo bat den heinean, honek dituen eskumenak dira euskararen erabilera ofizialaren arautegia garatzeko ikerketa eta aholkularitza burutzea eta euskararen balia bideak planifikatzea, sustatzea eta kudeatzea Nafarroako Foru Komunitatean. Zehazki, batez ere aipaturiko bigarren lan-ildo zabal hori aurrera eramateko funtsezko instrumentuak dira Euskarabideak kudeatzen dituen diru-laguntza deialdiak.

Zentzu honetan, Euskarabidearen diru-laguntzen artean, aipatzekoa da hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko helburua duena ("Nafarroan zabaltzen diren idatzizko hedabideetan, irratietan eta on-line hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak" deritzona). 2018an, diru-laguntza deialdi honen baitan, 623.476,7 euro bideratu ziren 27 hedabideetara, eta hedabideotan guztira 3.052.673,4€ko aurrekontua duen gastua ahalbidetu du. 2017. urtearekin alderatuz, laguntzen zenbateko osoa %9,1 hazi da (+52.265,4€) eta 6 hedabide gehiago izan dira onuradunak.

Diru-laguntzak hedabideen kategorია desberdinak hartzen ditu kontuan: Euskara hutsezko eguneroko prentsa (Berria), Euskara erabiltzen duen eguneroko prentsa (Noticias de Navarra), Euskara hutsezko tokiko aldizkariak (Ttipi-Ttapa, Guaixe, etab.), Euskara erabiltzen duten tokiko aldizkariak (Merindad de Tafalla eta Mendixut), Euskara hutsezko irratiak (Euskalerría Irratia, Xorroxin Irratia, etab.), Euskara erabiltzen duten irratiak (Irtati Irratia) eta Euskarazko online hedabideak edo euskara erabiltzen dutenak (Gaur8.info, Info7.eus, etab.).

Aipatu behar da kasu batzuetan hedabide berbera kategoría bat baino gehiagotan azaltzen dela eta, beraz, kategoría bat baino gehiagotan jaso dute laguntza. Hau hala da honako hedabideetan: Ttipi-Ttapa (Erran.eus ataria eta Ttipi-Ttapa aldizkaria barneratzen ditu), Ametza (Ametza.eus ataria eta Esan Erran Irratia), Gaur 8 (Gaur 8 aldizkaria eta Gaur8.info ataria) eta Antxeta (Antxeta Irratia eta Antxeta.eus ataria).

B. Eranskina Diru laguntzak

B.1 Taula: Euskarabidearen aldetik diru laguntzak jaso dituzten hedabideak. Zenbateko osoa. 2016-2018.

Hedabideak		2016	2017	2018	Batura
1	Ttípi-Ttapa*	59.034,4	126.631,7	133.737,6	319.403,6
2	Euskalerria Irratia	33.905,5	61.794,6	73.715,2	169.415,2
3	Guaixe	25.758,4	54.989,2	71.867,1	152.614,8
4	Berría	20.000,0	50.000,0	70.733,2	140.733,2
5	Xorroxin Irratia	24.864,0	43.656,6	54.003,8	122.524,4
6	Noticias de Navarra	20.000,0	40.000,0	47.155,5	107.155,5
7	Ametza**	18.931,3	31.025,0	20.649,4	70.605,8
8	Gaur 8***	6.506,5	15.917,6	26.000,0	48.424,1
9	Gazteberri aldizkaria	6.647,7	23.690,9	17.291,2	47.629,8
10	Karrape Irratia	10.946,0	14.845,1	17.958,5	43.749,6
11	Mailope aldizkaria	9.779,5	11.850,0	12.400,0	34.029,5
12	Aralar Irratia	11.684,6	6.300,0	13.391,9	31.376,5
13	Merindad de Tafalla	0,0	10.788,6	13.897,3	24.685,9
14	Periódico Universitario	0,0	19.150,0	4.607,1	23.757,1
15	Beleixe Irratia	6.300,0	11.554,0	0,0	17.854,0
16	Irafi Irratia	0,0	8.340,0	8.515,0	16.855,0
17	Mendixut aldizkaria	0,0	11.130,0	2.672,0	13.802,0
18	Info7.info	2.144,8	4.017,8	6.277,0	12.439,6
19	Axular aldizkaria	2.708,3	4.852,2	3.938,5	11.499,1

B. Eranskina Diru laguntzak

B.1 Taula: Euskarabidearen aldetik diru laguntzak jaso dituzten hedabideak. Zenbateko osoa. 2016-2018.

Hedabideak		2016	2017	2018	Batura
20	Ahotsa.info	2.938,7	4.390,2	0,0	7.328,9
21	Antxeta****	0,0	2.660,4	3.648,3	6.308,7
22	Hamaika.eus	0,0	3.786,4	2.513,4	6.299,9
23	Nabarra Irratia	0,0	2.884,8	0,0	2.884,8
24	Bipuntuzero aldizkaria	2.870,8	0,0	0,0	2.870,8
25	Eworld aldizkaria	0,0	0,0	2.494,2	2.494,2
26	Kotarro aldizkaria	757,8	0,0	0,0	757,8
27	Entreto2 Auzolan aldizkaria	0,0	247,6	0,0	247,6
Total		269.539,1	571.211,3	623.476,7	1.464.227,0

* Erran.eus eta Ttipi-Ttapa aldizkaria hedabideak barneratzen ditu; ** Ametza.eus eta Esan erran Irratia hedabideak barneratzen ditu; *** Gaur 8 aldizkaria eta Gaur8.info hedabideak barneratzen ditu; **** Antxeta Irratia eta Antxeta.eus hedabideak barneratzen ditu

Iturria: Euskararen Nafar Institutoa - Euskarabidea

B. Eranskina Diru laguntzak

Euskarabideak, bestalde, baditu beste esparru batzuetan euskara sustatzeko diru-laguntzak ere. Hain zuzen ere, 2018. urtean Euskarabideak zazpi laguntza-ildo kudeatu ditu (hedabideei zuzendutakoa kanpo), guztira 2.409.349,4 euro suposatzen dituztenak.

Eremu pribatuko lantokietan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko laguntzei dagokienez, onuradunak izan diren erakundeen artean daude, besteak beste, Fagor Ederlan Tafalla S. Coop. (Tafalla), Altsasuko S. Coop. (Altsasu) eta La Burundesa S.A. (Aizoain). Bestalde, badira ere irabazi-asmorik gabeko elkartei zuzendutako laguntzak, euskara sustatzeko jarduerak eta programak egiteko. Onuradunak izan diren elkarten artean daude Euskaraz Koop. Elkartea (Berriozar), Nafarroako Bertsozale Elkartea (Iruña), Karrikiri Elkartea (Iruña), etab.

Beste aldetik, helduen euskalduntzerako laguntzak jaso dituzten erakundeen artean euskaltegiak daude (AEK eta IKA). Azkenik, informazioaren eta komunikazioaren eremuan euskara bultzatzeko laguntzak eta udal esparruan euskara erabiltzeko eta sostengatzeko laguntzak daude. Azken hauen hartzaileak udaletxeak eta hauen euskara zerbitzuak diren bitartean, lehenengo laguntzen onuradunak Nafarroako Artxibozainen Elkartea eta Tokikom S.L. izan dira.

B.2 Taula: Euskarabidearen diru laguntzen zenbatekoa, 2018ko diru laguntza lerro/deialdien arabera

Diru laguntza lerroa		2018ko zenbatekoa
1	Eremu pribatuko lantokietan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko laguntzak	80.000,0
2	Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduerak eta programak egiteko laguntzen deialdia	250.000,0
3	Helduen euskalduntzerako diru-laguntzak	640.000,0
4	Informazioaren eta komunikazioaren teknologien eremuan euskara sustatu, zabaldu eta/edo normalizatzeko laguntzak	15.872,7
5	Udal esparruan euskara erabiltzeko eta sustatzeko laguntzak	700.000,0
6	Nafarroan zabalitzen diren idatzizko hedabideetan, irratietan eta on-line hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak	623.476,7
7	Helduentzako euskararen ikaskuntzarako laguntza indibidualak	100.000,0
Euskarabidea guztira		2.409.349,4

Iturria: Euskarabidea

B. Eranskina Diru laguntzak

B.3 Taula: Nafarroako Kultura Departamentuaren diru laguntzen zenbatekoa, 2018ko diru laguntza lerro/deialdien arabera

Diru laguntza lerroa			2018ko zenbatekoa
1	Sorkuntza eta ekoizpen artistikoa	Sorkuntza eta ekoizpen artistikoko proiektuentzako laguntzak enpresa eta profesionalentzako – GEROKO PRO	74.991
2		Sorkuntza eta produkzio garaikideko proiektuentzako laguntzak - GEROKO	14.150
3		Ikasketa artistikoak zabalteko bekak. Ágorart	151.832,3
Sorkuntza eta ekoizpen artistikoa_Guztira			240.973,3
4	Arte eszeniko eta musikalak	Diru-laguntzak arte eszeniko eta musikalen proiektu artistikoentzako, 50.000€tik beherako aurrekontuarekin (ARTEM -50K)	288.437,5
5		Diru-laguntzak arte eszeniko eta musikalen proiektu artistikoentzako, 50.000€tik gorako aurrekontuarekin (ARTEM 50K+)	236.358,1
6		Diru-laguntzak enpresa eta profesionalentzako, arte eszeniko eta musikalen produkzioarako (ARTEM PRO)	125.000
7		Laguntzak arte eszeniko eta musikaletako profesionalen Nafarroatik kanporako mugikortasunerako eta azoketan, jaialdietan eta ekitaldietan parte-hartzeko. Artem Ex-porta	55.000,0
8		Diru laguntzak arte eszenikoen jaialdi eta ekitaldietarako. ARTEM Festival	55.000,0
9		Diru-laguntzen deialdia arte eszenikoetako profesionalen elkarreentzako (Elkartea)	20.000,0
Arte eszenikoak eta musikalak_Guztira			779.795,6
10	Argitalpenak	Argitalpenerako laguntzak argitaletxe eta profesionalentzako	50.141
11		Argitalpenerako laguntzak irabazi asmorik gabeko erakundeentzako	30.000
Argitalpenak_Guztira			80.141,0
12	Kultura zabalkundea	Erakunde kulturaleri diru-laguntzak kultura herriko tradizionalaren zabalkunde proiektuak egiteko. Sustraiak-Raíces	77.464,6
13		Diru-laguntzak erakunde kulturaleri, zabalkunde kulturalerako proiektuak burutzeko. IDEIA	135.484,9
Kultura zabalkundea_Guztira			212.949,5


B. Eranskina Diru laguntzak

14	Museo eta bildumak	Laguntzak museo eta bilduma museografiko iraunkorren funtzionamendurako urte osoan zehar	70.000,0
15		Laguntzak museo eta bilduma museografiko iraunkorren urteko zabalkuntza jarduera eta ekintzetarako	30.000,0
16		Laguntzak museo eta bilduma museografiko iraunkorretan inbertsioak egiteko	40.000,0
Museo eta bildumak_Guztira			140.000,0
17	Zinema	Zinemarentzako laguntzen deialdia. Generazinema	280.000,0
18		Laguntzak enpresa eta profesionalentzako, Nafarroan ospatzen diren zinema- jaialdi eta ekitaldien antolakuntzarako. GENERAZINEMA FESTIVALES	15.000,0
19		Laguntzak zinematografiako enpresa eta profesionalentzako, azoka eta ekitaldi profesioaletan parte-hartzeko. Generazinema Exporta	15.000,0
Zinema_Guztira			310.000,0
20	Udalerriak	Nafarroako udalerriei diru-laguntzak "Artea eta Kultura" programan barneratzen diren jarduera artistiko eta kulturalak egiteko	517.000,0
21		Laguntza arte eszeniko eta musikal profesionalen programazioarentzako Nafarroako Erkidego Foralaren udalerrietako espazio eszenikoetan (Udal Platea Local)	872.980,0
Guztira			3.153.839,4

B. Eranskina Diru laguntzak

B.4 Taula: Euskarabideak toki entitateei emandako diru laguntzak, 2017



Toki entitatea	Diru-laguntza Guztira	Toki entitatea	Diru-laguntza Guztira	Toki entitatea	Diru-laguntza Guztira
ABARZUZA	313,44	EGUESIBAR	17.859,00	LUZAIDE/VALCARLOS	2.507,52
AEZKOA IBARRA / VALLE DE AEZKOA	4.932,46	ERRIBERRI	1.567,20	MALERREKA	18.023,58
AOIZ / AGOITZ	15.791,28	ERROIBAR	7.209,13	MENDIGORRIA	626,88
ALTSASU/ALSASUA	11.597,29	ERRONKARI	14.933,93	NOAIN	2.820,96
ANSOÁIN / ANTSOAIN	23.859,61	ESTERIBAR	18.029,68	OLAZTI/OLAZAGUTÍA	4.231,44
ARAITZ	783,60	ETXALAR	1.880,64	OLTZA ZENDEA	9.871,37
ARAKIL	626,88	ETXARRI ARANATZ	5.015,05	ORKOEN	18.112,14
ARANGUREN	17.322,57	ETXAURI	9.089,77	SAKANAKO MANCOMUNITATEA	27.138,85
ARANTZA	1.410,48	GALAR	5.307,29	TAFALLA	6.651,18
ARESO	626,88	GARES	12.857,66	TXULAPAIN	2.350,80
ARTAXOA	1.567,20	GESALATZ	470,16	HUARTE / UHARTE	25.186,49
ARTZIBARRA / VALLE DE ARCE	1.253,76	GOIZUETA	1.097,04	VILLATUERTA	1.410,48
ATARRABIA	30.169,94	IGANTZI	1.097,04	ZANGOZA	3.761,28
AURITZ/BURGUETE	2.812,62	IMOTZ	940,32	ZARAITZU / VALLE DE SALAZAR	9.923,57
BARAÑÁIN	25.826,73	IPARMANK: Leitza, Larraun eta Ultzama	18.831,85	ZIZUR MAYOR/ZIZUR NAGUSIA	28.558,73
BASABURUA	1.880,64	IRANTZU	25.794,29	GUZTIRA	650.000,00
BAZTAN	16.915,53	IRUÑA	35.251,60		
BERA	6.112,09	IZARBEIBARRA	13.728,52		
BERRIOBEITI	21.410,27	JAITZ	783,60		
BERRIOZAR	26.787,42	LARRAUN	1.097,04		
BORTZIRIAK	20.392,01	LEITZA	1.097,04		
BURLADA / BURLATA	31.485,51	LEKUNBERRI	2.977,68		
DEIERRI	4.074,72	LERIN	940,32		
DONEZTEBE	8.619,61	LIZARRA	14.396,29		



C. Eranskina MAPAK



C. Eranskina Mapak

C.1. Euskaltegiak eskuladeka




C. Eranskina Mapak


C.2. Euskara zerbitzuak eskualdeka



C. Eranskina Mapak

C.3. D ereduko ikastetxeak eskualdeka eskuladeka





D. Eranskina

EUSKARA ZERBITZUAK

D. Eranskina Euskara zerbitzuak

D.1. Nafarroako udaletako Euskara Zerbitzuak

ESKUALDEA	TOKI ENTITATEA	ENPLEGUA (jardunaldi osora)
PREPIRINEO	AGOITZ-AEZKOA	1
ARGA	ANTSOAINGO UDALA	1
ARGA	ARANGUREN IBARREKO UDALA	1
ARGA	ATARRABIAKO UDALA	1
PIRINEO	AURITZ-ERROIBAR-LUZAIDE-ARTZI	1
ARGA	BARAÑAINGO UDALA	2
BAZTAN	BAZTANGO UDALA	1
ARGA	BERRIOBEITIKO UDALA	1
ARGA	BERRIOZARKO UDALA	1
BIDASOA	BORTZIRIETAKO EUSKARA MANK.	2
ARGA	BURLATAKO UDALA	
ARGA	EGUESIBARKO UDALA	1
ARGA	ESTERIBARKO UDALA	0,75
ARGA	GALARKO UDALA	0,40
VALDIZARBE-NOVENERA	GARESKO UDALA	0,578
LARRAUN-LEITZALDEA	IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA	3
EGA	IRANTZUKO MANKOMUNITATEA	1
ARGA	IRUÑEKO UDALA	9
VALDIZARBE-NOVENERA	IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA	0,60
EGA	LIZARRAKO UDALA	1
PREPIRINEO	LIZOAINIBAR-ARRIASGOITI	0,125
BIDASOA	MALERREKAKO MANKOMUNITATEA	1
ARGA	NOAIN ELORTZIBARKO UDALA	0,5
ARGA	ORKOIEN-OLTZA ZENDEA-ETXAURI	1
SAKANA	SAKANAKO MANKOMUNITATEA	3
ZONA MEDIA	TAFALLAKO UDALA	1
SAKANA	UHARTEKO UDALA	1
PIRINEO	ZARAITZU-ERRONKARI	1
ARGA	ZIZUR NAGUSIKO UDALA	1
Guztira		39

Iturria: Euskarabidea eta euskara zerbitzuak